

BATZAR NAGUSIA 2012



GEROA LANTZEN

Geroa Lantzen

**2012-2015ERAKO EUSKAL GIZARTEAREN
LEHENTASUNEI ERANTZUNAK**

**EAJ-PNVren VI. Batzar Nagusia
2012ko urtarrilaren 14 eta 15a**

AURKIBIDEA

Orr.

1. Helburua	3
2. Testuingurua	6
■ Krisialdi ekonomikoa eta langabezia	6
■ Globalizazioa eta nazioarteko oreka ekonomiko berria	9
■ Ongizate Estatu iraunkorraren kontzeptua birdefinitzea	9
■ Gardentasunerako eta parte hartzeko eskari berriak	11
■ Euzkadiko errealitate politiko berria	12
3. EAJ-PNVren erantzunak	13
A) <i>Enplegua sortzen duen lehiakortasuna</i>	14
1. Gorantz datozen sektoreetan inbertitzea	15
2. Enpresa nazioartekotzea	17
3. Garapenerako azpiegiturak	20
4. Enpresen sorrera eta sormena	22
5. ETEen, autonomoen eta merkatarien lehiakortasuna bultzatzea	24
6. Sozialki arduratsuak diren enpresak	26
7. Energiaren erronkak	28
B) <i>Hezkuntza eta etengabeko prestakuntza</i>	31
1. Familia eta gizarte-bizitza uztartzea, denbora izateak hezkuntzarako duen balioa	32
2. Hezkuntza sistema eta hizkuntzak	34
3. Lan-munduranzko ibilbidea eta etengabeko ikaskuntza	37
4. Unibertsitateko mundua, zientzia eta ikerkuntza	39
5. Teknologia eta pedagogiaren erronka berriak	42
6. Gizarte kohesioa, herritartasuna eta eredu berriak	44
C) <i>Osasun sistema iraunkorra eta kalitatezkoa</i>	46
1. Sistemaren eraketa eta antolaketa	47
2. Osasun zerbitzuen eskariaren kudeaketa	49
3. Osasun arloko profesionalak	51
4. Finantzaketa eta iraunkortasuna	52
D) <i>Gizarte zerbitzuen sistema: kohesioa eta bizikidetza</i>	53
1. Gizarte eta osasun laguntza	54
2. Langabetuak gizarteratzea eta laneratzea errazten duten zerbitzuak	57
3. Etxebizitzarako eskubidea bermatzea	58
4. Berdintasuna eta gizarte babesa: pertsona guztien potentziala aprobetxatzea	60
5. Hazkunde pertsonalerako eta garapenerako kultura	62
E) <i>Gobernu ona</i>	64
1. Sektore publikoaren eraginkortasuna eta produktibitatea arrazionalizatzea eta hobetzea ..	65
2. Administrazio hurbilagoa, abegitsua eta parte hartzekoa. Administrazio	
demokratikoaren aldeko apustua. Gobernu irekia	67
3. Autogobernu fiskala	69
4. Lurraldearen erabilera orekatua eta ingurumenaren babesa	71
5. Gardentasuna eta parte-hartzea	73
F) <i>Euzkadi munduan</i>	75
1. Nazioartean lekua izatea	76
2. "Euzkadi" markaren kokapena nazioartean	77
3. Euskal enpresei babesa ematea munduan	79

1.- HELBURUA

Gure iragana errespetatuz eta berreskuratuz, “geroa lantzea” izan da betidanik EAJ-PNVk euskal gizartearekin duen konpromisoaren oinarria. Geure Herria gidatzen. Proposamen berriak eskaintzen beti, ongizate maila hobekiago lortzeko. Gure errealitateari, euskal errealitateari, egokitutako proposamenak, eta betiere pertsonei zuzenduak.

Une zail honetan, proposamen hauek inoiz baino garrantzitsuagoak dira. Garrantzitsuak baino gehiago, erabakigarriak.

Gaur egungo Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE) ahulago dago, PSE-PP ituna Lehendakariaren sartu zenetik. Gizartearen iritziari buruzko ikerlanek lehendik genekiena berresten dute. Argi eta garbi erakusten dute euskal herritarrek ez daudela ados itun horrekin, hortik sortu den gobernuarekin eta bere lidergoarekin. Eusko Jaurlaritzarenganako konfiantzaren indizeak txikiak dira eta jaisten jarraitzen dute. Jaurlaritzak jaso zuen balorazioa txikia zen eta berriro murriztu da. Gobernu ezaren, ezintasunaren eta lidergo ezaren sententzia gizartearen sektore guztietan zabaldu da. EAJ-PNVk bakarrik azken hiru urteetan salatu duena barneratu du gizarteak. Eta gizarteak barneratu du gauza nabarmena delako. Argi eta garbi geratu da azken udal eta foru hauteskundeetan.

Nafarroako eta Iparraldeko egoera ere ez da ona. Nafarroan, UPNren kolore bakarreko gobernuaren ondotik UPN-PSN koalizioa etorri da. Koalizio horrek ez du islatzen nafar gizartearen dibertsitatea eta ez du haren euskal nortasuna bultzatzen. Bestetik, Iparraldeak ez du aitortzen ofizialik jasotzen. Lurraldearen zati handi batean dinamismo ekonomiko ezaren eta jaitsiera demografikoaren betiko arazoak daude.

Euskal gizarteak badaki EAJ-PNVren lidergoari esker izan ditugula inoizko ongizate mailarik onenak EAEn. Horregatik, prest gaude berriro ere gobernuan geure erantzukizuna izateko. Baina iraganeko arrakastek ematen duten zilegitasuna ez da nahikoa. Geure erantzukizuna da euskal gizarteari, Euzkadi osoari, proiektu berria eskaintzea, garai zail eta zalantzarik gabeko hauetan. Proiektu hau era berean ilusio sortzailea eta errealista izan behar da, azken urteetan egiaztatu baitugu, argi eta garbi, erantzukizun politikoak garesti ordaintzen direla. Eta, zoritxarrez, ez dituzte ordaintzen arduragabeko erabaki horiek hartzen dituzten pertsonek bakarrik, baizik eta gizarte osoak.

Euzkadiren emantzipazio nazionala helburu izanik, gure egitekoa da erantzunak ematea ekonomiaren, hezkuntzaren, osasunaren eta gizarte kohesioaren arloetan. Gure ahaleginak garapenerako eremu estrategikoetan jartzea: bizitza, energia eta mugikortasuna, beharrianetarako erantzun moduan ulertuta, etorkizunean izango ditugun baliabide urriekin. Munduan, Herria garen aldetik, enpresak ditugun aldetik, ekonomikoki garatzeko, eta gure aintzatespen kulturala lortzeko, bere lekua bilatu behar duen Euzkadi bati proposamenak eskaini behar dizkiogu. Euskal gizarteari eman beharreko erantzun hauek dira gure lehentasuna, eta “Geroa lantzen” proiektuan taldekatzen dira. Proiektu hau eztabaidatzeko eta onesteko aurkezten ditu EAJ-PNVn, Alderdiko oinarriekin egingo den barne partaidetzako prozesu garden batean.

EAJ-PNVk Think Gaur Euskadi 2020 gogoetan eta gero Think Gaur Nafarroa 2020 gogoetan azaldu zuen ikuspegia da “Geroa Lantzen”, 2012-2015 denboraldiari egokituta. Hausnarketa honek Euzkadiren etorkizunaren testuinguruan dauden joera sozial, ekonomiko eta kulturalak identifikatu nahi ditu, eta Euzkadi mundu mailan garapenaren erreferente izan dadin zenbait helburu eta proposamen definitu. Hori guztia EAJ-PNVk euskal gizartearekin egin behar duen kontratu sozialean oinarritu behar da.

Gogoeta prozesu honetan EAJ-PNVk Euzkadirentzat zuen ikuspegia adierazi zen. Ikuspegi horrek ondoko elementu hauek zituen:

- Pertsona prestatuak eta konprometituak.
- Bakean bizi den gizartea.
- Bere nortasuna mantentzen eta garatzen duen gizartea.
- Autogobernu osoa eta bere etorkizunaz erabakitzeke eskubidea dituen gizartea.
- Gizarte kohesionatua, gizarte babeseko sistema aurreratuarekin.
- Mundu globalizatuan oso lehiakorra den gizarte bat eratzea.
- Iraunkortasunean garatutako garapen eredia duen gizartea.

Gainera, Think Gaur-en 5 erronka handi zeuden:

- **BERRIKUNTZA:** nazioartean lehiakorrak diren gizartea eta ekonomia eraikitzea.
- **GIZARTE POLITIKAK:** gizarte kohesioa eta ongizatea hobetzea, ekonomikoki bideragarria den gizarte babeseko eredu baten bidez.

- IRAUNKORTASUNA: ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren aldetik orekatua den garapena bermatzea.
- KULTURA: kultura indartu eta sustatzea nazioartean.
- EUZKADI-EUROPA: gure autogobernua erabat garatzea eta bakea lortzea

Uste dugu ikuspegi eta erronka hauek guztiz indarrean daudela. Horregatik, erronka horien erantzunak zehaztu nahi ditugu, “Geroa lantzen” agiriaren bidez. Dokumentu hau, “Euzkadi, Europako nazio” dokumentuarekin batera, gure ekintza politikaren gida izan behar da 2012-2015 denboraldirako. Euzkadi hobetzen jarraitzeko 250 erantzun.

2.- TESTUINGURUA

Edozein proiektu egoera jakin batean kokatzen da, eta gaur egungo egoera kezkagarria da.

Egoera hau azaltzen duten zenbait faktore daude. Faktore horiek identifikatzea eta ezagutzea garrantzitsua da, gure herriari konponbideak eskaini ahal izateko.

Krisialdi ekonomikoa eta langabezia

Ematen du munduko ekonomia 2008. urtean hasi zen krisi ekonomiko eta finantzariotik suspertzen hasi dela. Halere, suspertze hori oraindik ere oso ahula da eta ez da ziurra. Gainera, modu desorekatuan gertatzen ari da. Nazioarteko Diru Funtsak ekonomia globalaren hazkundearen aurreikuspenak %4,4an ezartzen zituen 2011rako eta %4,5ean 2012rako. Baina hazkundearen espektatiba hau batez ere herrialde emergenteetatik dator. Ekonomia aurreratu askotan, hazkundera oraindik ere ahula da, eta defizit publikoa murriztu behararen aurrean hartzen ari diren neurriak mehatxua izan ahal dira hazkundearentzat.

Hazkuntzaren eta enplegu sorreraren bideak epe ertainean berriro ere hartzeko, beharrezkoa da ondoko hauek egitea: baterakuntza fiskal sinesgarria eta orekatua, finantza sektorearen saneamendua eta erreforma ekonomia aurreratu askotan, politika makroekonomiko murrizgarriagoak ahalik eta azkarren ezartzea, eta eskaera berrorekatzea ekonomia emergente eta garapen bideko ekonomia askotan. Baina neurri horiek hazkundearentzat eta enplegua sortzeko oztopo izan daitezke epe motzean.

Espainiar estatuaren kasuan, defizitaren eta langabeziaren egoera eutsiezina da. Defizita murrizteko presioa, estatuan ez ezik, autonomi erkidegoetan eta tokiko erakundeetan sortu da, eta intentsitate handiagoarekin gainera. Estatuko administrazio publikoaren defizita murrizteko eta baterakuntza fiskalerako konpromisoa, neurri handi batean, autonomi erkidegoen erantzukizuna da. Defizitari eta zorrari dagokienez, EAE nahiko ondo dago, besteen aldean, gure doikuntza beharrianak txikiagoak direlako beste autonomi erkidego batzuenak baino. Hala ere, beste autonomi erkidego batzuek baino zor erlatiboki txikiagoa daukagun arren, ahalegin garrantzitsua egin beharko dugu erreforma fiskalean eta eraginkortasunean aurrera egiteko.

Euskal ekonomia, finean, orain urte bat geneukan agertoki berean mantentzen da. Gaur egungo testuinguru ekonomikoa modu latzean pairatzen dugu oraindik ere. Egoera are larriagoa da Eusko Jaurlaritzak ez daukalako proiekturik, lidergorik, politika ekonomiko argirik, gaitasun ekintzailerik, ezta une honetan behar den erakunde arteko koordinazioa sustatzeko borondaterik ere. Hitz batez, zalaparta handiko baina oso eraginkortasun txikiko Eusko Jaurlaritza dugu. Euskal gizarteak krisialdi ekonomikoa bizi du, eta haren larritasuna argi eta garbi pairatzen ari gara azken urteetan. Egoera honetan, enplegua da kezka nagusia.

Eta adierazle objektiboak negatiboak dira, izan ere. EAEk langabezi handiagoa du eta zor handiagoa dauka, oinarritzko zerbitzu publikoen mailak okerrera egin du Osasunean, Hezkuntzan, Segurtasunean eta Gizarte Zerbitzuetan, inbertsioak murriztu dira eta kontsumoa ahuldu da. Ez dago legegintzako ekimenik, ez ekimen politikorik, ez gobernu ekintzarik, ez lidergorik, ezta erakundeen arteko solaskidetzarik ere. Beste modu batera esateko, “aldaketaren gobernuak” ez ditu asetzen herritarren benetako interesak, nahiz eta hark esan zuen interes horiek defendatuko zituela, aurreko gobernu abertzaleek interes horiei kasu egiten ez zitelakoan.

Hala eta guztiz ere, Euzkadin krisiaren ondorioak leunagoak dira estatuko gainerako lekuen aldean, adierazle nagusiek erakusten dutenez. Gure langabezi tasa, 2011ko azken hiruhilekoan EAEn %12,17koa eta Nafarroan %11,68koa, ia estatuko batezbestekoaren erdia da. Gure zor publikoa ere beste autonomi erkidego batzuenaren erdia da, nahiz eta datu horiek bikoiztu egin diren gobernutik kanpo egon garen bi urteetan.

Krisiaren ondorioak leuntzeko daukagun gaitasunaren zati handi bat azken 30 urteotako autonomiari eta kudeaketa ahalmenari zor diegu, Kontzertu Ekonomikoari esker, beste tresna batzuekin batera berak eman baitigu krisiaren eragina arintzeko aukera.

Egoera honen gakoa iraganean izandako estrategietan eta baliabideak erabiltzeko moduan (kudeaketan alegia) datza, baliabideen zenbatekoan bainoago. EAEren egitura produktiboak eta beraren garapen industrialak babes politiko etengabea izan dute; zerbitzuen sektorea gehien garatu diren eta BPGko partaidetza gehien gehitu duten sektoreetako bat da. Badute horretan zerikusirik, gainera, I+G+B arloan gurean egindako ahalegina proportzioan handiagoa izateak eta proposamen berritzaileei emandako babesak. Higiezin sektoreak, bestalde, ez du kalte handirik ekarri, batez ere ez daukalako beste erkidego batzuetan duen pisu berdina. Azkenik, turismoaren lanketa eta hazkundea apustu arrakastatsua izan da.

Egoera honekin pozik geratu beharrean, lanean hasi behar dugula uste dugu. Inoiz baino garrantzitsuagoa da. Berrirori ere egoeraren aurrean arduratsu jokatu behar dugu eta daukagun onena eman, egokitzen zaigun lekutik. Galdutako denbora

berreskuratzeko lan egin eta ahaleginak bateratu behar ditugu. Ziurtasuna. eraginkortasuna eta konfiantza eskainiko dituen proiektu baten aldeko apustua egiten dugu. Ekonomiaren berraktibazioa eta garapena lortzeko ekimenak egitearen aldeko apustua, iraunkortasunetik enplegua sortuz. Konpromiso horrekin Euzkadi ahalik eta azkarren krisialditik atera nahi dugu, konfiantzan eta fidagarritasunean oinarritutako programa baten bidez, eta kudeaketa eraginkor, apaindura gutxiko eta zorrotz batean izan dugun ibilbidean oinarritua. Euzkadin bizitzen ari garen krisi eta ziurgabetasun sasoi honetan, ez dugu esperimenturik ezta naturaren aurkako itunik ere behar. Argitasuna eta esperientzia, lidergo arduratsua eta etorkizunerako ikuspegia behar ditugu. Geroa landu behar dugu.

Horren barruan, krisiaren eragina leuntzen lagundu diguten faktore estrategikoak defendatzearen eta bultzatzearen garrantzia azpimarratu behar dugu, ekonomia suspertzeko eta lehiakortasunerako bidean oso tresna garrantzitsuak baitira. Hauek dira faktoreok: Euzkadirentzako Kontzertu Ekonomikoak emandako autonomia fiskala, zergen gehikortasuna, ekitatea eta ziurtasun fiskalaren printzipioa, politika estrategiko eta ez taktiko gisa bideratuta, eta gizarte kohesiorako ahalegina, zerbitzu publiko zabalagoak eta hobeak ekarri dituen, eta ikerketa eta berrikuntzarako bultzada eta babesa.

Premiazkoa da benetako enpleguaren galera inflexio-puntura iritsi dadila, joera aldaketa horrek enplegua sortzeko behar den konfiantza sortuko baitu. Enplegu duina eta kalitatezkoa sortzea gure politiken ardatz nagusia izan behar da. Ez bakarrik sarrera, baita mantentzea ere. Gehiago hitz egin behar dugu lanaz, langabezia baino. Horretarako lan arloko gure legeria behar dugu, Euzkadiko egoera sozioekonomikoari egokitu, Estatukoaren aldean gure egoera guztiz bestelakoa da eta. Eta horretarako, kontratazioa sustatu behar dugu eta hura mantentzeko konfiantza nahikoa eskaini. Beste gai batzuetan bezala, apustu egin behar dugu lan harremanak geure erara antolatzeko, ekonomiak enpleguan duen eragina saihesten lagunduko digun moduan, kontratazio eredu malguagoak erabiliz, kontratu mugagabea / aldi baterakoa eta lanaldi osokoa / lanaldi partzialekoa bikoteen arabera antolaketa saihesteko. Lehen lanpostuei eta gazteenei arreta berezia eskaini behar diegu, ezin dugulako eduki gure lau gaztetatik bat langabezia. Egoera hori gainditzeko beharrezkoa da galduta dauzkagun balioak sustatzea, gizabanakoenak nahiz gizartearenak. Ondo egindako lana, ardura eta ahalegina gure balioen osagai izan behar dira berriro.

Ahaleginik gabe ez dago etorkizunik. Etorkizuneko belaunaldiak itxaropena eman behar diegu. Haiei utzi behar diegun sistema ekonomikoak lana eskuratzea ahalbidetu behar du, gizarte prestazioak segurtatu behar ditu eta finantza-tresna egonkorra eduki behar ditu.. Hori izan beharko litzateke, azken finean, epe laburrean hartuko ditugun erabakiak gidatuko dituen printzipioa.

Globalizazioa eta nazioarteko oreka politiko eta ekonomiko berria

Globalizazioa eskala handiko prozesu ekonomiko, teknologiko, sozial eta kulturala da. Munduko herrialdeen arteko komunikazioa eta elkarrekiko mendetasuna gehitzea dakar. Prozesu honetan, herrialde horien merkatuak, gizarteak eta kulturak bateratzen dira, izaera globala ematen dieten eraldaketa sozial, ekonomiko eta politikoen bidez. Globalizazioak, beste edozein fenomenok bezalaxe, abantailak eta eragozpenak ditu, baina batean zein bestean, euskal gizarteak aurre egin behar dion errealitatea da.

Globalizazioaren prozesuarekin batera, oreka politiko eta ekonomikoa berriro definitzen ari da. Munduaren eraketa berriak ekarri digun indar ekonomiko eta politikoen korrelazioa ez dugu beste inoiz ikusi. Estatu Batuak, mundu mailan potentzia hegemoniko handia dena, bere boterea galtzen ari dela ikusten ari gara. Europak, bestalde, bere lekuari eusteko arazoak dauzka. Ordena berri honetan, herrialde emergenteen partaidetza gero eta handiagoa da. Mundu berrian mendebaldeak pisua galduko du eta mundua anitzagoa izango da.

Interesgarria da ikustea G20aren gailurretan, gaur egun, zazpi herrialde emergentek aurrerapen ekonomiko nabarmenak egin dituztela. Horri esker, zazpi herrialde horiek aktore nagusi bihurtu dira eta negoziatzeko boterea irabazi dute. Zazpi herrialde horiek BEIT (Brasil, Errusia, India eta Txina) eta Turkia, Hego Korea eta Indonesia dira. Hain zuzen ere, Brasilgo ekonomiak jauzi handia egin du, Txinak Estatu Batuak aurreratu ditu, Indiak Japonia eta Errusiak Britainia Handia. Gainera hazteko aukera handiak daukate herrialde horiek. Hori dena kontuan izanik, esan dezakegu herrialde emergente horiek izango direla mundu mailako botere ekonomiko eta geopolitikoaren eraketa berriaren nondik norakoak finkatuko dituztenak. Botere ekonomikoaren banaketa berri horrek posizioa hartzera behartzen gaitu, Europa batuagoa bakarrik izan daitekeelako gauza mundu berri honetan lehiatzeko.

Ongizate Estatu iraunkorraren kontzeptua birdefinitzea

“Ongizate Estatu” kontzeptuan, herritarren ongizatean eta bizi-kalitatean eragina duten esku hartze publiko guztiak sartzen ditugu. Esku hartze horien barruan zerbitzu publikoak sartzen dira: osasuna, hezkuntza, familiei laguntzeko zerbitzuak, gizarte zerbitzuak, gizarte etxebizitza, eta abar. Ereduen artean ezberdintasunak daude, baina guztiek ezaugarri komun batzuk daukate. Ezaugarri horiek bere funtsa definitzen dute: estaldura publikoko sistema bat, gizarteak bere garapenerako dauzkan funtsezko beharrianak asetzeko.

Honelako testuinguru batean, krisiaren errealitate berriek, familien egituraren aldaketek, emakumeen laneratze gero eta zabalagoak eta Euzkadiren argazki

demografikoak tenkatu egiten dute gaurko eredia eta erronka berriak aurkezten dizkiote. Beharrian berri hauek asetzeko eta gizarte arrisku berriei aurre egiteko gaitasuna gastu publikoa arrazionalizatzeko beharrianak baldintzatzen du. Horregatik, birdefinizioan aurre egin behar dugu eta planteamendu iraunkorrakoak eta integralakoak egin. Arazo berriei elkarrekin gogoeta eginez heldu behar diegu.

Euzkadiko biztanleriaren zahartzea fenomeno estrukturala da. Eragin handia du ongizate estatu baten zutabeetan (pentsioak, osasuna eta gizarte politikak). Aurreikusitako eboluzio demografikoa dela-eta, adineko pertsonen arreta egiteko gizarte beharrianak oso modu garrantzitsuan gehituko dira, eta horrek ekarriko du gastua ere areagotzea. EAEn, mendetasun demografikoaren proportzioa hauxe zen 2006. urtean: 47 mendeko pertsona (16 urtetik beherakoak eta 65 urtetik gorakoak barne) 100 aktibo potentzial bakoitzeko. 2020. urtean proportzioa 59koa izango da. Horregatik, matrize demografiko berri hau osatzen duten gizarte taldeei ekonomi, gizarte eta osasun prestazioak ematea nola bermatuko dugun kudeatu behar da.

Planteamendu berriak, batetik, prozesu eraginkorrakoak, mailakatuagoak eta dinamikoagoak eduki behar ditu ongizate sistemaren politikan; bestetik, erronka berriei aurre egin behar zaie, eta orain arte estaldurarik ez zeukaten arloetan esku hartze eta zerbitzu berriak garatu behar dira eta erronka berriei heldu.

Ezinbestekoa da garapen iraunkorreko eredu baterantz joatea. Ongizate estatuaren finantza-iraunkortasuna bermatzeko, zenbait erreforma egin behar ditugu, funtzionamenduaren logikaren aldatetekin eta abian jartzen diren programa mota berriarekin zerikusia dutenak. Eraginkortasun, koordinazio eta iraunkortasun klabeetan esku hartzeak egingo ditugu.

Iraganean bezala, etorkizunean ezer ez da lehen bezala izango. Ez sektore publikoaren jarduna, ez inbertsioen politika, ez zerbitzu publikoen diseinua ere. Belaunaldi batetik bestera bizi-kalitatea eta aberastasuna hobetuko zirela bermatzen zuen axiomaren amaiera da. Etengabe haztearen eta aberastearen garaia amaitu egin dira.

Krisia gainditzeko eta hazkundeari berriro ekiteko, oinarriak erabat ezberdinak izango dira seguru asko. Izan ere, zaila izango da zerbitzuen maila mantentzea, enplegu gero eta gehiago sortzea, eskaria berriro haztea eta gaur egungo soldata-maila sendotzea. Ongizate estatua birformulatu beharko da, baliabideak optimizatzeko, eraginkortasuna handitzeko eta etorkizuna bermatzeko, eta, horrekin batera, diru sarrera publikoei buruzko politiken gaineko gogoeta soziala ezinbestekoa da. Norabide horretan lan egin behar dugu, jakinik krisialdi honetatik ikuspegi argiarekin eta norabide estrategikoarekin irteten diren herrialde eta gizarteek lehiatzerakoan abantaila nabarmena izango dutela gainerako herrialdeen aldean.

Gardentasunerako eta parte hartzeko eskari berriak

Egoera politikoa euskal gizartearen hirugarren kezka da, langabeziaren eta krisiaren atzetik, eta terrorismoaren aurretik. Inkestak begiratze hutsarekin, nabarmena da sistema politikoaren gaineko konfiantza galdu dela. Euskal gizartea eta klase politikoa gero eta urrunago daude bata bestearengandik. Zenbait ikerlanek azaltzen dute politikarenganako interesa murriztu dela eta konfiantza eza inoiz baino handiagoa dela. Hamabost urtetan, euskal gizarteak politikarengana duen interesa erdira murriztu da. Gaur egun herritarren %20ak bakarrik du interesik. Herritarrek politikariez duten ikuspegi gero eta negatiboagoa arazoak konpontzeko gai ez direlako sortu da.

Horri erantzunez, gizartea, klase politikoarekin duen harremanean ageri diren zailtasunez jabeturik, egungo gobernu sistemen kanpoan nahiz barruan antolatzen da. Gobernu kanpoko erakundeek mugimendu berriak gidatzen dute, hala nola “haserretuak”, globalizazioaren ondorioen aurkako mugimendua eta klima aldaketaren ondorioen kritika edo lurraldearen kudeaketa ez iraunkorra. Errealitateak erakusten digu jende askok uste duela gaur egungo demokrazia ereduak ez duela funtzionatzen. Horregatik, aldaketak, gardentasuna eta zuzeneko partaidetza eskatzen dituzte. Azken Euskobarometroaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren ia %70 ez dago pozik gure sistema demokratikoaren funtzionamenduekin.

Argi eta garbi ikusten dugu herritarrei politika ireki behar diegula, politikara erakarri behar ditugula, eta haien parte hartzea bultzatu behar dugula, modu azkarrean eta artikulatuan. Badakigu egindako ahaleginak ez direla nahikoak. Galdutako konfiantza piztu eta berreskuratu behar dugu. Teknologia berrik hurbilketa lortzen lagundu ahal digute, baina eurak bakarrik ez dira nahikoak. Tresna teknologiko eta instituzional berriagoak eduki ditzakegu, baina benetako motibazioak zehazten ez ditugun bitartean, ez dugu lortuko herritarren eta erakundeen arteko hutsunea laburtzea.

Horretarako, ahaleginak egin behar ditugu, eta gure lana herritarren benetako kezketara hurbildu. Herritarrek jakin nahi dute. Horregatik, gardentasuna exijitzen dute. Herritarrek parte izan nahi dute. Horregatik, parte hartzea exijitzen dute. Eta gizarteak esku hartu nahi du. Horregatik, elkarlana exijitzen du.

Argi eta garbi ikusten dugu politika egiteko modua eta gauza publikoak gobernatzeko modua aldatu egin direla, onerako. Parte hartzearen politika gure gizartera gurekin gelditzeko iritsi den iraultza da. Beraren aldeko apustu garbia egiten dugu, ekonomia bultzatzeko bidean aurrera egiteko bitartekoa delako, eremu mota guztietara iritsiz: herrialde mailan egoera politikoa konpontzeko ekimenetatik hasi eta gure herri eta hiriek hobeto funtzionatzeko erabaki txikiataraino.

Dema hau “gobernu berriaren” ikuspegitik hartu behar dugu, eta kudeaketa herritarrekin konpartitu, erabateko gardentasunarekin. Gardentasuna eta etika ez dira bakarrik oinarrizko printzipioa izan EAJ-PNVk gobernatutako erakundeen gobernu-

ekintzan, baizik eta herritarrek oposizioan lan egiteko agindu digutenean aritu garen erakundeetara eraman dugun exigentzia nagusietako bat. Gure konpromisoa gure erakundeen erabateko gardentasunean sakontzen jarraitzea da. Horrela, gizarteri gure ekintzak azalduko dizkiogu, haietan dugun erantzukizunari helduko diogu eta gizartearen parte hartzea motibatzeke informazioa emango dugu.

Euzkadiko errealitate politiko berria

Hego-Euzkadiko errealitate politiko berriak mapa politiko berria marraztu du. Gobernuako ardurak banatuago daude maila guztietan: Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, foru aldundiak eta udalak.

Errealitate berri honek eskatzen du, ahal den neurrian, erakundeen arteko koordinazio handiagoa egon dadila, Euzkadik dauzkan erronkei aurre egiteko. Epe luzeko akordioak, politika egonkor eta ausartak diseinatu ahal izateko, herritarren eta enpresen benetako beharrianak asetzeko, eta gure Herriaren gizarte-ehundura garrantzitsua oinarri dutenak.

Akordioak EAEn eta Nafarroan ere bai. Nafarroan koordinazio hori beharrezkoa da, UPN-PSNk gobernatutako foru lurralde honetan alkatetza abertzale kopuru garrantzitsua baitago.

3.- EAJ-PNVren ERANTZUNAK

Egoera honen aurrean, EAJ-PNVk euskal gizarteari erantzun berritzaileak eskaini nahi dizkio Euzkadik bere etorkizuna jokoan duen (eta izango duen) eremu estrategikoetan.

- a) Enplegua sortzen duen lehiakortasuna.
- b) Lehen mailako hezkuntza eta etengabeko prestakuntza.
- c) Osasun sistema iraunkorra eta kalitatezkoa.
- d) Kohesiorako eta bizikidetzarako gizarte garapena.
- e) Gobernu ona.
- f) Euzkadi munduan.

Sei eremu horiek dira gizarte moderno batek aurrean dauzkan desafio nagusiak, bai bere aurrerapena eta garapen ekonomikoa lortzeko, bai herritarren ongizatea hobetzeko, gizarte kohesioari eutsiz.

Desafio horiek gizarte osoari dagozkio: pertsoneri, enpresei eta erakundeei. Kasu guztietan, elementu komun bat nabarmendu ahal dugu: garai berrietarako erantzun berriak behar dira. Erantzun horiek gure erronkei ausardiaz eta lidergoz aurre egitea dakarte. Eta EAJ-PNVk erantzun horiek euskal gizartearekin konpartitu nahi ditu, gure gizartea aberasteko.

A) ENPLEGUA SORTZEN DUEN LEHIAKORTASUNA

Lanpostuak sortzeko, gizarte lehiakorra eta batez ere enpresa lehiakorrak behar ditugu. Ekimen pribatua da berrikuntza enpresen dinamikan modu iraunkorrean sartzearen eta bere jarduera merkatu gero eta global batera bideratzearen erantzule nagusia. Halere, EAJ-PNVk uste du gure erakunde publikoen papera funtsezkoa dela garapen ekonomikoa eta gure enpresen lehiakortasuna mesedetzeko. Horregatik, ezinbestekotzat jotzen da erakunde publikoen eta pribatuen arteko lankidetzaren sustatzea ingurune guztietan, benetako beharrianak hobeto ezagutzeko eta arazoei ahalik eta arinen buelta ematen jakiteko.

Ingurune horretan, pentsatu behar dugu zein sektoretan oinarrituko den Euzkadiren etorkizuneko ereduak, baina baita zerikusia duten eragileen arteko lankidetzaren eta garapen estrategiak zeintzuk izango dira ere. Funtsezkoa da zentro teknologikoen, unibertsitateen, lanbide heziketako ikastetxeen eta enpresen artean dagoen tartea motzagoa izan dadila, jakintza aztertu eta esplotatu ahal izateko, enpresa intentsibo berrien sorrera bultzatuz, Ekonomia Berria erabakigarria den faktore honetan.

Ekizpen ereduak bilakaerak eraginda, paradigma berriak agertu dira, lehiakortasunarekin, iraunkortasunarekin, zientziarekin, teknologiarekin, hezikuntzarekin edo osasunarekin zerikusia dutenak. Erronka berriak sortzen dira horrela, baina era berean enpresentzat aukera berriak sortzen dira. Ezinbestekoa da konplexutasun berri hau ulertzea, lehiatu ahal izateko eta ongizate maila handiagoa lortzeko eraldaketa gidatzeko.

Beste alde batetik, administrazio publikoak jarduera ekonomikoaren alde egiteko izango duen paper berria definitu beharra dago. Eztabaida berri honetarako hasierako puntua, gehienbat, krisiaren ondorioetan dago, eta jarduera ekonomikoa orain arteko parametro berberetan sektore publikotik estimulatzen jarraitzeko eragozpen nabarietan.

Lehiakortasunaren funtsezko balioak sustatu behar ditugu, hala nola sormena, ekimena, ahalegina, askatasuna eta ardura. Balio horiek berezkoak izan behar ditu enpresak, baina baita euskal gizarteak berak ere. Gainera, enpresen gizarte erantzukizunaren konpromisoa bultzatu behar dugu. Konpromiso honen bidez, enpresek gizarte erronken konponbidearen parte aktibo izan behar dute, ingurune egonkorrago eta aberatsago bat edukitzeko.

Inbertsio publikoa eta erakundearen buruzagitza faktore garrantzitsuak dira, ekonomiatik tiratzen dutenak. Kontua izango da, beraz, etorkizunerako buruzagitza politiko eta ekonomikoa hartzea, etorkizuneko sektoreetan jardueraren ekonomikoa sortuz.

A.1) GORANTZ DATOZEN SEKTOREETAN INBERTITZEA

⇒ *Diagnostikoa:*

Jarduera ekonomikoko arlo guztien artean, gorantz ari diren sektoreak dira etorkizunean hazkunde handiena izango dutenak. Ezaugarri guztiz desberdinak izan ditzakete, baina denek dute ahalmen handia, eta, enplegu eskariari, berrikuntzari eta kualifikazioari dagokienez, etorkizunari begira denek dituzte oso aukera onak. Horrelako sektoreetan sortzen diren aukerak baliatzeko gaitasuna izatea mesedegarria da Euzkadirentzat, gaur egungo ingurune globalean leku onean kokatzeko.

Euzkadi toki onean dago Europarekiko hurbilketetan, baina aurrera egiten jarraitu beharra dago. EAEren kasuan, puntako sektoreen identifikazioa aspaldi hasi zen. 2007-2010eko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean lau apustu zehatz egin ziren: bioteknologia, nanoteknologia, energia alternatiboak eta garraiorako elektronika; eta horiei erantsi behar litzaieke osasunaren eta gerontologiaren sektorea.

Gaur egun, AEBek, Japoniak eta EBk osatzen duten triangeluak erabateko nagusitasuna galdu du berrikuntzaren arloan, eta aukera berriak azaldu dira lurraldeak etorkizunerako plataforma izan daitezen. Egun, garatutako nazioek ezin dute berrikuntzako lidergoa ziurtatuta eduki. Maila geografikoan, mapa gero eta zabaldago dago, oso leku urrunetan berrikuntza polo indartsuak sortu baitira, adibidez, Pekin, Bangalore, Krakovia edo Seulen.

Gure herrialdean puntako sektoreen zehaztapenak batez ere ikuspegi bat, landu beharreko etorkizuneko posizio bat, eraikitze eta finkatzeko balio izan digu. Munduak erakusten dizkigun esperientziek frogatzen dute berrikuntzaren inguruan eraikitako ekonomiek aprobetxatzen dituzten aukerek eragin itzela izan dezaketela gizartearen ongizatean.

Gogoeta, irtotasuna eta Euzkadi bide honetan eramaten jarraituko duten sektore estrategiko eta emergenteen garapena beharrezkoak dira. Horretarako, prozesu iraunkor bat martxan jarri behar da, joerak aztertze, erabakitze, baliabideak banatzeko, inertiak eraikitze, oinarri sendoak ipintze eta oztopoak ezabatze. Munduak aukerak eta erronkak planteatzen dizkigu, eta Euzkadik aurrera egiten jarraitu ahal izateko konpromisoa, tresnak eta batez ere pertsonak dauzka.

⇒ *EAJ-PNVren erantzuna*

1. Euzkadik sektore ekonomiko estrategikoak garatzearen aldeko apustuan jarraitu behar du. Sektore emergente berriek sortzen dituzten aukerak sendotzen aurrera egin behar du. Aukerak identifikatzea eta gure ahaleginak non egin dira gure erronkak. Argi dago ezin diegula sektore guztiei heldu. Erabaki eta espezializatu behar dugu.

2. Daukagun sendotasunen gainean eraiki. Prozesu prospektiboak bultzatu behar ditugu, aukera eta erronka berriak identifikatzen jarraitu ahal izateko. Horretarako, ezinbestekoa da euskal enpresen errealitatearen berri jakitea, eta haientzat aukeren nitxo berriak zehazten saiatzea.
3. Ikuspegia eta ekintza epe luzean. Sektore emergenteetan oinarritzko ikerkuntza bultzatzeko, batez ere osagai zientifiko garrantzitsua duten sektoreetan, epe luzeko planteamendua beharrezkoa da, etorkizuneko ikuspegi sendoarekin. Sektore hauen aldeko apustua epe luzerako apustua izango da. Komunikazioan inpaktua bakarrik bilatzen duten epe motzeko politketatik urrundu behar dugu, epe luzean baliabideak alferrik galtzea bakarrik lortzen dutelako.
4. Baliabideak pilatzea. Euzkadik ezin du sektore guztietan jardun. Aukeratu behar du, espezializatu, eta emaitzetara orientatu. Etorkizuneko sektoreen definizioan aurrera egiteak apustu bat dakar berekin, batez ere osagai zientifiko garrantzitsua duten sektoreetan, baliabideen ekarpen handiagoa eskatzen dutenak. Sektoreak definitzen ditugunean, gure ahalegin guztiak ahalik eta gehien espezializatzerara bideratu behar ditugu, aplikatutako berrikuntzari lagunduz.
5. Ekoberrikuntza; berrikuntza mota honek garapen iraunkorrean laguntzen du, ingurumenaren gainera eragina murrizten du eta baliabideen erabilera optimizatzen du, eta bi helburu ditu: batetik, baliabide naturalak modu egokian erabiltzea gizakien ongizatea hobetzeko, eta bestetik, enpresak eta lanpostuak sortzeko iturria izatea.
6. Ahaleginak egin behar ditugu intentsitate zientifiko txikiagoa duten beste sektore emergente batzuk identifikatzeko eta garatzeko. Sektore horiek lanpostuen sortzaile garrantzitsuak izan daitezke eta aurrerapen sozioekonomiko garrantzitsuak ekarri. Sektore horien adibide gisa gizarte berrikuntza, turismoa, eta kultur eta sormen industriak aipa ditzakegu. Aberastasuna, lanpostuak eta gizarte garapena sortzen dituzten jarduera ekonomiko horien berezko sinergien sustapena gure garapen ekonomikoko estrategiaren barruan kokatu behar da.
7. Barne merkatuari begira dauden sektorerik tradizionalen artean (nekazaritzako jarduera, merkataritza, birbaleriazioa, arrantza...) modernizazioan sakondu behar dugu eta berrikuntza indartu. Berrikuntza, honelako sektoreetan, produktuen eta zerbitzuen balioa gehitzeko izan behar da, teknologiaren potentziala aprobetxatzen eta merkaturatzeko estrategia berritzaileak garatzen. Eraikuntza iraunkorra, IKTak erabiltzen dituen merkataritza adimenduna, arrain hazkuntzaren eta eraldatutako arrantza produktu berrien garapena, kalitate lehiakorra duen eta lurrari lotuta dagoen nekazaritzako produkzioa, eta animalien nahiz landareen hobekuntza genetikoak: horra hor ohiko sektoreetan berrikuntzaren bidea erakusten duten adibideetako batzuk.

A.2) ENPRESA NAZIOARTEKOTZEA

⇒ *Diagnostikoa:*

Gaur egungo nazioarteko panorama ekonomikoan, industria, zerbitzu sektorea eta nazioartekotzea oso garrantzitsuak dira produktibitatea eta enplegua berreskuratzeko. Erronka egina dago: Euzkadi munduko agertokian kokatu behar dugu. Gure gizartearen ongizatearen eta etorkizunaren alde garrantzitsu bat munduan eta enpresek erronka honi aurre egiteko duten gaitasunean jokatzeko da. Gure ekonomiaren lehiakortasun maila gure ekoizpen sistemak beste herrialdeekin duen harreman mailak baldintzatuko du; gure berrikuntzarako gaitasunak ere eragina izango du.

Euzkadi berrikuntzan, informazioan eta jakintzan erreferente bat izan dadin, nazioartekotzea da daukagun bitartekoa. Eginbehar honi aurre egitea erronka positiboa izan behar da guretzat, Herri gisa daukagun marka mundu zabalean ezagunagoa izan dadin. Geografikoki eta fisikoki herrialde txikia garen arren, gure ekonomiaren izaera irekia finkatu behar dugu eta nazioartean dugun lekua hobetu. Euzkadi eta bere erakundeak nazioarteko komunitatean integratu behar ditugu, modu naturalean. Izaera politikoa eta ekonomikoa duten nazioarteko sareetan parte hartze instituzionala, soziala eta ekonomikoa bultzatu behar dugu.

Horretarako, ezinbestekoa da ulertzea nazioartekotzea enpresen edo jarduera ekonomikoaren erronka ez ezik gizarte osoaren erronka dela. Herri baten erronka. Helburu honekin, jakintza lehiakortasunaren funtsezko faktorea da ekonomia berrian; pertsonak, jakintzaren sortzaile eta erabiltzaile bakarrak, eraldaketa honetako protagonista klabeak dira.

BPGaren portzentajearen neurtuta, EAEk duen esportaziorako joera Europako erregioen batezbestekoa baino apur bat txikiagoa da (%22 eta %23, hurrenez hurren). Horregatik, enpresa gehiagok nazioarteko izaera hori bereganatzea behar dugu, eta dagoeneko hori egin dutenek bidean sakondu dezatela. Nazioartekotzea xede izango duten enpresak behar ditugu. Horretarako, berrikuntzaren aldeko behin betiko apustua egin behar dugu eremu guztietan, eta kudeaketa aurreratuko eredu berrien alde. Enpresek beren estrategiak errealitate berriari egokitu behar dizkiote. Lehian oinarritutako ereduetatik lankidetzan oinarritutako ereduera joan behar dute. Euskal enpresen nazioartekotzeak eta esportaziorako joera etengabeak gorantz egiten jarraitu behar dute. Zerbitzu aurreratu berriak definitzen eta garatzen jarraitu behar dugu, nazioartekotzea eta testuinguru globaleko parte hartzea errazteko eta bultzatzeko.

Erronka argi eta garbi identifikatzen dugu: munduaren aurrean ireki behar gara, egiten ari garena erakusteko eta hobeto egiteko; Euzkadi Markaren kokapena bultzatu behar dugu eta irekiera hori gure balioetatik, gure kulturatik eta gure egiten jakitetik planteatu behar dugu. Pertsonak eta enpresek garapen globaleko ikuspegia bereganatzea lortu behar dugu. Munduari ireki behar gatzazkio eta mundua Euzkadira ekarri.

⇒ **EAJ-PNVren erantzuna**

1. Gure xede-merkatuen dibertsifikazioa erraztea. Gaur egun, gure inbertsiorik gehienak Europako eta Latinamerikako merkatuetan daude. Merkatu berriak arakatu behar ditugu, adibidez, Asia, Magreb edo Estatu Batuak. Analisi prospektibo etengabea egin behar dugu, aukera berriak identifikatzeko. Gainera, gure enpresentzat negozio-potentzial handia dutelako aukeratzen ditugun arlo eta merkatuekin harreman ekonomiko eta instituzionalak indartzeko estrategia garatu behar dugu.
2. Euskal enpresa guztietan nazioarteko hedapena sustatzea. Badakigu beharrezkoa dela euskal enpresa guztiei ulertaraztea nazioartekotzea ezinbesteko tresna dela gaur egungo testuinguruan eta lehiakortasuna handitzeko bidean. Baina enpresa guztiek ez dituzte ezaugarri berdinak, guztiek ez daukate tamaina egokia nazioartekotzeko bakarrik ekiteko. Hori dela-eta, enpresen artean partzuergoak edota akordio estrategikoak sortzea eta sendotzea bultzatu eta sustatu behar dugu, zenbait gaitasun sustatzeko eta osatzeko bidea ematen dutenak. Beraz, edozein tamaina dutela ere, ETE guztiek nazioartekotzeko erronkari aurre egiteko benetako aukerak izango dituzte.

Euzkadiko sektore zabal batzuk mehatxupear daude, kostu txikiko herrialde gainerakorretatik etorritako lehiakideen beldurrez. Batez ere teknologia ertaineko ETEak dira, horrelako enpresetan lanekuaren kostuak pisu handia izaten baitu amaierako prezioan. Sektore horietako ETEentzat, esportazioaren bitartez nazioartekotzea ez da nahikoa. Euren lehiakortasuna hobetu beharra dute, euren tarteak zabalduz eta merkatu kuotak bilatuz, hain zuzen ere, goraka ari diren herrialde horietan. Benetako ETE global bihurtu beharra dute. Herrialde horietan kokatzeak aukera emango digu gure lehiakideak hurbiletik ezagutzeko eta hurrengo hamarkadetan haziko diren merkatuetan egoteko.

Hainbat ETEren egiten jakitea modu egokian konbinatuz, ahalegina egin daiteke nazioarteko merkatuetan proiektu handiei ekiteko. Proiektu horiek, gainera, tiratze efektua izan dezakete, Euzkadiko beste enpresa batzuk ere onuratu bailitezke hornitzaile gisa. Proiektu handi horiek identifikatzeko eta merkatuak zein herrialde eta sektoretan zabaltzea daitekeen jakiteko, erbeste horietan bizi diren euskaldunek bakarrik eman dezaketen informazio komertziala behar dugu. Dagoeneko merkatu horietan behar bezala finkatu diren euskal enpresa handi batzuek "aurrelari taldearena" egin dezakete ETEentzako laguntza sareak eratuz.

3. Gure kanpo sektorea teknologia handiko sektoreetara bideratu behar dugu, jakintzaren zerbitzu intentsiboen esportazioa barne. Ahaleginak oinarri teknologikoko enpresa gazteak nazioartekotzen laguntzera bideratu behar ditugu, batez ere estrategia teknologiko sektorialen barruan sortzen direnak (bioteknologia, nanoteknologia, energia alternatiboak, garraiorako elektronika eta xurgatutako sistemak), hori guztia jasangarritasun ikuspegi batetik.

4. Enpresari laguntzea nazioartekotzeari buruzko gogoeta prozesuetan. Enpresek nazioarteko ikuspegia izan behar dute negozioaren estrategia globalean. Nazioarteko merkatuei nola heldu hausnartu behar dute, beren ezaugarrien arabera (dimentsioa, ekoizteko gaitasuna, finantzaketa etab) eta merkatuaren ezaugarrien arabera (lehia, muga-zergen oztopoak, beharrian teknikoak etab). Enpresek beren jarduera artikulatzean mundua agertoki gisa ikusi behar dute, eta balio katea osoan aukerak identifikatu behar dituzte. Globalizazioaren eta krisi orokorraren testuingurua aukera-iturri garrantzitsua da gure enpresentzat. Baina kasu bakoitzean gogoeta hau egin behar dugu, desafio honi heltzeko estrategiarik onena zein den zehazte aldera.
5. Laguntzako programak eta pizgarriak indartzea. Euskal industriari lagundu behar diogu merkatu berriak irekitzeko orduan: esportazioa, finkapen komertziala eta ekoizpen zentroen kokapena. Jakintza, finantza-babesa eta tresna fiskalak ematea kanpoan finkatzeko eta esportazioak sustatzea.

Gainera zerbitzu sektore gihartsua behar dugu, eta laguntza eman behar diogu, prestaturik egongo garen eta nazioarteko erreferente izan ahalko garen sektore bat nazioartekotu ahal izateko. Horretarako, administrazio publikoetatik sektore pribatuari kontzesioak emateko sistema landu beharko da. Sistema horrek bidea emango du kanpoko merkatuetan arrakastaz lehiatzeko beharrezkoa den “know how-a” garatzeko.

6. Eredu berria definitzea eta zerbitzu berriak erabiltzea, euskal ETEen nazioartekotzea finantzatzen laguntzeko. Gaur egungo tresnak bultzatu eta malgutu behar ditugu. Zerbitzu eraginkorrak garatu behar ditugu, enpresaren erabateko konpromisoa, lankidetzeta eta emaitzen bilaketa oinarritzko zutabetzat hartzen dituztenak. Enpresek eta administrazioak arriskuak konpartitu behar dituzte, baina baita etekinak ere.
7. Nazioarteko profila duten pertsonen garapena bultzatzea. Pertsonen garapena klabea da erronka honetan. Hizkuntzak dakizkiten eta kanpoko merkatuak ezagutzen dituzten pertsonak behar ditugu. Jarrera irekia duten pertsonak, maleta hartu eta mundu zabalean saltzen hasteko beldurrik ez dutenak. Lankidetzeta eta itunak bultzatu behar ditugu, bai tokiko unibertsitateekin bai negozio-eskola ospetsuekin, merkatu emergenteetan daudenak, gure enpresetako zuzendaritzetako pertsoneri herrialde horietako errealitate sozioekonomikoa erakusten dietenak. Euskal unibertsitateetako ateak zabaltzeko behar dizkiegu ikasle atzeritarrei, goraka ari diren merkatuetako ikasleei batez ere, horiek bihar-etzi langile baliotsuak izan daitezkeelako gure enpresentzat, euren sorterrietan.
8. Euzkadira inbertsioak erakartzeko politika ausarta, baina baliabide publikoak eraginkortasunez erabiltzea bermatuko duena. Inbertsio hauek, lanpostuak sortu

eta teknologia berriak eskuragarri jartzeaz gain, beste ekonomia batzuetara hurbiltzea ekarriko dute eta, beraz, merkatu berrietan sartzeko aukerak.

9. Herrialdea garatzeko ekonomia traktore nagusiak bultzatzea eta sustatzea. Ingurunerik hurbileneko ekonomia eta enpresa jardueretan eragin handia daukaten enpresak dira hauek.

A.3) GARAPENERAKO AZPIEGITURAK

⇒ Diagnostikoa:

Gure erakundeetan azken urteetan pisurik handiena izan duten funtzioetako bat gure azpiegitura eta ekipamenduak modernizatzea izan da. Errepideen gaineko eskumen tradizionalaz gain, garapen ekonomikorako oinarrizkoak diren zerbitzu mota asko hobetzeko eta berriztatzeko ekimenak eta inbertsioak egon dira: portuak, aireportuak, trenbideak, parke teknologikoak, berrikuntzarako eta inkubaziorako espazioak, komunikaziorako eta jakintza bultzatzeko sare fisikoak eta birtualak, eta I+G+B.

Azpiegitura horien garapena osagai giltzarria da Euzkadiren hazkunde ekonomikoan eta lehiakortasunean. “EAEko Lehiakortasunaren Txostenak, 2011”, Orkestra erakundeak eginak, dio EAEk abiapuntu ona daukala azpiegituri dagokienez. Nafarroaren egoera antzekoa da. Beste eskualde aurreratu batzuetan bezala, gure erroka nagusiak itoguneak askatzea eta gabeziak asetzea, eta erabilera eta kudeaketa eraginkorrak artikulatzea dira, azpiegituren sare propioan.

Azpiegitura horien helburu komuna bikoitza da: enpresen lehiakortasuna ahalbideratzea eta euskal herritarren bizi-kalitatea hobetzea. Horrela, komunikazio eta zerbitzu sarearen hobekuntza horrek lurralde osoaren garapen harmonikoa ahalbideratzea nahi du, aurrerapena gure eskualde eta udalerrri guztietara berdin-berdin irits dadin.

IKTen kasuan, EAEren eta Nafarroaren abiapuntua ezin hobia da. Azpiegitura horien ahalmena eta erabilera, bai enpresetan bai etxeetan, eremu horretako erreferentziako herrialde eta eskualdeetako mailara iristetik urrun dago. Japonia eta Korea, gaur egun abiadura handiko konexioetan nolabaiteko desazelerazioa daukaten arren, izugarritzko kopuruetan daude. Japonian, etheen %90 baino gehiago FTTH bidez konektatuta dago. Hego Koreak, berriz, zuntza duen banda zabalaren hedapenik altuenetako bat du munduan: %55.

⇒ **EAJ-PNVren erantzuna**

1. Herritarren eta enpresen beharrianak asetzen dituzten inbertsio berriak planeatzea eta programatzea, betiere lehiakortasunaren klabea errespeturik handienarekin, ingurumenaren aldeko neurri zuzentzailearekin, eta lurzorua eta lurraldearen erabilera egokiarekin eta antolaketa orokorrarekin konbinatzen. Zentzu horretan, lehentasun hauek izan behar ditugu: jarduera ekonomiko eta sozial berriak finkatzeko aukerak sortzea, turismoa eta merkataritza, kultur eta aisialdi harremanak bultzatzen dituzten erakarpen berriak sustatzea, kutsadura-emisioak murrizten dituzten garraio mota berriak identifikatzea eta sustatzea, eta hirigintzari lortutako jarduerak, jendea bizi den gune eta udalerrriak funtzionalagoak, adeitsuagoak eta gizatiarragoak direla bermatzen dutenak.
2. Azpiegituren kudeaketa koordinatua eta haien erabilera optimizatzea, barne eta kanpo konektibitatea sortzeko, eta egiten diren inbertsioak ikuspegi sistemikotik ondo aukeratuak eta beharrezkoak direla lortzeko.
3. Dauden azpiegituren kontserbazio eta mantentze integraleko politika.
4. AHTaren konexioa azkartzea Frantziarekin, ardatz atlantikoarekiko konexioari lehentasuna emanez. Euskal Y-a garraiobide ezberdinekin konektatzea, bai pertsonenak bai merkatugaiak, intermodalitate erreala eta funtzionala ahalbideratzen.
5. Azpiegitura guztiak geuk kudeatzeko transferentzia lehenestea, gure garraiobide eta garraio mota guztiak eraginkortasunez eta eragimenez koordinatu ahal izateko moduan. Zehazki, kudeaketa propio horrek gure portuak, aireportuak eta trenbide sistema indartzeko bide emango luke, Europa osoarekin eta munduarekin pertsonen eta merkatugaien komunikazioko ardatz nagusiak baitira.
6. Aurrera egitea e-konektibitatean: sare adimendun berriak, abiadura handiko Internet, prezio lehiakorreko konexioa Interneten ibiltzeko... Eta azpiegituretako inbertsioak planifikatzea, lurraldeen arteko leize digitalik ez izateko.
7. “Kredituari, bankari eta aseguruiei” buruzko eskumenen transferentzia, Euzkadiaren garapen egituratzailerako behar den babes nahikoa eskaintzen duen finantza-sistema propioa sortzeko asmoz. Finantza-sistema honek, neurri handi batean, aurrezki kutxen euskal sistema izango du euskarri. Aurrezki kutxek, EAEn sendotasun handia erakutsi dute finantza-sistemaren krisiaren testuinguruan.
8. Gainera, Euzkadin sortzen diren pentsio funtsak gure herrialdea garatzen laguntzen duten tresna ere bihurtu daitezela nahi dugu. Zentzu horretan, euskal

enpresetan tresna horiek sustatzearen alde eta borondatezko aurreikuspen sistema hauek euskal enpresen negozioazio kolektiboan sartzearen alde gaude.

9. Datuen prozesamendu zentro berrien sorrera sustatzea, “cloud-computing” zerbitzuak eskaini ahal izateko. Garatzaileen eta euskal enpresen jakintza eta prestakuntza bultzatzea hodeian zerbitzuak sortu eta erabiltzeko.
10. Tamaina ertaina duen eta metropoli eremu zabal batean hedatuta dagoen europar hiri batekin parekatu dezakegu Euzkadi. EUSKAL HIRIAREN kontzeptu hori gogoan izan behar dugu lurraldea antolatu eta planifikatzeko garaian. Zenbait azpiegitura ez dira bikoiztu behar.

A.4) ENPRESEN SORRERA ETA SORMENA

⇒ Diagnostikoa:

Enplegua enpresek sortzen dute. Enpresak egon daitezen, pertsona ekintzaileak behar dituzte. Pertsona horiek sormen nahikoa izan behar dute ekimen berritzaile berriak martxan jartzeko.

Euskal gizartearen berezko izaera ekintzailea galdu dugu, neurri handi batean. Nazioarteko azterlan konparatuek, hala nola Global Entrepreneurship Monitor (GEM) izeneko behatokiak 2009ko jarduera ekintzaileari buruz egin duena, erakusten dute gure jarduera ekintzailearen tasa nahiko txikia dela, bai kopuru absolutuetan (EAEko biztanleriaren %3 baino gutxiago dago 3,5 urte baino gehiago irauten duten ekimen ekintzaileetan sartuta) bai kopuru erlatiboetan (oso urruti gaude Norvegiatik, Estatu Batuetatik, Suitzatik eta Koreatik, guztiak %8aren inguruan). Beraz, izpiritu hori berreskuratu behar dugu, herri gisa hazi ahal izateko.

⇒ EAJ-PNVren erantzuna

1. Enpresen sorrera eta sormena hezkuntza sistemaren etapa guztietan garatzea. Ikastetxeek, eta hezkuntza sistema osoak, oro har, pertsonak jaiotzen direnetik duten sormenaren garapena sustatu behar dute, eta ikasleen espiritu ekintzaile eta sortzailea garatu behar dute. Espiritu horri esker, etorkizunean euren enpresak sortzeko aukera gehiago izango dituzte, eta erakunde batentzat lan egiten badute, berari ekarpenak egiteko ahalmen handiagoa izango dute. Gainera, kontzientziazio eta prestakuntza lan hau lanbide heziketan eta unibertsitatean ere hedatu eta sakondu behar da.

2. Pertsona eta erakunde ekintzaileak txalotzea. Aldaketa bat egin behar dugu, pertsona eta erakunde ekintzaileak gure gizartearentzat lanpostuak eta ongizatea sortzen dituzten pertsona gisa ikusteko. Gainera, euskal gizarteak ulertu behar du enpresa-ekimen baten porrota ez dela porrot gisa ikusi behar, baizik eta esperientzia aberasgarri gisa, etorkizuneko proiektuetan arrakastarako aukerak areagotzen dituen. Aldaketa hori lortzeko, gizarte-pedagogia bat behar dugu, gizarte osoari pertsona eta erakunde ekintzaileen errealitatea hurbilduko diona. Porrota onartzen ere ikasi behar da bizitzan, beharrezkoa baita pertsonen edo erakundeen arrakastarako.
3. Sormena babestea. Batetik, sormenaren garapena mesedetzen, enpresetan eta gure gizartearen beste eremu batzuetan tailerrak eginez, stage-ak bezalako ekimenekin eta pertsona sortzaileen elkarlanarekin enpresa tradizionaletan, eta enpresa kultura berri bat sortzen laguntzen, zeinetan pertsonak aktibo nagusia izango diren, eta haien ideiak eta ekarpenak enpresaren berrikuntza eta lehiakortasuna mesedetzen dituzten tresna gisa baloratuak izango diren. Eta bestetik, pertsona sortzaileei laguntzen, ideia horiek lankidetzaren ikuspegitik garatutako prozesu ekintzaileetan gauzatu ahal ditzaten. Prozesu horietan, eragile bakoitzak behar diren osagaiak jarriko ditu, ideia horiek enpresa-proiektu arrakastatsu bilakatu daitezten.
4. Ekintzailletza bultzatzea. Proiektu ekintzaileak babesteko ekosistema ona daukagu (garapen agentziak, zentro teknologikoak, unibertsitateak, enpresetako I+G unitateak), bai pertsonak sustatuak bai enpresek sustatuak. Baina ekosistema horrek modu askoz ere koordinatuagoan lan egin behar du, bikoizketak ekidinez eta bere zerbitzuak eta laguntzak espezializatuz. Ekintzailletza bereziki bultzatzea enpresen barruan (intrapreneurship), eta behar beste sustatzea “spin-off”aren sorrera, aukera berriak hala eskatzen badu.
5. Finantzaketa arazo potoloa da enpresak sortzeko proiektuentzat. Horregatik, daukagun tresna publikoak eraldatu behar ditugu. Alde batetik, indartu egin behar ditugu ekintzaileen proiektuak finantzatzeko tresnak, hala nola mailegu itzulgarriak, eta sendotu egin behar ditugu arrisku-kapitaleko tresnak, partaidetza publikoarekin, eta finantzaketa pribatua eskuratzea ahalbidetzen duten abalen programak. Modu osagarrian, finantzaketarako tresna berritzaileak sortu eta sustatu behar ditugu, hala nola “business angels”ak, “crowdfunding”a (mikrofinantzaketa kolektiboa alegia) eta banka soziala.
6. Ekimen berriek kanpoko merkatuei begira egon daitezela lehenestea. Zentzu horretan, Euzkadiren nazioarteko presentzia merkatu horien ezagutza eta haietan sartzeari mesedetzen duen elementua izan behar da, tresna propioen bidez eta nazioarteko sareetan parte hartuz.

7. Enpresa-proiektu berritzaileen lehenengo merkatuetan sartzearrazte.
8. Barne-ekintzailatza. Barne-ekintzailatzaren kultura sustatzea enpresetan eta euskal administrazio publikoetan.

A.5) ETEEN, AUTONOMOEN ETA MERKATARIEN LEHIAKORTASUNA BULTZATZEA

⇒ Diagnostikoa:

Euskal enpresa txiki eta ertainek, sozietateen %95 eta lanpostuen %80 direnak, arazo handiak dituzte testuinguru ekonomiko txarra dela-eta. Barne-eskaera nabarmen murriztu da eta diruzaintzaren egoera ere konplexua da, are gehiago finantza-egoera zaila kontuan izaten badugu.

Gure suspertze ekonomikoaren sendotasuna, eta batez ere lanpostuen sarreran islatzea, gure ETEen lehiakortasunaren araberakoa izango da. Agertoki berrian, enpresen eta lurraldeen berrikuntza eta balio erantsiaren sorrera talentuaren, jakintzaren eta sormenaren aprobeztamendu azkarretik etorriko dira, horiek baitira aurrerapenaren motorrak.

Gure egungo egoerak defizita du berrikuntzari dagokionez. IUS 2010 europar adierazleen panelak 15. jartzen gaitu. Berrikuntzaren adierazle sintetikoa Europako batez bestearen azpitik dago. EAEko indizea osatzen duten 25 adierazleetatik 3tan bakarrik nabarmentzen da: giza baliabideak, enpresen inbertsioa eta enpresa loturak eta ekimena. Gainerakoetan, gure puntuazioa Europar Batasunaren batezbestekoa baino txikiagoa da.

Administrazioek hazkunde ekonomikoa sortzeko baldintzak bultzatzen, dinamizatzen eta sortzen dituzte. Baina enpresak dira, eta bereziki ETEak, benetan lanpostuak sortzen dituztenak. Ondo dakigu zein garrantzitsua den enpresa berrien sorrera bultzatzea eta ETEak, autonomoak eta komertzio txikiak sustatu beharra, krisia behin betiko gainditzeko, beraiek baitira krisia gehien sufritzen dutenak. Denon artean enpresa-ehundura berriztatua, itxaropentsua eta batez ere lehiakorra sortu behar dugu. Berrikuntza, teknologia, sormena eta jakintza dira etorkizuneko enpresaren gakoak. Hori da Herri gisa dugun erronka.

⇒ EAJ-PNVren erantzuna

1. Berrikuntzarako gaitasuna gehitzea eta balio erantsia sortzea. Enpresentzako eta berrikuntza sistema osoarentzako erronka hau da: berrikuntza (bai teknologikoa

bai bestelakoa) merkatu globaletan saldu eta erosi ahal diren edota produktibitatea hobetzen duten ondasun eta zerbitzu bihurtzea.

2. Barruko merkatura zuzendutako nekazaritza eta industria jarduera indartzea. Hau da, “aro industrialera” itzultzea (“manufacturing age”). Zenbait hamarkadatan fabrikak itxi ondoren, kontsumitzen dugunaren produkzioa bertan behera utzi ostean, ahalmen mota guztiak beste sektore batzuetara (finantzetara) bideratu eta gero, herrialde garatu askotan (bereziki Estatu Batuetan) entzuten ari da tokiko ekoizpenera itzuli beharra dagoela, “jakintzaren ekonomiatik” baztertuta geratu diren langileei lana emanez. Euzkadik abiaburu sendoa dauka bide honetan, beste herrialde batzuek bezala (Alemania eta Suedia adibidez).
3. Enpresen berrikuntzarako, nazioartekotzerako eta kudeaketa aurreraturako behar diren gaitasunetara bideratu behar dira pertsonen eta erakundeen ahalmenak eta ikasketak.
4. Irekiera eta konektibitatea. Gaur egungo testuinguruan ETEen lehiakortasuna hobetu ahal izateko, inoiz baino garrantzitsuagoa da “kanpora” begiratzea erreferentzia-puntua, baliabideak eta aukerak bilatzeko, barne-lankidetzako estrategia batetik eta zerikusia duten eragileekin harreman estua izanik. Zehazki, zentro teknologikoen eta ETEen arteko distantzia murriztu behar da.
5. Enpresa txiki eta ertainak finantzatzen laguntzeko programak egin behar dira, bizirauten eta hazten laguntzen dieten tresnak emanez. Batez ere enplegu garbia sortzen duten ETEei begiratu behar diegu. Eskaeren eta kobrantzen aurrean beren jarduera mantentzeko “finantzaketa nahikoa” eskuratzen dutela bermatu behar dugu. Bestalde, ziurtatu behar dugu bideragarria den eta enplegu erreala kontratatzen lagundu ahal duen proiektu bat ere ez dela bertan behera geratuko finantzaketa ezagatik. Proiektu horien artean nazioartekotzea sartu behar dugu. Krisia gainditzeko jo eta ke lanean ari diren ETEei konpromisoa adierazi behar diegu, gaur egungo finantzaketa-tresna guztiak garatuz, erabiliz eta hedatuz; era berean, tresna eta forma berrietarantz joan behar dugu.

Kooperatibentzako laguntza programa berariazkoak antolatzea, eta aintzat hartzea kooperatibek enpleguari eusteko eta ekonomia eta lan esparruetan elkartasunaren eta lankidetzaren balioak hedatzeko egiten duten ekarpen garrantzitsuak.

6. Enpresan berrikuntza eta garapena sustatu behar ditugu, administrazio publikoarekin “programa-kontratu” formula zabalduz.
7. ETEetan berrikuntza eta nazioartekotze prozesuak modu integralean finkatu ahal direla bermatzeko ETEek dimentsio eta neurri egokiak izateko politikak erraztea eta bultzatzea.

8. Bat egite, aliantza eta partzuergo prozesuak babestea, enpresen “dimentsio” beharrianaren erantzun gisa. Zentzu honetan, EAEn 1990eko hamarkadatik aurrera egin den kluster politikaren arrakasta nabarmendu behar dugu. Urrats bat gehiago egin behar da bide horretan, eta sektore berean eta antzeko produktuekin diharduten enpresa txikien bat-egitea sustatu.
9. Famili enpresen jarraikortasuna eta garapena mesedetzea, belaunaldi-txandaketako programak hedatuz.
10. Hirietako merkataritza sendotzea, gure hiri eta herrietako eremu publikoa egituratzen duen ehun ekonomikoa osatzen baitu, eta auzoko denden kudeaketa hobetzea. Gizarte kohesioaren, hiri-konfigurazioaren eta gure herri eta hirietako bizi-estiloaren oinarritzko elementuak izateaz gain (“merkataritza non, bizia han”), komertzio txikiak ekonomia eta turismoa garatzeko faktore garrantzitsua dira.
11. Enpresa berriak sortzeko urrats administratiboak erraztea.

A.6) SOZIALKI ARDURATSUAK DIREN ENPRESAK

⇒ Diagnostikoa:

Enpresa Sozialki Arduratsua zer da? Gizarte, ekonomia eta ingurumen errealitatearen inguruko arau eta printzipio batzuk betetzen dituen enpresa da. Produktiboagoa izaten laguntzen dioten balio etikoetan oinarritzen da era berean. Halere, enpresen gizarte erantzukizuna ez da zertan egon behar etekinak lortzeko helburuaren aurka. Izan ere, erantzukizun horrek enpresetan balioa sortzen eta lehiakortasuna bultzatzen lagundu ahal du, eta enpresa bereizteko ezaugarri garrantzitsua izan ahal da.

Uste dugu Euzkadiren garapenak harreman estua duela gure enpresek ekonomiaren, gizartearen, ingurumenaren eta kulturaren erronkei aurre egiteko daukaten moduarekin. Etorkizuneko garapenak ez du merezi baldin eta ez bagara kapaz gure ingurumen eta kultur balioak zaintzeko. Herrialde modernoak eraiki behar dugu, ongizate maila handiarekin, baina aldi berean ondare natural aberats eta anitza izan behar dugu eta gizarte egitura orekatua eskaini.

Enpresen gizarte erantzukizunak denbora bat darama politikaren, enpresen, sindikatuen eta gizartearen eztabaidetan. Zenbait erakundek enpresen gizarte erantzukizuna bultzatzeko eta erakundeen estrategietan sartzeko ahaleginak egin dituzte. Eztabaida, jardunaldi eta gogoeta-topaketa asko egin dira enpresen gizarte erantzukizunari buruz eta horrek erakunde eta enpresentzat dituen abantaila

estrategikoei buruz. Aitzitik, gure enpresek eta enpresen zuzendariak oraindik ez dute mezu hau behar bezala barneratu.

⇒ **EAJ-PNVren erantzuna**

1. Enpresen gizarte erantzukizuna sustatzeko, giro egokia sortu behar da, enpresek eta gizarteak gizartearekin arduratsuak diren praktikak bereganatu ditzaten. Gure erakundeek jardunaren bidez, erakutsi behar dugu irisgarritasun irizpideak ezartzeak gure lehiakortasuna areagotzen ere lagundu ahal digula. Hezkuntza eta prestakuntza enpresen gizarte erantzukizunari begira egon behar dira, bai enpresetan, bai hezkuntza sisteman.
2. Enpresei, batez ere ETEei, zerbitzuak eta laguntzak eskaini behar dizkiegu, sozialki arduratsuak diren jardunbideak dauzkaten enpresa gehiago egon daitezen.
3. Erakunde publikoak eredugarri izan behar dira honetan. Administrazioak (bere maila guztietan) egin beharreko bidearen “adibide eta eredu ikusgarria” izan behar du. Administrazio publikoan enpresen gizarte erantzukizuna aplikatzearen alde egiten dugun apustuak antolaketa-eredu dinamikoagoa, gardenagoa eta parte hartzaileagoa geureganatzea ekarriko du, lau dimentsiotan: ingurumena, ekonomia, gizarte eta etika.
4. Gizartearen eta bere eragile guztien kontzientziazio osoa. Enpresen gizarte erantzukizunaren ezarpenean aurrera egiteko, ezinbestekoa da gizarteak, bere osotasunean, ondo ulertzea zein den garapen iraunkorrako baten aldeko jarrera aldaketaren garrantzia, eta politika hauek etorkizuneko ongizatea babesteko eta bermatzeko hartzen duten konpromisoa.
5. Enpresen gizarte erantzukizunaren ikuspegi globalago bat sustatzen aurrera egitea. Ikuspegi horren oinarria eragile guztien (sektore publikoa, GKEak, sektore akademikoa eta gizarte zibila) roletan oinarritu behar da, enpresen gizarte erantzukizuna ez baita bakarrik sektore pribatuaren erantzukizuna. Bestalde, sektore publikoaren eta pribatuaren artean itunak egiten aurrera egin behar dugu, enpresen gizarte erantzukizunaren diseinuan, ezarpenean, garapenean, jarraipenean eta ebaluazioan zeresana duten eragileen artean sinergiak sortzen dituztenak.
6. Enpresen gizarte erantzukizunaren programen azterlanen eta inpaktu-adierazleen garapena eta hedapena sustatzea, batez ere komunitateetan eta enpresetan. Beharrezkoa da nola gauden eta gure aurrerapenaren eboluzio-maila zein den argi eta garbi ikustea, sortzen diren balizko desbideraketak zuzendu ahal izateko.

A.7) ENERGIAREN ERRONKAK

⇒ Diagnostikoa:

Energiaren politika giltzarria da elkar sendotzen duten bi helburu handi lortzeko: batetik, funtsezko energi helburuak lortzea, hau da, horniduraren segurtasuna, ingurumeneko iraunkortasuna eta ekonomiaren lehiakortasuna; bestetik, Euzkadiren garapen ekonomiko eta industrialean laguntzea, energia berriztagarrien, energiaren eraginkortasunaren eta ingurumenaren alde eginez, etorkizuneko industriak diren aldetik.

Sektore elektrikoari dagokionez, sorrera iraunkor eta lehiakorrek mix bat sustatu behar da, ekonomiaren lehiakortasuna eta horniduraren segurtasuna sustatzen dituen eta karbono-aztarna modu mailakatuan murrizten duena. Gas naturalaren sektorean, horniduraren segurtasuna eta ereduaren eraginkortasuna bermatu behar dira. Horretarako, aprobetxamendua dibertsifikatu behar da. Azpiegituren garapena eskaeraren araberakoa izan behar da, gas hornidura lehiakorra izaten laguntzen diguna. Eta hidrokarburu likidoen sektorean, gure herriaren independentzia energetikoa bilatu behar dugu. Petrolioaren eratorriei lotutako energi kostuen lehiakortasuna bermatu behar dugu, ingurumenaren gaineko eragina murriztu behar dugu eta garraio sektorearen energi eraginkortasuna hobetu behar dugu. Hori guztia energia aurrezteko apustu baten barruan.

Energia berriztagarriei dagokienez, oraindik ez dugu egin espero genuen jauzia. Estatuan eta Europa erdian energia berriztagarri garrantzitsuenak kontrolatzen dituzten enpresen egoitza eta bihotza da Euzkadi. Baina enpresa hauek EAEn kontsumitzen den energia osoaren %5 baino ez dute ematen, hau da, EB27ko tasaren erdia (%10,3).

⇒ EAJ-PNVren erantzuna

1. Energia berriztagarrien alde egin behar dugu, Europako Batasunaren 20/20/20 estrategiak ezarritako esparruaren barruan. Sistema elektrikoan modu eraginkorrean integratzen direla bermatu behar dugu. Horretarako beharrezkoa izango da epe luzerako ikerketa egitea energia berriztagarrien teknologia hobetzeko, noizbait energia berriztagarriak nagusi izan daitezen prezio lehiakorretan. Funtsezkoa da, era berean, energi sorrera berriztagarriaren kostuak murrizten laguntzen duen ordainsari-esparru batean aurrera egitea, sariak eta tarifak finkatzeko enkante-mekanismoen erabilera kontuan izanik. Garraioaren azpiegituran egiten den inbertsioa energia berriztagarrien hazkundetik eratorritako beharrezanekin bat datorrela bermatu behar dugu.
2. Ekoizpen konbentzionaleko mix orekatu eta gero eta iraunkorrago baten bilakaera bermatu behar da. Horretarako, ziurtatu behar dugu potentzia-bermea

ordaintzeko mekanismoak lagungarriak direla horniduraren segurtasunerako eta energia berriztagarrien integrazioarako. Zentral nuklearren bizitza baliagarria luzatzeko aukera ebaluatzea, betiere zentralok segurtasun irizpiderik zorrotzenak gainditzen badituzte erakunde independenteek egindako azterketetan, eta zentralaren inguru hurbileneko erakundeek ere azterketa horretan parte hartzen badute. Ustiapenerako kontzesioa eman zenean hitzartu eta itundu zen itxieradaren salbuespen horrek onura ekarri behar dio prozesu eta tratamendu nuklearren arriskuak jasan behar dituen gizarteari. Onura hori, zehatz-mehatz, honela gauzatu da ustiapen epe berrian: inguruko autonomia erkidegoetako unibertsitate edo ikerketa zentroentzako ekarpen ekonomikoen plana egingo da, energia alternatiboak ikertuko dituen nazioarteko zentro baten sorrera finantzatzeko, eta horrela behin betiko sustatuko dira erregai fosil eta nuklearrekiko mendekotasuna ezabatuko duten energien ikerketa, azterketa eta garapena.

3. Kogenerazioaren garapena sustatzea. Kogenerazioa eraginkortasun handiko teknologia da, industriaren lehiakortasunerako funtsezkoa. Eraginkortasun energetiko handieneko kogenerazioak mesedetu behar dira, eta potentzia handiko kogenerazioak sustatu (50 MW baino gehiagokoak), eraginkortasun handiagoa dutelako eta industriarentzat garrantzitsuagoak direlako.
4. Frantziarekiko interkonexiorako gaitasuna gehitzea, Bartzelonako Europar Kontseiluan ezarritako helburuak betetze aldera (interkonexioaren gaitasuna instalatutako potentziaren %10aren baliokide izan dadila).
5. Tarifaren defizita kentzeko erreformei ekitea. Sistemaren benetako kostuak tarifa eta bidesarrietan islatzen direla bermatu behar dugu. Gainera, ziurtatu behar da erregulatutako kostuak eredu ekonomikoki eraginkor bati dagozkiola eta kontsumitzaileari babes egokia eskaintzen zaiola.
6. Eraginkortasun energetikorako programak sustatzea industriako ekoizpen prozesuetan, bai eta etxebizitzan eraikuntzan eta hirugarren sektorean ere, energia gutxiago kontsumitu dadin baina erosotasuna, kalitatea eta abar mantenduz edo are hobetuz.
7. Energiaren sorreran, garraioan, banaketa elektrikoan eta eraginkortasunean teknologiaren eta industriaren garapena babestea. Garapen horrek teknologia propioaren garapenean lagundu behar du eta Euzkadin nazioarteko mailan punta-puntako industria lehiakorra garatzeko oinarri izan behar da. Garrantzitsua da lidergo-posizioak lortzea etorkizunerako potentziala duten eremuetan, adibidez, "smart-grid" sare inteligenteetan eta sorrera barreiatuan.
8. Euzkadiko gas interkonexioa garatzea frantziar merkatuarekin, horniduraren segurtasuna gehitzeko helburuen ildoan.

9. Gas naturalaren "hub" bat garatzea, Euzkadin dauden garraio azpiegituretan oinarria duena, merkatuaren gardentasuna eta horniduraren segurtasuna hobetzeko helburuarekin.
10. Gas naturalaren biltegiarako garapena babestea, gas-sistemaren horniketari fidagarritasuna eta segurtasuna ematen dizkietenak.
11. Ereduak eraginkortasunera eta lehiakortasunera eboluziona dezala bultzatzea, garraioen azpiegituran egiten den inbertsioa eskaeraz aurreikusten den hazkundeari lotuta dagoela bermatuz.
12. Garraio sektorean energiaren eraginkortasuna hobetzen duten politikak sustatzea. Merkatugaiak trenbidez garraiatzea sustatzea eta garraioa elektrifikatzea funtsezkoak dira. Gainera, udalek, aldundiek eta gobernuak batera jardun behar dute, garraio publikoa mesedetzen duten azpiegiturak sor ditzaten; era berean, hirigintzako diseinuak mugikortasunean energi eraginkortasuna bultzatu behar du.
13. Kutsadura-emisio txikiak dituzten ibilgailuen erabilera sustatu behar da, adibidez diesel motorizazioak Euro V eta VI zehaztapenekin, autogasa, eta ibilgailu hibrido eta elektrikoak. Haien garapenerako behar diren errekarga azpiegiturak hedatu behar dira, ibilgailu motordunak erosteko eta berritzeko laguntza politiken bitartez.

Gutxi kutsatzen duten edo batere kutsatzen ez duten ibilgailuak erabil daitezten sustatzea, hala nola bizikleta, motorizazioa...
14. Euzkadiko industria ehunduraren garapenak garraioaren eraginkortasuna hobetzeko eta garraioa elektrifikatzeko teknologia berriak kontuan izan behar ditu. Hor, Euzkadik funtsezko papera jokatu dezake etorkizunean.
15. Erregaien esparru fiskala gardena izan behar da, eta produktuen artean eta energi sektore ezberdinen artean gurutzatutako diru-laguntzak egotea galarazi behar da (adibidez elektrizitatearen eta petrolio-produktuen artean).
16. Petrolioaren gas likidotuen merkatua liberalizatu behar da. Merkatu lehiakorra garatzen dela bermatu behar da, Europar Batasuneko gainerako herrialdeekin bat etorritik. Kontsumitzailearen babesa sustatu behar da garapenaren lehenengo faseetan.
17. Europar Batasunean beharrezkoak diren mekanismoak sustatu behar dira, bermatzeko emisioen salerosketak ez duela lehiakortasuna modu artifizialean kaltetzen Euzkadin garrantzi handia duten industrien erabileran (finketa edo petrokimika), berotegi efektuko gasen emisioen gaian antzeko erregulaziorik ez duten herrialdeekin lehiatu behar dutenak.

18. Ingurumeneko legeintzako agenda, adibidez CO2 emisioetan eta gas industrialen araudietan, definitzen duten europar foroetan aktiboki parte hartzea.
19. Energia eta finantza produktuen espekulazioa kontrolatzeko nazioarteko legeria sustatzea Europar Batasunean, herrialdeetako ekonomia desegonkortzen duten espekulazio mugimenduak eragozteko.

B) HEZKUNTZA ETA ETENGABEKO PRESTAKUNTZA

EAJ-PNVrentzat, hezkuntza eta prestakuntza gure herriaren etorkizunerako funtsezko tresna dira. Kontua ez da hezkuntzan eta prestakuntzan dirua gastatzea baizik eta hezkuntzan eta prestakuntzan inbertitzea. Hezkuntza eta prestakuntza lehiakortasuna eta garapen profesionala hobetzeko, baina baita ere gizakien garapen pertsonalerako, kohesio sozialerako eta bizikidetzarako.

Eremu honetan, benetako eleaniztasuna lortu beharraz gain, ikaskuntza iraunkorraren kontzeptuak funtsezko papera dauka. Dagoeneko ez da nahikoa hezkuntza maila handiagoa lortzea, jende gehiago lanbide heziketan edo unibertsitatean sartuz. Geure burua egokitzeke gai izan behar dugu, gure jakintza, gaitasunak, ahalmenak eta trebeziak hobetuz eta egoera ezberdinen arabera eguneratuz, bizitza osoan zehar.

Europar lankidetzarako esparru estrategikoa, hezkuntzaren eta prestakuntzaren eremuan ezarria ("ET 2020", DO C L19, 2009-05-28koa), erakusten du hezkuntzak eta prestakuntzak funtsezko papera izan behar dutela Europak eta bere herritarrek orain eta hurrengo urteetan izango dituzten sozioekonomi, demografi, ingurumen eta teknologi erronka ugarietarako unean. Hori guztia lortzeko, ezinbestekoa da zerbitzu publikoen eta hezkuntza eta prestakuntza hornitzaileen arteko lankidetzaren eta elkarketa, baita enplegatzaileena eta familiarena ere.

XXI. mendeari modu arrakastatsuan aurre egingo badiu, Euzkadik bere hezkuntza sistemaren garapena osatu behar du. Sistema horrek gure ezaugarriak eta gure beharrezkoak bereizleak erantzun behar ditu. Sistema honek barne eta kanpo ebaluazioak irekita egon behar du, parte hartzea sustatu behar du eta etengabe berriztatu behar du, hezkuntza komunitatean lortutako esperientziatik aurrera.

Hezkuntzaren munduarekin duen konpromisoaz gain, EAJ-PNVk itun politiko eta instituzional handiak egiteko proposamena errepikatzen du, datoen belaunaldien

hezkuntza eta prestakuntzarik onenak lehentasuna duela bermatzeko. Akordio zabal eta egonkorra mesedetu nahi dugu, sareen gaur egungo planteamendua gainditzen duena, eta gizarteari egungo eta etorkizuneko beharrezanean egokitutako erantzuna eskaintzen diona.

Beharrezkoa izango da, gainera, Euskal Hezkuntza Sistema eraikitzearen prozesuan elementu propioak dituen Hezkuntzaren Legea garatzeko urratsak eman daitezela. Lege horrek gaur egungo ereduak (publikoa, pribatua eta soziala) integratu behar ditu, euskal gizartearen garapenari egiten dion ekarpena aintzatetsiz.

B.1) FAMILIA ETA GIZARTE-BIZITZA UZTARTZEA, DENBORA IZATEAK HEZKUNTZARAKO DUEN BALIOA

⇒ Diagnostikoa:

Familia funtsezko oinarria deneko gizarte eredu baten alde egin behar du Euzkadik, sarean jardunda beste euskarri batzuk erabiliz. Pertsonentzako laguntza informal sorta handia eskaintzen zuen gizarte eta famili sareak (eta horietan, gehienbat emakumeak) zituen gizartearentzat zegoen planteatuta gure ongizate sistema, eta sistema formala funtsean zenbait egoeraz arduratzen zen; batzuk aurreikusteko eta tasatzeko modukoak bizitzaren zikloan (hezkuntza, erretiroa), eta ustez salbuespenezkoak diren beste batzuk (gaixotasunak, langabezia).

Bizi garen gizarteak, ordea, dagoeneko ez die kasuoi erantzuten, eta horrek gure gizarte politika eta hezkuntza eredua birplanteatzen digu. Hauxe da erantzun beharreko galderetako bat: ea sistemak bere gain har dezakeen familiek aurreko belaunaldietan zuten heziketa-funtzioa. Emakumeak lan merkatuan sartu ahala ezinbestekoa da eginkizunak banatzea, baina familiak ez dira egoera horretara egokitu. Familiek gero eta seme-alaba gutxiago dituzte, eta gero eta beranduago dituzte. Beraz, familia, gizarte eta lana bateratzen laguntzeko gizarte eta hezkuntza baliabide gehiago eskatzen dituzte. Familiak sortu eta transmititu ditu, tradizioz, erreferentzia etikoak eta moralak. Seme-alabekin egoteko denborarik ez dagoela-eta, hezkuntza sistema formala ari da bere gain hartzen familiaren funtzioa balioen transmisioan eta presentziatzko zaintzan.

Ondorioz, lana eta familia bateratzeko arazoei jaiotze-tasa txikiak, familia ahulak eta egoera txarrekoak eta eskola-porrota eragiten dituzte. Euzkadin bide luzea dago egiteko, lana, familia eta norberaren bizitza bateratzeko prozesua errealitate bihurtzeko, azken urteotan urratsak egin badira ere. Langileek enpresetan duten presentziaren inguruan hartzen dira egungo bateratze-neurriak, eta ez norbera esparrurik intimoenean eta eragin handiena duen horretan, hau da, familiaren baitan, trebatzearen arabera. Beharbada horrexegatik daude hain gutxi garatuta

presentziazkoak ez diren lanetarako aukerak hala nola bideo-bilerak, urrutiko lanak, lanaldi murriztuak, etab. (urrutiko lanean ari dira - lanaldi osoan edo zatikakoan-langileen %30 AEBn, %13 Europan eta %5 Espainiako Estatuan).

⇒ **EAJ-PNVren erantzuna**

1. Atxiki edo abiarazi beharreko balio komunei buruzko adostasuna lortzea. Familiak balio pertsonalak transmititzea sustatzea eta bultzatzea.
2. Sistemak hezkuntzan duen baterako erantzukizuna bere gain hartzea, eta kontuan izango dira haurrentzako arreta zerbitzuak guztiontzat izatea berrikusi beharra eta ordutegiak, betiere gurasoen beharretan pentsaturik, baina seme-alabenak eta epe luzerako erabaki horiek eragindako kostu edota onura ekonomikoaren eta sozialaren ondorioak ere bai.
3. Denbora arrazionalizatzea, gurasoen eta adingabeen arteko presentziazko denbora gehitzea errazteko bateratze-neurri gisa. Horretarako, "pertsonaren laguna eta familiaren laguna" den ordutegia bereganatu behar da. III. milurtekoaren iraultza izan liteke: lan gehiago egitea ez, hobeto lan egin eta produktibitatea hobetzea baizik.
4. Ordutegiak eta zerbitzuak egokitzea, emakumea erabat sar dadin arlo publikoan –emakumearen ikuspegitik, ez gizonetzakoaren ikuspegitik– eta gizonak konpentsa dezan arlo pribatuan edo etxean emakumearen absentsia.
5. Onurak lehiaketa publikoetan eta zerga-hobariak, bateratze-politikak dituztela frogatzen dituzten enpresentzat.
6. Denboraren erabilera sozialei buruzko politika publikoetan oinarrituriko esperientziak sustatzea, gizonen eta emakumeen parekotasuna lortze aldera, gizarte bizitzarako eta lanbiderako har dezaketen denborari dagokionez.
7. Familiarako, lanerako eta norberarentzako denbora tarteak harmonizatzeko politiketan oinarritutako esperientziak sortzea, gizonen eta emakumeen parekotasuna lortze aldera, gizarte bizitzarako eta lanbiderako har dezaketen denborari dagokionez.
8. Zaintza partekatua. Azkenik, familiaren arloan, zaintza partekatuaren alde gaude banantze eta dibortzioetako lehentasunezko eredutzat, betiere adingabearen interesa bermatzen bada. EAJ-PNVn uste dugu zaintza partekatuak oinarritzko hiru eskubide biltzen dituela: adingabeek aitarekin eta amarekin egoteko eta biokin harreman orekatuak eta iraunkorrak izateko eskubidea; gurasoek seme-alabekin egoteko eta haiek hazi eta hezteko duten eskubidea edota betebeharra; eta

pertsona guztiek berdintasunerako duten eskubidea, zeren eta, zaintza partekatuari esker, aitak eta amak parte har baitezakete berdintasunean eremu publikoan (gizartean eta lanean) eta pribatuan (etxean). Zaintza partekatuak dakarren baterako erantzukizunaren eta berdintasunaren balioak udal organo guztiei transmititzea hitzartzen du EAJ-PNVk, eta bereziki Familia, Berdintasun eta Gizarte Zerbitzuen sailei.

B.2) HEZKUNTZA SISTEMA ETA HIZKUNTZAK

⇒ Diagnostikoa:

Hezkuntza sistema baten helburua da umeak eta gazteak heztea, pertsona heldu, ondo trebatu eta autonomo gisa gizarteratu daitezen. Euzkadiko hezkuntza sistemak, gainera, eskaini behar dituen gaitasun horiekin guztiekin batera, oinarritzko helburu bat bete behar du hizkuntza gaitasunei dagokienez: ikasleek hizkuntza gaitasun egokia lortu behar dute euskaraz; gizarte benetan elebiduna sortzeko prozesuan, beraz, bultzada sendoa eman behar diogu hizkuntza ahulenari, eta horrela egiazko elebitasunera hurbilduko gara.

Euskarari dagokionez, eskola funtsezkoa izan da azken 30 urteetan EAEn bizi izan dugun euskalduntze prozesuan. A ereduak pisua galdu du, D ereduaren mesedetan. 1983-1984 ikasturtean, ikasleen %64ak aukeratu zuen A eredu; 2009-2010 ikasturtean, berriz, %13 baino gutxiagok aukeratu dute (%4,4ak haur hezkuntzan eta %8,3an lehen hezkuntzan). Belaunaldi berriek euskaraz jakin dezaten EAEn dauden bideak funtsean bideratuta daudela esan daiteke, ezertan ukatu gabe ezinbestez egin behar diren hobekuntzak. Aitzitik, Nafarroan eta Iparraldean egoera erabat ezberdina da. Administrazioak euskarari ematen dion babesa txikiegia da, murriztailea ez denean, eta gure hizkuntzaren iraupena arriskuan jartzen du; dena dela, erronka nagusia da euskara gehiago erabiltzea gizartean, euskaraz dakitenen indizeen atzetik euskara erabiltzen dutenen indize gero eta handiagoak etor daitezen.

Euskal gizarteak argi eta garbi aukeratu du euskarazko irakaskuntza, eta irakasleek ahalegin nabarmena egin dute hizkuntza gaitasuna eskuratzeko eta eskolako beharritan erantzuteko.

Euzkadi munduan integratzearen aldeko apustua irabazteko, eta nazioartekotzean (gure enpresen lehiakortasuna hobetzeko bitartekoa den aldetik) aurrera egiteko, hizkuntzen benetako jakintzan sakontzea beharrezkoa da. Gure gazteak erabat globalizatuta dagoen ingurune batean arituko dira. Haien hezkuntza eta lan eremua Europar Batasuna eta mundua izango dira, gero eta gehiago. Horregatik, hezkuntza eredu eraginkor baterantz jo behar dugu, euskal gizarteari ingurune berrian arrakastaz garatzeko behar dituen tresnak eskaintzen dizkionak.

Gure ahaleginak hizkuntz gaitasunak hobetzera bideratu behar ditugu. Gaur egun, EAEko biztanleen %32ak bakarrik daki ingelesez hitz egiten eta idazten, %11k frantsesez, %2ak alemanez eta %3ak beste hizkuntza batean.

Euzko Alderdi Jeltzaleak oso balorazio positiboa egiten dio, oro har, eskolak azken hogeita hamar urteetan gizartea euskalduntzeko egin duen prozesuari. Bistan da zenbat eman dion eskolak euskalduntze prozesuari, bizi izan dugun eraldatze soziolinguistiko horretan. Baina eskolak ezin du berak bakarrik gizartea erabat euskaldundu. Funtsezko baliabidea da gizartea euskalduntzeko, baina ez da nahikoa.

Eusko Jaurlaritzak hiru hizkuntzako hezkuntzarekin hasi duen pilotu-esperientzian, 2013an amaituko dena, abiapuntua askozaz ere hobeia izan zitekeen. Euskal hezkuntza sareko hamar irakasletatik lauk bakarrik daukate B2 eta C1 mailetako ziurtagiriak, eskolak eman ahal izateko legeak ezartzen dituenak. Horregatik, ezinbestekoa da irakasleen prestakuntza bultzatzea hizkuntz gaitasunetan, hezkuntza prozesuaren eraginkortasuna bermatu ahal izateko. Sare publikoko irakasleen bolumen handiena 45 eta 60 urteen artekoa da. Belaunaldi hark frantseserako joera handiagoa izan zuen ikasle garaian. Datozen urteetan, plantillan berrikuntza garrantzitsua gertatuko da, erretiro asko izango baitira. Gaur egun belaunaldi berriengan hizkuntzak sendotzeko egiten ditugun ahaleginek eredu eleaniztunera trantsizio naturalagoa gertatzea ekarriko dute.

⇒ **EAJ-PNVren erantzuna**

1. Etengabe eraldatzen ari diren herri eta mundu honetan bizitzeko eta garatzeko behar diren euskarriak eskaintzea, hezkuntza euskaldun, eleaniztun, berritzaile eta eraldatzailearen bidez. Hezkuntza eredu honek gizarteari irekita egon behar du eta parte hartzea bilatu behar du. Kohesioa eta gizarte egituraketa lagundu behar ditu, denontzako aukera berdintasuna ziurtatu behar du, eta emaitzetan eta etekinean bikaintasuna bilatu.
2. Irakaskuntza modernoa, munduari irekia eta, beraz, eleaniztuna bultzatu behar da. Hezkuntzak gure nortasuna eta unibertsaltasuna batu behar ditu, herrialde eleanitz baten irudia oinarri batez ere elebidun batetik islatu behar du. Uste dugu gizarteak eboluzionatzen duela eta zenbait faktoreren arabera egokitzen dela, hala nola espazio soziolinguistikoa, errealtate sozioekonomikoa, hiritartasun berria eta nazioartekotzea. Uste dugu globalizazioak dakartzan erronka berriei aurre egiteko hezkuntza eredua ezinbesteko tresna dela.
3. Euzko Alderdi Jeltzalea euskal hezkuntza sistema eleaniztunaren alde dago eta sistema horrek euskara izango du ardatz. Europar Batasunak elebitasunari buruz emandako 1+29 (gure kasuan 2+2) gomendioei jarraituz, sistema eleaniztuna aldarrikatzen dugu gure hezkuntza sarerako. Hala eta guztiz ere, ez gaude ados

edozein hezkuntza sistema “ustez” eleaniztunekin. EAJ-PNVk funtsezkotzat jotzen du azken hiru hamarkadetan metatutako esperientzia guztiak kontuan hartuz jardutea. Ezin dira maila berean hartu hizkuntza guztiak (euskara, gaztelania, ingelesa...), ezta baldintza berekin ere.

4. Aurrera egin behar da eleaniztasunerantz, behin elebitasun eraginkorra eta benetakoa lortutakoan. Ezin dugu ahaztu Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen egoera soziolinguistikoa ez dela berbera; horregatik, euskarari lehentasunezko tratua ematen jarraitu behar dugu. Eta are gehiago Nafarroaren eta Iparraldearen kasuan. Gure sistema modernizatu behar dugu, goitik behera berrikusiz. Eredu berria benetan garatuko badugu, planteatutako proiektuen heldutasunerantz joan behar gara, helburu zehatzen inguruko adostasunaren bidez eta emaitzak benetan ebaluatuz. Erronka berriak gogoetatik eta zerikusia duten eragileen parte hartzetik aztertu behar ditugu.
5. Funtsezkotzat jotzen dugu etorkizuneko eskola eleaniztunean hizkuntza bakoitza erakusteko eta lantzeko behar adina ordu hartzea, hizkuntza-helburu zehatzak ezartzea egoera soziolinguistiko bakoitzerako, eta gurasoen nahia eta ikastetxeen autonomia oinarri izatea. Benetako aukera berdintasuna nahi badugu, ikasleek, ikasketak amaitzerakoan, hizkuntza guztietan behar adinako hizkuntza gaitasuna izan behar dute lanean eta gizartean ondo moldatu ahal izateko.
6. Eskolaren hizkuntza-helburuak direla eta, EAJ-PNVk uste du hezkuntza sisteman ezartzen diren hizkuntza-helburuak pertsona guztiek lortu ahal izateko modukoak eta pertsona guztiei aplikatzeko modukoak izan behar direla. Izan ere, ikasleei aukera berdintasuna aplikatu behar zaie. Gainera, sistema osorako ezarritako gutxieneko hizkuntza-helburuetatik harantzago joateko aukera eman behar da; beraz, hizkuntza-helburu aurreratuagoak ezarri ahal izatea beharrezkoa da. Derrigorrezko hezkuntzan, abian jarriko da hirugarren hizkuntza ikasteko plan bat. Hirugarren hizkuntzarako ezarrita beharreko helburuari dagokionez, hezkuntzaren etapa bakoitzerako ezar daiteke bi hizkuntza ofizialetarako ezarritako mailaren aurrekoa. Halaber, EAJ-PNVk euskarazko hizkuntza gaitasuna onartzeko sistema baliozkotu bat sustatuko du.
7. Irakasleen hizkuntza gaitasuna hobetzeko plana aurrera eraman eta indartu egin behar da. Baliabideak, metodologia, materiala eta tresnarik eraginkorrenen ezarpena direla eta, EAJ-PNVk uste du plan zehatz bat egin behar dela, komunikaziorako gaitasun osoa lortzeko prozesuari zuzendua, ikaskuntza prozesua eta hizkuntzaren erabilera batuz. Eta gizartean erabilera areagotze aldera, eskolak gurasoen atxikimendua eta konpromisoa sustatu behar ditu, horiek ere hezkuntza komunitateko kideak dira eta.
8. Atzerriko hizkuntzen irakaskuntzan eraginkortasuna hobetu behar da. Gure gazte guztiei kalitatezko hizkuntz prestakuntza eskaintzea izan behar dugu lehentasun.

Gazte guztiak kontuan izanik, ez bakarrik hezkuntza sistematik kanpo prestakuntza hori ordaindu ahal dutenak. Gure gazte guztiek aukera izan beharko lukete Europa osoan zehar hizkuntz arazorik gabe mugitzeko eta lan egiteko.

9. Laugarren hizkuntza baten ikaskuntzan aurrera egitea... lehentasuna emanez frantsesari Hegoaldean eta gaztelaniari Iparraldean, baina eskaintza ahalik eta zabalena sustatuz, hizkuntza ibilbide pertsonalizatuak egin ahal izateko.
10. Ingelesa bultzatzea, euskal I+G+B hazi dadin eta bere emaitzak ekoizpen sisteman sartu daitezen. Eremu honetan, hizkuntzak ez dira faktore bat gehiago bakarrik: ezinbesteko baldintza dira eta izango dira, aukera berriak eskuratzeko derrigorrezkoak.
11. Hezkuntzako hizkuntzen gaineko eztabaida alderdien arteko borrokatik ateratzeko akordioa. Euskara da gure kulturaren eta gure bizitzaren funtsezko ezaugarria.

B.3) LAN-MUNDURANZKO IBILBIDEA ETA ETENGABEKO IKASKUNTZA

⇒ *Diagnostikoa:*

Euzkadik suspertzeko bideari ekin diezaion, eta epe ertainean eta luzean bide horri heldu diezaion, ezinbestekoa da giza kapitala eta enplegarritasuna bultzatzea, bere ahalmenak eta jakintza bultzatuz. Gure gizartea aldatzen ari da, eta sistema estatikoek ezin dute funtzionatu hain ingurune aldakorrean. Lan mundurantzko ibilbidean, arreta gune berria izan behar da lan egiteko adina duten pertsonen enplegarritasunaren bermea, ez lanpostu bat lortzeko bermea bakarrik.

Ikaskuntza etengabeak berrikuntzan laguntzen du, bizitzako inguruabarrei egokitzen laguntzen duelako, bai bizitza pertsonalean bai lan-bizitzan. Oso kontuan izan behar da inor ezin dela bidean geratu edo baztertu gertatzen ari diren aldaketak ezin izan dituelako barneratu. Gainera, pertsona ikaskuntza sistemaren erdian jartzen du. Pertsona protagonista bihurtzen du eta bere bizitzako eta laneko beharrezanekin bat egiten duen prestakuntza-ibilbidea aukeratzen laguntzen dio.

Testuinguru honetan, lanbide heziketak, besteak beste, funtsezko papera jokatu du eta jokatzeko jarraituko du. EUSTATen datuek erakusten dutenez, matrikulazioak urte urte gehitzen dira eta laneratzearen emaitzak onak dira. Lanbide heziketako euskal tituludunen artean, 10etik 7k lana aurkitzen dute ikasketak amaitu eta bederatzi hilabete baino lehenago.

Euzkadiko lanbide heziketak azken urteotan garatu duen indargune nagusietako bat lanbide heziketako ikastetxeen lana izan da: sarean egindako lana, eraginkorra eta

oparoa. Oraintxe dugu garaia sareko lan hori indartzeko, ikastetxeen autonomia areagotuz, sormena sustatuz proiektu berrietan, jarduera berritzaile gehiago garatuz, ikastetxeek enprekin, batez ere ETEekin, harreman estuak izateko laguntza emanaz, eta gure biztanleria aktiboa bermeekin orientatuz eta eraginkortasunez kualifikatuz.

Euzkadik, ordea, lanean ari diren pertsonen prestakuntza jardueretan parte hartzeari dagokionez defizit handia dauka. Suedian lanean ari diren 10 pertsonetatik ia 9k urtean behin prestakuntza jardueretan parte hartzen dute, eta Estonian eta Norvegian 10etik 6k, baina Euzkadin 10etik 3k baino gehixeagok.

⇒ **EAJ-PNVren erantzuna**

1. Etengabeko prestakuntzaren kultura berria sustatu behar da Euzkadin. Horrek esan nahi du pertsonak, enpresak eta erakundeak konbentzitu behar ditugula bizitza osoan zehar ikastea beharrezkoa eta abantailatsua dela. Kontzeptu berri honek hezkuntzaren, prestakuntzaren, jakintzaren, humanismoaren, kulturaren eta ikerkuntzaren adierazpen guztietan dituen inplikazio eta potentzialtasun sakonak ezagutzera eman behar ditugu.
2. Pertsonen beren jakintza eta ahalmenak sakontzeko eta egokitzeko aukera izan dezaten espazio egokiak sortu behar ditugu, eta adiskidantza eta laguntza eman behar dizkiegu. Jakintza askotan baliabide urria da. Pentsatzearekin, nahi izatearekin eta egitearekin konbinatuta, faktore erabakigarria da; horrela, hezkuntzaren eta lanaren arteko ezberdintasunak desagertzen dira. Enpresek, lehiakortasuna sustatze aldera, prestakuntza, ekoizpena, hobekuntza eta berrikuntza integratu behar dituzte. Horretarako, pertsonen agertoki berri honek eskatuko duen ikaskuntza eskuratzeko aukerak eduki beharko dituzte.
3. Egonkortasunik gabeko egoerak bizitzeko eta lan-mundutik baztertuak izateko arriskurik handiena duten langileen kolektiboak, bereziki, prestakuntza-ekimenetan parte hartzea mesedetzea: emakumeak, 45 urtetik gorako pertsonak, aldi baterako langileak, kualifikazio maila txikiak dituzten langileak eta langile autonomoak eta nekazaritzako langileak.
4. Teknologia aurreratua duten enpresen teknologia enpresa txiki eta ertainera transferitzeko prestakuntza ematea, baterako prestakuntza-jarduerak garatzeko lankidetzaren formulen bidez.
5. Euzkadin lanbide heziketa bultzatzea, gure sektore produktiboen lehiakortasunerako funtsezko balioa izan dena eta dena. Ukaezina da hasierako eta etengabeko prestakuntzaren eremuan, etengabeko hobekuntzan, eta bikaintasunean, berrikuntzan eta lankidetzan aurrera egin duela. Bide berrietatik,

batzuk oraindik arakatu gabe daudenak, bultzatzeko unea iritsi da. Erakunde erantzule bakar batek zuzentzen duen lanbide heziketa behar dugu. Erabakien bikoizketak baztertu behar ditu, baliabideak optimizatu behar ditu, Euzkadiko lanbide heziketa osorako politika integral eta koherentea garatu eta abian jarri behar du, eta pertsonen eta gure ekoizpen sektoreen benetako beharrianak asetzen dituzten prestakuntza-ekintzak egin behar ditu.

6. Etengabeko prestakuntzako programen eraginkortasunean aurrera egin behar dugu, horretarako egin behar den ahalegin ekonomikoak pertsonentzat eta enpresentzat benetako etekinak dakartzala ziurtatuz.

B.4) UNIBERTSITATEKO MUNDUA, ZIENTZIA ETA IKERKUNTZA

⇒ Diagnostikoa:

Egungo testuinguruan, laneratzea, kalitatea eta ikerkuntza ardatz dituen ikuskera izan behar du Euzkadik, hori guztia ikuspegi globaletik eta Europako eremura bideratua, non euskal unibertsitateek lehiakorrak izan behar duten.

Hainbat azterlanek erakusten duenez, euskal herritar tituludunek oro har zenbait hutsune dituzte enpresek eskatzen dituzten gaitasunen eta trebezien aldetik. Gehienbat hizkuntzen jakintzan eta jakintza teorikoa osatzen duten trebezieetan; esate baterako, proiektuak eta taldeak kudeatzeko ahalmena, edo tradizioz bi arlo ezberdini egokitu izan zaizkien jakintzak konbinatzea.

Nahiz eta euskal unibertsitateak ikasle-metaketa txikiena dutenen artean egon, bat bera ere ez da ageri munduko 200 unibertsitate onenen mailan (World University Ranking 2010-2011, Times Higher Education).

Bikaintasuna gauzatzeko, unibertsitatea garatzeko egungo eredua berrantolatu beharra dago ezinbestean. Garrantzizkoa da gogoeta egitea, Euzkadik Europako unibertsitateko sistemarik onenen artean egotea lortzeko modurik egokia aurkitze aldera, betiere euskal unibertsitateek dituzten hutsunerik handienei aurre eginez: Ikerkuntza bultzatzeko pertsonal gutxi, irakasleak eta ikerlariak irakaskuntza-lanetan bete-betean aritzea ikasleen kopurua jaitsi ez deneko arloetan, ekoizpenaren sektorerako jakintzaren transferentzia urria, zenbait jakintza-arlotan eta ikastetxetan ikerketarako kulturarik eza, ikerlarien banaketa desorekatua eta belaunaldien arteko erreleburik eza ikerketan. Gainera, bistan denez, euskal gizarteak behar dituen eta etorkizunean beharko dituen unibertsitateko profesionalen kopurutik euskal unibertsitateek ematen dituzten titulazioen eskaintzara alde handia dago.

⇒ **EAJ-PNVren erantzuna**

1. Euskal Unibertsitate Sistema eratzea (EUS), nazioarte mailan lehiakorra izateko helburuarekin. Euzkadin goi-mailako askotariko eta kalitatezko irakaskuntza eskaini ahal izateko nahikoa unibertsitate publiko eta pribatu dago. Hala ere, komenigarria izango litzateke egungo unibertsitate sistema berrantolatzea, barne mailan nahiz unibertsitateen arteko harremanen mailan. Horretarako, ikastetxeen egitura berregin beharra dago, titulazioa emateko aurretiazko baldintza gisa, zertarako-eta baliabide materialak eta giza baliabideak hobeto aprobetxatzeko, betiere titulazioen eskaintzan eraginik izan barik. Euskal Unibertsitate Sistema Europako unibertsitate sistemarik lehiakorrenen mailan egotea da helburua, unibertsitatea dagoen gizarteari zerbitzua eman behar diola ahaztu gabe.
2. Lankidetzat handiagoa enpresekin eta sektore publikoarekin. Euskal Unibertsitate Sistemaren helburu nagusia profesionalak prestatzea izan behar da: euskal gizartearen beharrezanetarako behar adina profesional trebatzea, behar adinako kalitatearekin, eta lan merkatuan zuzenean sartu ahal izateko moduan. Horretarako, unibertsitateko komunitateak etengabeko harremanak izan behar ditu lan, enpresa eta lanbide munduarekin.
3. Europako Goi-mailako Hezkuntza Eremura egokitzea (EGHE). Euskal unibertsitate sistemako unibertsitateek EGHEra egokitzeari ekin diote ondorio desberdinak izan dituzten erreformekin, baina Europarekiko bateratze-prozesurako helburu nagusia bete da titulazioei dagokienez. Lehen Zikloan (Gradua) lanbide-gaitasunetik aparteko erreforma egin da, eta hori eragozpena izan daiteke ikasleen mugikortasunean, zeren beste herrialde batzuetan ikasleen profesionalizazioa lortu baita. Bigarren Zikloaren erreforma (Masterra) berritzaileagoa izan da eta EGHEren lorpenik garrantzitsuena: Orain arte ezagutzen ez diren eta gizartearen nahiz gizakien beharrek oso lotura handia duten arloetako master dibertsifikatuak. Hirugarren Zikloari (Doktoregoa) dagokionez, ikasleek hasieratik sartu beharko lukete ikerketa-taldeetan eta ikasleen zuzeneko tutoretzat handiagoaren onuren gainera gogoeta egin beharko litzateke.
4. Finantzaketa hobetzea. Euskal unibertsitate sistemako unibertsitateek beren helburuak betetzeko finantzaketa egokia izan behar dute, ematen duten zerbitzu publikoaren kalitatea bermatuko duena. Unibertsitateak ez dira soilik ikasleen kopuruaren irizpidearen arabera finantzatu behar. Finantzaketak eraginkortasunarekin eta errentagarritasunarekin ere egon behar du lotuta, eta horretarako, unibertsitateen emaitzak neurtzeko modua egon behar da, irakaskuntzan, ikerkuntzan nahiz gizarteari jakintza transferitzean. Fundraising-a (partikularren eta fundazioen ekarpenak) bultzatu beharko litzateke unibertsitate guztietan, bereziki publikoan.

5. Bekak eskubidetzat eta ikaslearen eta gizartearen arteko konpromisotzat hartzea. Beken edota laguntzen gaineko politikak ikaslearentzako eskubidetzat hartu behar du beka, baita ikaslearen eta gizartearen arteko konpromisotzat ere. Gainera, Master Ofizialeko ikasketak sartzeak ikasketa espezializatuen garestitzea ekarri du. Agertoki berri honetan, beken edota laguntzen politika egokitu beharra dago, non ez baita kontuan hartuko soilik diru-kopuruak ematea beste kontraprestaziorik gabe, baizik eta bestelako laguntza motak bideratu behar dira hala nola %0ko intereseko kredituak ematea, x urteko gabezi aldiarekin eta epe zabalarekin, ikasleak lana aurki dezan jasotako dirua itzultzeko. Gizarte berdintasuna, beken eta tasen arteko oreka, mugikortasunerako sistema propioa eta langabezian dauden tituludunentzako master ofizialeko matrikuletarako beken edota laguntzen sistema bat bermatuko duen beka sistema ezarri beharko da.
6. Ideiak eta baliabideak bultzatzea. Unibertsitateek eta erakundeek ideiak eta baliabideak bildu behar dituzte irakaskuntzaren kalitatearen eta ikerkuntzaren kalitatearen hobekuntzan elkar indartzeko, hots, batak beste indartzeko. Irakaskuntzaren jardueraren eta ikerketaren jardueraren kalitate hobe hori lortzeko, lanbide-karrera eta banako merezimenduetarako ordainsarien zati handi bat lotu beharko litzateke. Zuzeneko edo zeharkako ordainsari hobeek eraginkortasunaren inguruko hazkunde neurgarrieekin egon behar dute lotuta, eta ikasleak izan beharko luke neurketarako elementu bat, berak jasotzen baitu zuzenean zerbitzua. Ebaluazio-eredu orekatua eta berdintasunezkoa, perfektua ez bada ere, hobe da guztiontzako eredua bat baino, ez baita ondo eginaren lanerako lanbide-pizgarria. Aditu lokabeek egin beharko lukete ebaluazio hori. Halaber, ona izango litzateke ikasleek parte-hartze handia izatea prozesuotako erabaki-organo guztietan.
7. Ikasleen eta ikerlarien karga burokratikoak murriztea lortzea, prozesuak erraztuz, gehienbat ikerketarekin zerikusia dutenak. Irakasleen ataza burokratikoak murrizteak berekin dakar unibertsitateek nahikoa administrari trebatu jartzea, eta kargudun akademikoen ordezkudeaketaren profesionalak ezartzea eskatzen du, Europako jardun berriei bat etorritik.
8. Ikerlari gazteen lan eta lanbidearen inguruko igurikapenak edo espektatibak sustatzea, graduatu ondoko eta doktoregoko titulazioek dituzten lanbide-irteeren aniztasuna kontuan izanik. Kontua ez da soilik irakasle eta ikerlari bikainak trebatzea; atxiki ere egin behar dira.
9. Euzkadiko I+G+B sistemaren gaineko eragileekin batera lan egiteko eta lehian aritzeko hobekuntza-prozesuei ekitea. Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako euskal sistemaren barruan daude, eta hobekuntza-prozesuei ekin behar diete lehiakorrek izateko eta gainerako eragileekiko lankidetzak handitzeko. Askotarikoa da Euskal Unibertsitate

Sistemaren barruko unibertsitateen errealitatea I+G+B-ko atazen inguruan, baina guztietan hobetu beharra dago arlo horretatik, bereziki enpresen sektorearekiko harremanetan.

B.5) TEKNOLOGIA ETA PEDAGOGIAREN ERRONKA BERRIAK

⇒ Diagnostikoa:

Gero eta ordenagailu eramangarri gehiago izatea, smartphone, tablet, haririk gabeko gailuak agertzea, Internetera konektatzeko wifi sistema berriak izatea eta horiek berriki gailu mugikorretan ere sartu direla ikusita, edozein tokitan konektaturik egon gaitezkeela esan dezakegu, urrutiko tokoa bada ere. NBEk berriki adierazi duenez, Giza Eskubide Unibertsala da Internet, eta erakunde horretako gobernuari eskatu die banako guztiek sarean sartzeko modua erraztu dezaten.

Teknologien erabilerak aldaketa nabarmena dakar gizartean eta gizartearen harremanetan, eta jakintza sortzeko eta hedatzeko modua aldatzen ari da. Teknologia berriek lengoia berriak sortzen dituzte eta, horiei esker, ikasteko agertoki berriak sor daitezke. Horiek abantaila guztiak aprobetxatzeko, hezkuntza erakundeek lengoia eta komunikazio modu berri horiek ezarri eta erabili behar dituzte.

Beste hezkuntza modu batzuk erabili behar dira, ikasleek euren ikaskuntzaren protagonismo handiagoa har dezaten. Ikasgelak digitalizatzeko hutsa ez da, gure ustez, arazo guztien konponbidea. Sistemaren kalitatean jauzi kualitatiboa egiteko, prozesuarekin batera, curriculumak eta metodologiak egokitu behar dira. Eskolaren etorkizuna irakaslearen eginkizun edo rol aldaketaren bidetik dator: irakaslea barik dinamizatzailerak izan behar du, ikasleak zuzendu eta bultzatzeko gai den pertsona, beharrezko tresnak eskainiko dizkiena ikasleek hezkuntza proiektuak eraiki ditzaten.

Industriaren garaian ez bezala, non jakintza soilik liburuetan eta zirkulu akademikoetan zegoen, gaur egun beste plataforma batzuetara hedatu da jakintza eta askoz modu irekiagoan eskura dezakegu. Horrengatik guztiagatik, gaitasun berriak eman behar zaizkie irakasleei nahiz ikasleei, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak egokiro bideratuz informazioa jakintza bihurtzera, eta ez informazioaren transmisio hutsera. Egungo erronketara bideratu behar dugu hezkuntza. Ikasten ikas dezaten trebatu behar ditugu gure gazteak, informazioa euren kabuz bilatu eta taldean lan egin dezaten.

⇒ EAJ-PNVren erantzuna

1. Sare-hezkuntza bultzatzea. Gaur egun, eraldaketa gertatzen ari da eta sare-hezkuntza gisa defini daitekeen teknologi eta hezkuntza berrikuntza exijitzen du. Sare-hezkuntzaren aldeko apustu irmoa egitearen alde dago EAJ-PNV, euskal

hezkuntza sistemaren kalitatea hobetzeko kontzeptu berritzaile gisa, berehalako gertakizuna den hezkuntzaren eraldaketarako. Eragile guztiak izan beharko dira kontuan, hezkuntza sistemaren XXI. mendeko iraultzara egokitu ahal izateko.

2. Ikasgeletan IKTak erabiltzeak eta etengabeko interakzioak izan behar dute sare-hezkuntza kontzeptu horren euskarria. Besteak beste, internet heziketan erabiltzeak irakaslearen eta ikaslearen arteko potentzial interaktibo handia eskaintzen du: hezkuntza baliabide eta eduki ugari erraz eskuratzea, elkarlaneko ikaskuntza eraikitzailean aurrera egitea eta komunikazio sinkronoa nahiz asinkronoa erabiltzeko aukera.
3. Gizarte sarea irakasleen eta ikasleen arteko lankidetzat gisa eratu behar da, eurak baitira hezkuntzaren benetako eragileak.
4. Irakasleen proposamenak eta hezkuntzaren eremuko gainerako eragileen proposamenak entzun behar dira ikasleen aldeko politikarik eraginkorrena adosteko, eta edukiak sortzen parte hartzeko aukera eman behar zaie irakasleei. Egoera berri honetan, lau ataza nagusira bideratu behar da irakaslea: kurtsoaren plangintza, oinarritzko materiala egitea, tutoretza eta ebaluazioa.
5. Gurasoek “sareari dioten beldurra” gainditu behar dute. Egia esan, kasu askotan uste dute seme-alabek sarean egiten dutenaren inguruko kontrolik ez dutela, baina arlo horretako egokitzapen egokia lagungarria izan daiteke arriskuok gutxitzeko sare-hezkuntzaren ahalmena galdu gabe.
6. Hezkuntza administrazioak eginkizun nagusia du arlo honetan. Ikastetxeen zuzendaritzak teknologiao inbertsioa bultzatuko du diruaren aldetik. Hezkuntza administrazioak aldaketa politikoetatik aparteko digitalizazio programak ezarriko ditu eta oinarritzko beharrak planifikatuko ditu. Gainera, argialetxeak izan behar dituzte kontuan, funtsezkoak baitira curriculumen edukiak formatu digitalera egokitzeko.
7. Aldaketa bultzatzea unibertsitatearen esparruan. Nahiz eta Euzkadiko fakultate eta unibertsitate guztiek nolabaiteko irakaskuntza birtual mailako arloak izan eta irakasleen eta ikasleen arteko informazio transmisioa errazteko plataforma teknologikoak egon, lanak igo eta emaitzak begiratzeko plataforma ematea baino ahalegin handiagoak eskatzen dira. Unibertsitateko kulturak berrikuntza sustatu behar du teknologizazio informatikoaren eta IKTen erabileraren esparruan. Hala ere, unibertsitateko instantzia guztiek guztiz jabetuta egon behar dute hasiera-hasieratik, egin beharreko jarduerak lehenetsi ditzaten zuzendaritza informatikoek. Hortaz, gela birtualak sortzeko lana egin behar da, sarearen bidez ikaskuntza-ingurune berrira hurbiltzeko ikasleak.

B.6) GIZARTE KOHESIOA, HERRITARTASUNA ETA EREDU BERRIAK

⇒ Diagnostikoa:

Hezkuntza oinarrizko elementutzat hartu behar da gizarte berdintasunaren eta kohesioaren erronkan. Gizartearen bilakaeraren abiadura ikaragarri handia da eta, gainera, hezkuntza politikak errealitate berrira egokitzea exijitzen du.

Errealitate berrietara egokitzeko gure jardunaren oinarriak izan behar dute askatasun, erantzukizun eta gizarte elkartasun eta justizia balioek, zutabe etikoetan eta balio sendoetan finkaturiko gizarte eredua indartuz, bizikidetzan, bakean, aukera-berdintasunean, ahaleginetan eta erantzukizunean aurrera egiteko. Gizarte gisa eta herrialde gisa dugun etorkizuna, neurri handi batean, bultzatu nahi dugun hezkuntza politikaren arabera da.

Hezkuntza, berez, balioa da, eta gizarte sektore eta adin guztietara iritsi behar du; etenik gabeko trebakuntza-prozesua da. Gizarte prozesua da hezkuntza, eta eskola edo institutua tresnak besterik ez dira. Askotarikoa da gure gizartea gero eta gehiago, jatorri, hizkuntza, kultura, gaitasun, bizipen, egoera eta abarren aldetik, eta eskolari dagokio horiek guztiak kontuan izatea zerbitzu egokia eskaini nahi baldin badu.

Euzkadiren bilakaera demografikoaren arabera, zahartuz doa gizartea, eta berariaz aurreikusten da 20-24 urtekoen adin-tarteko populazioaren jaitsiera 2011-2014ko epealdian. Hots, gradu-plazen eskariak nabarmendu egingo du behera. Galera hori konpentsa dezaketen populazio mugimenduak ikusten dira, ordea, hala nola etorkinak, euskal biztanleriaren hezkundearen faktore nagusia azken urteotan, baita Bolognako prozesuak bultzaturiko unibertsitateko ikasleen mugikortasun handiagoa ere.

Aniztasun hori ageri da etorkinen kopuruan: Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe eta institutuetaiko ikasleen ia %7 etorkina da. Hala ere, aurrera egin behar da etorkinak ikastetxeetan modu homogeneousagoan banatzeko prozesuan. Zaindu beharreko beste arlo bat batxilergoa amaitu baino lehen hezkuntza sistema uzten dutenen tasa murriztea da; izan ere, ikasle etorkinen ia %40k ez du batxilergoa bukatzen. Bertoko ikasleen ehunekoa askoz txikiagoa da, ordea: %10.

⇒ EAJ-PNVren erantzuna

1. Aurrera egitea kalitatezko euskal eskola inklusiboa eraikitzeke eta garatzeko bidean. Eskola atsegina, kolaboratzailea eta suspergarria. Irakasleek, ikasleek eta familiek gehiengoaren balio eta printzipio inklusiboak partekatzen dituzten eskola.
2. Hezkuntzako laguntzaren berariazko behar bakoitzari egokituriko erantzunak eskaintzea: Ezintasun edo jarrera gaitz larrien ondorioz hezkuntzako behar

bereziak dituzten ikasleei; ikasteko zailtasun espezifikoak (IZE edo DEA) dituzten ikasleei; gaitasun handiko ikasleei; hezkuntza sisteman berandu sartu diren ikasleei; egoera pertsonal edo eskola historiagatik behar bereziak dituzten ikasleei.

3. Banako hezkuntzaren aldeko apustua egitea. Ikasleari hezkuntza-prozesu osoan laguntzeak, zalantzarik gabe, abantailak dakartza, ikaslea bera, bere berezitasunak eta gaitasuna hobeto ezagutzen direlako eta, horri esker, orientazio egokia eman dakioke uneoro. Azken finean, irakaskuntza pertsonalizatuagoaren aldeko apustua egiten duen eskola, eskola-porrota murrizteko modurik eraginkorrenetakoa den aldetik. Gainera, tutoretza, gure ustez, ikasleen familiei laguntzeko tresna da uneoro lortu nahi diren helburuak betetzeko bidean.
4. Ikasleen trebakuntza etengabe hobetzea hezkuntza sistemaren erronka handietako bat da. Arlo kontzeptualetik harago joanda, bokaziozko lana den irakaskuntzarako prestatuko dituen trebakuntza, praktikaaldiak eta unibertsitatearen eta ikastetxeen arteko harremanak hobetzea barne direla. Era berean, trebatuta egon behar dute gizarte testuingurura egokitzeko hainbat arlotan, adibidez: generoan, sexu nortasunean eta kultur aniztasunean.
5. Irakasleen gizarte onarpen handiagoa bultzatzea.
6. Ingurunera etengabe irekita dauden ikastetxeak. Hezkuntza ez da soilik heziketa edo jakintza ematea, baizik eta bestelako balioak ere izan behar dira hala nola gaitasunak, bizipenak, adimen emozionala eta afektibitatea. Gure ustez, gizarte osoak hartu behar du parte hezkuntza prozesuan, gizarte eragile guztien bitartez: irakasleak, gizarte-hezitzaileak, boluntarioak, elkarteak eta familiak. Gainera, uste dugu ikastetxeak ez direla soilik ordutegi jakin batean eskolak emateko erabili behar. Gizarte eragile guztiei ireki behar zaie eta hobetu egin behar dira bertan erabilitako baliabideak.
7. Prestakuntza-orduak gehitzea ahalbidetzen duten tresna berriak aplikatzea, norberaren autonomia gehiago garatzea, jakintza gai estankoen dosifikazioa gainditzea eta erritmo ezberdinekin ibiltzea hezkuntza-prozesuan.
8. Immigrazioa eta mugikortasuna gure hezkuntza sistemarako talentuak erakartzeko gune bihurtzeko tresnak eta neurriak garatzea. Kulturartekotasuna baliatu beharreko balioa da. Gure eskoletara datozenen eskola-arrakasta handitu behar dugu, baita eskolaren esparruko kulturen arteko bizikidetzak hobetu ere.
9. Informazio eta komunikazio tresna berriak erabiltzea eta sustatzea, prestakuntza-ordutegia handitzeko, beste gizarte eragile batzuen partaidetza errazteko eta beste errealitate batzuekin harreman handiagoak izateko.

C) OSASUN SISTEMA IRAUNKORRA ETA KALITATEZKOA

Osasuna funtsezko faktorea da herritarren ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzeko, ez bakarrik gaixotasunak prebenitzeko eta sendatzeko zuzeneko ondorioengatik, baizik eta osasunaren sektoreari benetako balio soziala, ekonomikoa eta politikoa ematen dioten beste ondorio batzuegatik ere bai. Batez ere hauexek dira ondorioak:

- Osasun Arloak, gizarte justizia bideratzeko tresna gisa, birbanaketarako eginkizuna betetzen du, gehien behar duenari arreta handiagoa eskainiz eta osasuna dela-eta egoera okerragoan dagoenaren aukera-berdintasuna berronkatzen saiatuz.
- Sistema publikoa, unibertsala den aldetik, gizarte kohesioa sustatzen dituen elkartasunaren adierazpen bat da.
- Osasun jarduerak, berez, balio erantsi handia dakar, baita ekoizpen eta I+G-ko jarduerak sorta zabala eragiten dituelako ere, osasun jarduerak aplikatzeko beharrezkoak. Hala, ekonomia orokorra dinamizatzen duen faktorea eta zuzeneko eta zeharkako enplegu-sortzailea handia da.
- Osasunaren arloko erantzukizun publikoa betetzeak legitimatzen du gobernuaren ekintza, hots, zerbitzua emateko duen bokazioa, herritarren beharrei erantzuna ematea eta herritarrengandik hurbil egotea.

EAJ-PNVk betidanik izan du sentsibiltate berezia herritarren osasunarekin, eta helburu estrategiko gisa ezarri du osasuna Euzkadirentzat eta osasun politikako gakoak lehenetsun politikotzat.

Euskal gizartean zenbait aldaketa gertatzen ari dira gizarte, ekonomia eta kultura mailan eta, sistemari datxekzion barne faktoreekin batera, Osasun Sistemaren etorkizunerako eta hamarkada honetan izango diren agertoki berriei erantzuna emateko gaitasunerako zenbait erronka baldintzatzen eta planteatzen dituzte.

Funtsean, hauexek har ditzakegu sistemaren erronkatzat:

- Estaldura unibertsala eta herritarren eskuragarritasuna bermatzea.
- Pazienteen beharrei erantzuna ematea haien ezaugarrien eta tipologiaen arabera, betiere gizarte eta osasunaren arretan aurrera eginez.

- Berdintasun eta kalitate mailak atxikitzea eta hobetzea.
- Osasun Sistema egokitzea, bertan parte hartzen duten gizarte eragileen erantzukizun eta berrikuntza kulturak garatuz.
- Iraunkortasuna bermatzea, nahikoa finantzaketa emanez eta eraginkortasun politikak aplikatuz.

C.1) SISTEMAREN ERAKETA ETA ANTOLAKETA

⇒ Diagnostikoa:

Azken hiru hamarkadetan Euskal Autonomia Erkidegoko osasun sisteman eginiko lanaren ondorioz, emaitza onak lortu dira, bai gizartearen balorazioaren aldetik, bai osasunaren eta osasun sistemaren errendimenduaren mailetak emaitzen aldetik; izan ere, berdintasun eta eraginkortasun maila handiak lortu dira. Handinahiak izateko asmorik izan gabe, oso maila altukotzat jo daitezke emaitzak eta, gainera, gizarte desberdintasun maila txikiagoa izan da osasunaren arloan beste eremu geografiko batzuekin alderatuta.

Hala eta guztiz ere, azken bi urte eta erdian, EAEn Eusko Jaurlaritzaren egungo arduradun politikoek sistemaren egoerari buruzko nolabaiteko egoera katastrofista eman nahi izan diote euskal gizarteari, ordura arte lorturikoa balioetsi barik eta guztia zalantzan jarrita.

Oraingo administrazioan, halaber, gaixo kronikoentzako arreta estrategia nagusi gisa planteatu da. Gainera, saioak egin dira antolaketa-aldaketak egiteko, sistema berbideratuz kronikotasunari begira.

Nahiz eta igurikapen edo esperantza handiak sortu eta garatzeko egin diren proposamenak zentzu positiboan har daitezkeen -halaxe ezarri dira Europar Batasunaren eremuan-, egia esan, praktikan jartzeko modua dela-eta, batere zehaztu gabe, nahasmendua sortzen ari da sistemaren etorkizunaz, baita nolabaiteko eszeptizismoa sistemako eragileen artean ere.

Euzkadiko osasun sistema egoera larrian sartzeaz dagoela pentsa badaiteke ere, hain zuzen ere nekez egin dakiokelako aurre sistemari egungo antolakuntzaren inguruko egiturekin eta indarreko kudeaketa-ereduekin, orain arte lorturikoa balioetsi eta sistemak dituen ahuleziak onartu behar direla irizten diogu, sistema egokitzeko eta eraldatzeko apustua garatzeko betiere. Horretarako, sistemak berak birsortzeko duen ahalmena sinesten dugu.

⇒ **EAJ-PNVren erantzuna**

1. Osasun Sistema publikoaren aldeko apustua egiten dugu, dela izaera unibertsala ziurtatzeari dagokionez, dela finantzaketari dagokionez. Osakidetzak Euzkadiko osasun sistemaren erdigunea izaten jarraitu behar du. Beharrezkotzat jotzen dugu, gainera, hainbat ekimen sozial eta pribatu kontuan izatea, eta Euzkadik kalitatezko osasun sistema pribatua edukitzea, dinamismoa emango diona osasun sistemari; sistema publikoaren osagarria izango da eta harekin lankidetzan arituko da. Dauden baliabideak beharrian berariazkoen arabera erabil daitezela eta sistemaren eraginkortasuna eta eragimen orokorra kontuan har daitezela proposatzen dugu.
2. Pertsonak bere eginkizunaren ardatz hartuta eratu behar da sistema gure ustez, zeren eta osasun mailetan izango diren lorpenak gure gizartearen banako eta taldeko bizi-kalitatearen eta ongizatearen funtsezko zutabeetako bat izango baitira.
3. Gaixotasunaren osasun laguntzan oinarrituriko kulturatik osasuna sustatzeko kulturarako jauzia egin behar da, gaixotasunak prebenitzen eta saihesten dituzten faktoreetan indarra jarrita, bizimodu osasungarrien sustapenaren, ingurumenaren, elikagaien segurtasunaren eta lan-baldintzen aldetik. Beraz, osasun publikoa bultzatu behar da Osasun Planean ezarritako lehentasunen erreferentzia gisa: garai berrietara egokitu eta arazoei erantzun bizkorrak eta eraginkorrak emateko beharrezko antolakuntza eta bitartekoak emanaz, udalekin eta aldundiekin batera lan eginez eta koordinatuz.
4. Aztertu egin behar dira baliabideen egungo banaketa eta laguntzaren antolakuntza, egungoa eta planifikatua edo betetzeko bidean dagoena, baliabideen beharrian objektiboa kontuan hartuz, behar zehatzei, arreta jaso behar duten paziente motei eta bizi dugun krisialdi ekonomikoaren egoerari dagokienez. Behin azterketa hori eginda, arazoak konpontzeko gaitasun handiagoa sustatzen duten baliabide egokiak ezartzea proposatzen dugu, azpiegitura mailan nahiz maila funtzionalean, jarduteko moduak aldatuz eta zerbitzuaren kalitatea hobetuz.
5. Baliabide guztiak ikuspegi funtzionaletik bateratzea eta txertatzea proposatzen dugu, baita pertsonen behar zehatzen eta zaintzen jarraipena bermatzearen arabera ere, sistemaren beraren antolakuntzaren arabera baino: pazientearen etxetik espezializazioaren aldetik aurreratuen den baliabidera, gizarte-osasun eremua barne dela.
6. Oinarritzko arretak sisteman duen nagusitasuna berreskuratu behar du. Gainera, sisteman sartzeko atea izan behar du eta osasuna sustatu eta prebenitzeko lana berreskuratu behar du. Osasun arazorik gehienak konpontzeko gaitasun

handiagoa izatea erraztu behar dugu, herritarren arrisku-faktoreak kontrolatuz eta pazienteak baliabide espezializatuagoetara eta garestiagoetara bideratzea saihestuz.

7. Beharrezkotzat jotzen dugu ordenamendu farmazeutikoaren arloko legeria eguneratzea, izapide burokratikoak murriztea eta XXI. mendera egokitzea. Hala, farmazia-bulegoak erabat integratzearen alde gaude osasun eragileak diren aldetik, arreta farmazeutikoko duten programak garatuz eta oinarritzko arreta zerbitzuekin koordinatuz betiere.
8. Errezeta elektronikoa erabat ezartzearen, medikamentuaren zentzuzko erabileraren eta printzipio aktiboaren bidezko preskripzioaren aldeko apustua egiten dugu, Europako herrialde aurreratuen antzeko medikamentu orokorren erabilera lortzen saiatuz.
9. Medikamentuen prezioak baimentzeko, erregistratzeko eta finkatzeko ardura duten batzordeetan parte hartzea eskatzen dugu eta berrikuntza sustatzen dugu produktu farmazeutikoak gizarte-osasunaren eremuan hornitzeko ereduan.
10. Proposatzen dugun osasun sistema gobernatzeko ereduaren arabera, bertan parte hartzen duten gizarte eragile eta erakunde guztiek dute tokia, eta sistema horrek oinarritzat ditu gardentasuna, benetako partaidetza eta erantzukizuna, kontuak emateko gizarte terminoetan.

C.2) OSASUN ZERBITZUEN ESKARIAREN KUDEAKETA

⇒ Diagnostikoa:

Herritarrek osasun zerbitzuen aldetik duten gero eta eskari handiagoa zuzen eta egoki kudeatzea da, dudarik gabe, herrialde garatueta finantzaketa publikoko osasun sistema guztiek aurre egin beharreko erronkarik garrantzitsuenetako bat. Osasunak lehentasunezko ondasuna izateari utzi eta kontsumo-ondasun bihurtu da, osasunaren medikalizazio maila handiarekin. Hori dela-eta, egungo parametroetan eutsiko zaio eskariari, edo hazten jarraituko du.

Guztientzako eta doako zerbitzuen testuinguruan, osasun zerbitzuen eskari gero eta handiagoa da, dudarik gabe, herrialde garatueta finantzaketa publikoko osasun sistema guztiek aurre egin beharreko arazorik garrantzitsuenetako bat.

Osasun arreta jasotzeko zain daudenen zerrendak orokorrak dira eta ia berezkoak osasun sistema publiko unibertsal guztietan; izan ere, herritarrek osasun publikoarekin pozik ez egoteko kausa nagusia izan ohi da.

⇒ ***EAJ-PNVren erantzuna***

1. Kalitate eta bikaintasun klinikoko kudeaketa-eredu baten aldeko gure apustuarekin jarraituko dugu, egiturari dagokionez nahiz prozesuaren kudeaketari eta emaitzei dagokienez, eta bereziki hartuko dugu kontuan pazientearen segurtasuna.
2. Gogoeta argia eta sakona planteatu behar dugu une honetan eskaintzen ari garen prestazioei, teknikei eta prozedurei buruz, baita populazioaren osasunaren egoeran duten benetako eraginaz ere. Jarraibideen egokitzapenari buruzko azterketa sakondu beharra dago, eraginkorrakoak diren eta benetan herritarren osasunari eta bizi-kalitateari balioa dakarkioten arloak ardatz hartzeko. Horretarako, zerbitzu-zorroaren zentzuzko eskaintzaren alde gaude, eta argi eta garbi ezarri behar dira prestazioak: noiz diren oinarritzkoak eta noiz osagarriak.
3. Aholkularitza sistemak indartuko dira, prestazio, teknika eta prozedura berriak sartzaren inguruko aholkuak jasotzeko, baita jardun klinikoen ebaluazioan ere, horren bideragarritasunari eta beharrezko probei eta teknologiei dagokienez.
4. Itxarote-zerrenden kudeaketan lehentasunak ezartzea proposatzen dugu larritasunaren eta osasunerako balizko arriskuaren arabera, baita ebakuntzen eraginkortasunaren eta gizarteari eta pertsonen bizi-kalitateari dakarkioten balioaren arabera ere.
5. Beharrezkotzat jotzen dugu osasuna sustatzeko, babesteko eta oinarritzko prebentziorako jarduerekin konpromiso sendoa. Osasunerako hezkuntzan inbertitu behar dugu, dieta zaintzea eta ariketa fisikoa sustatuz eta sedentarismoa saihestuz, baita alkoholaren, tabakoaren eta beste substantzia kaltegarri batzuen kontsumoaren murrizketa sustatuz ere.
6. Eraginkorrak diren eta pertsonen bizi-esperantzan eragina duten bigarren mailako prebentzio programak garatzen jarraitu behar dugu, gaixotasunak faserik goiztiarrenetan sistematikoki antzemateko eta sintomak erabat garatu baino lehen jardun ahal izateko. Hala, konplikazioak gutxituko dira.
7. Gure ustez berrikuntza da erakundeak aldatzeko benetako eragilea eta, gainera, iraunkortasuna bermatzen du. Halaxe frogatu du arlo horretan aurreko hamarkadetan eginiko ahaleginak, non Euzkadiko Osasun Sistemaren ezaugarri nagusia antolakuntzan nahiz maila klinikoean eta kudeaketa mailan berrikuntzak sartzea izan baita. Hala, berrikuntzaren aldeko apustuari eusten diogu, gure sisteman planteatzen ari garen aldaketa eta eraldaketarako proposamenen eragilea den aldetik, bai erabaki politikoaren eta erakundeen arteko lankidetzaren mailan, bai laguntza kudeatzeko lana egiten duten pertsona guztien mailan.

C.3) OSASUN ARLOKO PROFESIONALAK

⇒ **Diagnostikoa:**

Azken urteotan osasun arloko profesionalen eskariaren eta eskaintzaren arteko desorekak eragina izan du osasun arlo publikoan. Esan behar da, hala ere, medikuei dagokienez defizita ez dela orokorra: zenbait espezialitatetan bakarrik dago defizita.

Barruko mediku egoiliar gisa prestakuntza jasotzen duten gehienak emakumezkoak dira eta hori medikuen kolektiboaren feminizazioa eragiten ari da. Azken hamar urteetan ahalegin handia egin da plantillak indartzeko, lan eskaintza publikoen bitartez.

Langileen kudeaketa egituratzeko, gehienbat, antolaketa eredu administratibo bat eta lanbide garapenerako eredua erabili dira. Badira garatu beharreko erronka berriak ordea; esate baterako, parte-hartzea eta buruzagitza. Zuzendaritza funtzioak kudeaketaren kontrolaren arloan dihardu lehentasunez.

⇒ **EAJ-PNVren erantzuna**

1. Apustu egiten dugu profesionalak erabakietan eta osasun sistemaren eraldaketan parte hartzearen alde eta lidergoa izatearen alde, funtsezko elementuak baitira sistema barrutik birsortzeko.
2. Beharrezkotzat jotzen dugu nahikoa profesional edukitzea, osasun sistema osatzen duten erakundeak mantentzeko eta behar bezala funtzionatzeko etengabeko trebakuntza egokia dutenak. Gure profesionalen batez besteko adina kontuan harturik, estrategia zentzuduna ezarri behar dugu gure sistemak behar dituen giza baliabideak behar bezala planifikatzeko.
3. Berriz planteatu eta bideratu behar ditugu graduatu aurreko eta graduatu ondoko prestakuntzan sartzearen inguruko politikak –unibertsitatearekin koordinatuta–, egoiliarrek trebatzeko eskaintza hobetuz etorkizuneko profesionalak sartzea erakargarriago egiteko estrategia baten bidez.
4. Apustu egiten dugu erakundeen kudeaketa-autonomia handiagoa izan dadin, sistema deszentralizatuago eta malguagoan, arriskuak hartuta, zuzendarien kudeaketa estiloa berbideratuta.
5. Zuzendaritzako eginkizunak profesionalizatzearen aldeko apustua egiten dugu. Profesionalik onenak jarri behar dira lan horretan, eta kudeaketaren kontrolaren kulturatik bidea egin behar da emaitzak lortzeko erantzukizunaren kulturarantz,

bai prozesuetako produktibitate eta kalitate maila egokiei dagokienez, bai osasun laguntzaren integrazioa sustatzeari dagokienez.

6. Gure profesionalak euskalduntzeko prozesuarekin dugun konpromisoa berresten dugu, euskaldunek arreta euskaraz jasotzeko duten eskubidea bete dadin.

C.4) FINANTZAKETA ETA IRAUNKORTASUNA

⇒ Diagnostikoa:

Osasunaren politikarako erabilitako aurrekontuko baliabideen ikuspegitik, seguru asko gorako joera izango da. Pertsona bakoitzeko prestazioen igoerak –zati batez terapia, diagnostiko eta teknologia berrien ondorioz- eta populazioa zahartzeak gastuaren gorako joera eragingo dute, beste faktore batzuekin batera.

Sistemaren finantza-bideragarritasuna bermatzeko, ahalik eta eraginkortasunik handiena bilatu behar da baliabideak erabiltzerakoan, eremu guztietan neurriak abiaraziz.

⇒ EAJ-PNVren erantzuna

1. Sistemak nahikoa finantza-ahalmenarekin jardutearen aldeko apustuari eusten diogu, betiere kalitate eta emaitza parametro egokiekin. Baliabideak lurraldekako esleipenean berdintasun irizpidea lehenestearen alde gaude, lurraldeen kohesioa sakontzeko eta osasunaren arloko desberdintasunak ahalik eta gehien murriztuta. Sistemaren eraginkortasuna etengabe lortzeko bidetik jarraitu behar dugu oro har, sistema berritzeko eta eraldatzeko gure proposamenak aplikatuz.
2. Gogoeta argia eta sakona planteatu behar dugu une honetan eskaintzen ari garen prestazioei, teknikei eta prozedurei buruz, baita populazioaren osasunaren egoeran duen benetako eraginaz ere. Sistemak eraginkortasuna lortzeko bidean jarraitu behar du, iraunkortasuna lortzeko funtsezko elementua den aldetik. Horretarako, lehenik eta behin antolakuntzan proposaturiko neurri berrien eragina neurtu beharko da.
3. Nahikoa informaziorako sistema bat ezarri behar dugu, pazienteek tratamenduei buruzko arazoen gaineko erabaki egokiak har ditzaten profesionalekin batera; izan ere, ez du zertan beti aukerarik garestiena izan.
4. Lehentasunak ezarri eta arretaren prozesuan baliorik ez dakarten jarduketak identifikatu beharko dira, baita baliabideen erabilera desegokia ere, beharrezkoa

ez den kontsumoa ekiditeko. Zer behar den, zenbat balio duen eta zelan finantzatu behar den ezarri behar da. Osasunean izandako emaitzen arabera ordainketa sakondu behar dugu, ekintza mediko hutsetik harago joanda, bai sistema publikoko erakundeekiko kontratuetan, bai sektore pribatukoetan.

5. Ez gara osasun zerbitzuak erabiltzearen ziozko baterako ordainketa gehiago sartzearen alde. Berdintasunaren kontrako neurria da baterako ordainketa eta, muga, osasun sisteman sartzeko gizarte desberdintasunak areagotzen ditu, baita osasun mailetan ere.

D) GIZARTE ZERBITZUEN SISTEMA: KOHESIOA ETA BIZIKIDETZA

Gaur egun, hiru gertaera ezagunek baldintzatzen dituzte erabat herritarren eskariak eta herritarren betebeharrak betetzeko gizarte politikak, eta gainerako gizarte guztietan ere aurki daitezke: populazioaren zahartzea, familian gertatzen ari diren aldaketak eta migrazio-prozesuak.

Bizkor ari da zahartzen Euzkadi; halaxe erakusten dute datuek eta aurreikuspenek. 2030ean, %11,4 egingo du behera EAEn 16 eta 64 urte bitarteko populazioak. 65 urtetik gorakoen kopuruak, berriz, %40 egingo du gora. Gainera, gure herrialdeak Europako bizi-esperantza tasarik altuenetakoa du (77 urte gizonezkoentzat eta 84 urte emakumezkoentzat). 2009ko azken zentsuaren arabera, ia 410.000 dira EAEn bizi eta 65 urte edo gehiago dituzten pertsonak, hots, bostetik bat adinekoen kontzeptuaren barruan sartzen da. Eginiko zenbatespenen arabera, 2014rako 50.000 pertsonak baino gehiagok behar izango dute prestazio motaren bat.

Faktore guztiek ematen dituzte famili ereduaren aldaketak, baina beharbada emakumeak pixkanaka lan merkatuan sartzea, egungo euskal gizartearentzat hain positiboa dena, bizi-esperantzaren tasaren igoera eta, halaber, pertsonen eta familien aniztasuna dakarten familia eredu berriak aurrerapenaren emaitza dira eta erantzun berriak eta berritzaileak behar dituzte.

Immigrazioari dagokionez, gizarteratzea, gizarte kohesioa eta bizikidetza erronka zoragarriak dira guretzat. Ez bakarrik hemen gelditzeko eta euren bizi-proiektua hemen garatzeko datozen atzerritarrentzat eurentzat. Harrerako gizarteentzat eta herri agintarientzat ere bai. Guztiei dagokie gizarte inklusiboa eratzeke lana egitea, herritar guztiak berdintasunez hartuko dituen, bertakoak nahiz atzerritarrak. Izan ere,

erkidego bat eraikitzeke eta herrialde gisa etorkizunerako ikuspegi bat proposatzeko gure gizartean dauden eta izango diren pertsona guztien artean, ezinbestekoa da horiek pertsona guztiek guri dagozkigun gaitan eta erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartu eta bertakoak direla sentitzea.

Arlo honetan EAJ-PNVk bultzatu duen arau garapenak bide ematen du gizarte zerbitzuen sistemak ongizatezko estatuaren lorpenean dagokion protagonismoa izan dezan

Gizarte zerbitzuen euskal sistema erantzukizun publikoko laguntza-sare artikulatu gisa ulertzen da, unibertsaltasun, ekitate eta irisgarritasun printzipioetan oinarritutako eskubide subjektiboa ezarrita.

Haren helburua da pertsona, familia eta talde guztien gizarteratzea eta autonomia ahalbidetzea eta sustapen, prebentzio, babes eta laguntza eginkizunak betetzea, prestazio, ekipamendu eta zerbitzu pertsonalak eta harremanen bidezkoak direla medio, nagusiki.

Pertsona guztien gizarteratzea eta autonomia, aukera berdintasuna eta bizi kalitatearen hobekuntza sustatzen dituen eredu gisa ulertzen da gizarte zerbitzuen sistema.

D.1) GIZARTE ETA OSASUN LAGUNTZA

⇒ Diagnostikoa:

Euskal adinekoek gero eta gizarte baliabide gehiago erabiltzen dituzte; nabarmen egin du eragilerak horrek, eskaintza handitu izanarekin bat etorriz. 2010ean, Euskal Autonomia Erkidegoko 60 urtetik gorakoek %6,9k erabiltzen du Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua. 1993an, berriz, %3,3k.

Zahartzearen eta mendekotasunaren erronkak eragina izango du, ezinbestean, gizarte babeserako sistemetan, gure herri finantzen aurrekontuetan, gure egitura ekonomikoan (inbertsioa, aurrezpena, kontsumoa) eta famili finantzetan ere bai. Erronkari erantzuna emateko, politikak, sistema ekonomikoak eta gizarte eta famili harremanak berregituratu behar dira. Euskal herritarren gizarte-osasunaren gero eta eskari handiagoari egin behar diogu aurre, ez bakarrik baliabide berriak ezarrita, baizik eta bi sistemen (osasunekoa eta gizartekoa) arteko koordinazioaren eta berrantolaketa bidez, sinergiak eta baliabideak aprobetxatuz, gizarte-osasuneko eredu garatuta, koherentea eta iraunkorra lortzeko xede nagusiarekin. Hartara, erabiltzailea eta horren ohiko eremua izango da zerbitzuen ardatza: etxea.

Aurrerapen asko egin da azken urteotan gizarte-osasunaren arretaren arloan, baina asko dago egiteke oraindik. Gaur egun, erakundeek (Gobernua, osasun zerbitzuak, aldundiak eta udalak) koordinazioaren kudeaketan dituzten zailtasun handiak direla-eta, gizarte-osasunaren arreta atzeratu egiten da eta mendekotasuna dutenen artean injustizia eta desberdintasun handiena dakarten prestazio-hutsuneetako bat da.

Beste gizarte errealitate baterako sortutako ongizate sistema dugu. Hortaz, egungoari egokitu eta etorkizunerako prestatu behar da, eta horretarako, aldaketak egin beharko dira erakundeetan, administrazioan eta gizartean. Oraitxe jardun behar dugu, errealitate instituzionala eta politika publikoak egungo gizartearen errealitatera eta geroko errealitatera egokitzeko.

Horrengatik guztiagatik, sistema eraginkorra behar dugu gizarte-osasunaren eremuan, jarduketa mistoa eskatzen duten behar konplexuei erantzuna bilatuko dien sistema. Sistemen plangintzatik eta koordinaziotik egin behar zaio aurre zahartzearen eta mendekotasunaren erronkari. Egungo eta geroko arazoei irtenbidea bilatzeko estrategia berriak behar ditugu. Eragile politiko, instituzional, sozial eta ekonomiko guztien negoziazioaren, elkarriketaren eta elkar ulertzearen bidez egin behar diogu aurre arazoari. Agertoki honetan, sistemaren eraginkortasuna eta iraunkortasuna bermatu beharra dago.

⇒ **EAJ-PNVren erantzuna**

1. Apustu egiten dugu erantzukizun publikoko eta pertsona guztien gizarte beharrezaneiei egokitutako gizarte zerbitzuen sistema baten alde. Arlo arteko programak eta zerbitzuak garatzea eta esku hartzeko ibilbide berriak sortzea erabiltzaileen profil ezberdinen arabera. Joera ekonomiko, teknologiko, sozial eta kultural berriek garatzeko aukera berriak dakartzate eta, aldi berean, erronka berriak sortzen dituzte. Gizarte, etxe eta legeen aldetik dauden aldaketen eraginez, zerbitzu-erabiltzaileen profilaz hitz egiten dugu; ezaugarri nagusiak aniztasuna, aukeratzeko ahalmena eta partaidetza dira. Aniztasun horren aurrean, erantzun posible bakarra dago: zerbitzuak pertsonalizatzea.

Gure gizartearen kohesio sozialean lagunduko duen gizarte zerbitzuen eredua ahalbidetzea, aurrerapenerako eta justizia sozialerako benetako aliantza moduan. Gizonen eta emakumeen arteko benetako berdintasuna bizitzaren esparru guztietan, pertsona guztien erantzukizuna zaintze lanetan, belaunaldien arteko konpromisoa, bereziki ahulak diren kolektiboen gizarteratzea, edo desberdintasuna gizarte baliotzat hartzea; horrelako elementuak indartu egin behar dira, gizarte zerbitzuen euskal ereduaren bizkarrezurra osatu behar dutelako.

2. Gizarte eta osasun arloetako koordinazioa. Egungo bi sareak koordinatzearen aldeko apustua egiten dugu (osasunekoa eta gizartekoa), integrazio funtzionalaren printzipioaren pean. Horretarako, homogeneousotasun handiagoa eman behar zaio sistemari, erakunde bakoitzak bere eskumena eta lurralde eremuan duen autonomia errespetatuz. Ildo horretan, funtsezkoa da teknologia berriak erabiltzea baterako informaziorako sistemaren garapenean, funtzionamendua errazteko eta sistemaren eskura jarritako giza eta diru baliabideak behar bezala erabiltzeko. IKTen erabilera horrek bide eman beharko du leihatila bakarra sortzeko, herritarrek zerbitzu bat eskuratzeko hainbat administrazioerengana jo beharrik izan ez dezaten.
3. Kudeaketa-eredu berriak garatzea, hirugarren sektorearekiko eta ekimen pribatuarekiko lankidetzak euskarri hartuta.
4. Teknologia berriek pertsonen ongizatearen zerbitzura duten ahalmena erabat erabiltzea.
5. Etxea bultzatzea arretarako ohiko eremu gisa. Mendekotasunaren eta kronikotasunaren arretak, etxeko eremuan, ezinbestean egon behar du lotuta honako hauekin: gaixotasunaren humanizazioarekin, zerbitzuaren pertsonalizazioarekin, laguntza kualifikatuarekin, teknologia berrien aprobetxamenduarekin eta etxeko laguntzaren garapenarekin oro har, baita laguntza mailetakoa baliabide guztiekin itunak ezartzearekin ere.
6. Prebentzioa bultzatzea. Mendekotasunaren prebentzioaren garrantziak guztioi dagokigun gai bat dakar, eta bizimodu osasuntsua izaten hasteko motibatzen gaitu. Mendekotasuna lantzen duen edozein estrategiak detekzio eta tratamendu goiztiarrak azpimarratu behar ditu, arreta goiztiarreko programak indartuz. Hala, galarazi egingo da funtzionamenduaren defizita nagusitzea (eta ezintasun iraunkorra).
7. Trebakuntza, ikerketa eta berrikuntza bultzatzea gizarte-osasunaren arloan. Testuinguru berri honetan, ezinbestekoa da trebakuntza eta garapen profesionala osotasunean eta batera bultzatzea. Behar berriek trebezia eta gaitasun berriak behar dituzte. Funtsezkotzat jotzen dira zahartzearekin eta berrikuntza-eremuekin lotutako eragileen arteko koordinazioa eta baterako ekintzak eta itunak abiaraztea hain zuzen ere planteaturiko erronkei aurre egin ahal izateko.
8. Iruzuraren aurka, edozein motatakoa dela ere, borrokatzeko ezarritako kontrolak indartzea eta, behar izanez gero, berrikustea.
9. Euzkadin 65 urtetik gorako biztanleak %18 dira. Zahartzaroa ez dela gainbehera soila, aitzitik, aukeraz betetako aldia dela erakutsiko duten politikak bultzatu behar dira, eta zaharren jakintza eta esperientzia gure gizarteari helarazteko bideak ezarri.

D.2) LANGABETUAK GIZARTERATZEA ETA LANERATZEA ERRAZTEN DUTEN ZERBITZUAK

⇒ **Diagnostikoa:**

Enplegua da gizarte ongizatearen oinarrietako bat eta, hezkuntzarekin eta osasunarekin batera, gure gizarte ereduaren funtsezko egitura da. Are gehiago, egungo inguruabarretan gure kezka nagusia da enplegua.

Nahiz eta Euzkadiko lan-merkatuaren ezaugarriak direla-eta estatuko gainerako tokietan baino langabezi tasa txikiagoa izan, alertak eta gure kezkak beren horretan jarraitzen dute. Hartara, berehala jardun behar dugu, egoerari aurre egiteko politika eraginkor, zuzen eta iraunkorren bidez.

2011ko ekainean, 144.414 langabe zeuden EAEn, populazio aktiboaren %11 ia. Gazteen langabezia nabarmentzen da; izan ere, tasa hori bikoizten du: %23,7. Eustaten arabera, 16 eta 24 urte bitarteko 12.600 gazte aktibo daude lanik gabe EAEn. Nafarroan, langabezia tasa %13 ingurukoa da.

Euzkadin enplegua desagitea geldiarazi eta lanpostuak sortzen hasi behar dugu. Lanik gabe ez dago ongizate estaturik. Lanik gabe ez dago gizarte kohesiorik. Eta lanik gabe ez dago etorkizunik familientzat, gazteentzat eta erakundeentzat. Enplegu duina sortzea da gizarte politikarik onena eta, une honetan, lehentasunezko gizarte politika da.

EAEn enplegu politika aktiboak transferitzea, EAJ-PNVren ahaleginei esker lorturiko arrakasta, kontrako egoerari aurre egiteko eta enpleguaren sorkuntza dinamizatzeko aukera gisa ageri zaigu krisialdi egoera honetan. Horretarako, ezinbestez, Administrazioak zerbitzuak eta programak aldatu eta egokitu egin beharko ditu, eta berriak garatu, gaurko kudeaketak ez diolako erantzuten EAJ-PNVk lortutako arrakastari.

⇒ **EAJ-PNVren erantzuna**

1. Pertsonak eta aukeren kudeaketa eraginkorrak nagusi diren ereduak. Eredu horrek bermatu egin behar du langabetuek laneratzeko informazioa, orientazioa, prestakuntza eta laguntza egokia jasotzen dutela. Ikuspegi integralaren arabera landu behar dira zerbitzuak, pertsonengan oinarritua, eta epe ertainerako eta epe luzeerako planteamenduarekin.
2. Lan-merkatuaren etengabeko prospekzioa. Enpresen eta enplegu politikak kudeatzen dituzten erakundeen arteko harremanak handitu behar dira. Zerbitzuen hasierako fasetzat planteatzen da interakzio horretan sortzen diren aukeren eta beharren identifikazioa. Ezinbestekotzat jotzen da lan-merkatuaren

joerak eta sektore goranzkorren edo emergenteen agerpena ezagutzea enplegu-sorlekuak eta sinergia berriak identifikatzeko.

3. Merkatuaren beharrak betetzeko egokituriko eta bideraturiko zerbitzuak eta programak. Enplegu eta prestakuntzako berariazko programak garatzea kalterik handiena jasan duten taldeentzat: gazteentzat, emakumezkoentzat, 45 urtetik gorakoentzat eta aspalditik lanik gabe daudenentzat.
4. Ibilbideak integratzea, enplegua eskatzen duten pertsonentzat baliagarriak izan daitezkeen zerbitzuak eskaintzeko.
5. Kontratazio publikoko programak enplegararritasun arazo bereziak dituzten sektoreetara bideratzea.
6. Etengabeko trebakuntza-prozesuak eta ikaskuntza iraunkorreko programak bultzatzea eta laguntzea merkaturako funtsezko arloetan: Hizkuntzak, teknologia berriak, trebetasun teknikoak, etab.
7. Ahalik eta gehien baliatzea teknologia berriek eskaintzen dizkiguten aukerak. Eustaten informazioaren arabera, areagotu egiten da lana duten eta langabe dauden pertsonen arteko aldea arlo digitalean. Lan bila ari direnen %27k besterik ez du Internet erabiltzen.
8. Gizarte zerbitzuen eta enplegu zerbitzuen arteko programa koordinatuak. Osotasunean betetzea lanik gabe dauden pertsonen beharrak, laneratzeko prozesuan zentratzea ahalbidetzen dieten oinarrizko beharrak betetzea bermatuz, berme-errenta jasotzen dutenei lan merkatuan sartzea erraztuz. Enplegurako politika aktiboen arloko eskumena sartzeak aukera bikaina dakar gizarte zerbitzuen eta enplegu zerbitzuen arteko koordinazio egokia ezartzeko; izan ere, behar-beharrezkoa da eta berariaz agerrarazi behar da toki mailan.

D.3) ETXEBIZITZARAKO ESKUBIDEA BERMATZEA

⇒ Diagnostikoa:

Azken urteotako egoera ekonomiko zaila dela-eta, etxebizitza politikek errealitate berriari egin behar izan diote aurre: ekonomia eta finantza krisi sakonari. Testuinguru berriaren ezaugarri nagusiak dira administrazioak aurrekontuetan ezarritako murrizketak, langabezi tasa altuak eragindako zailtasunak eta neurri handi batean finantzaketarako zailtasun handiek higiezinaren sektorearen jardueran eragindako beherakada eta hartutako zorrak ordaintzeko arazoak, ematen ari den kreditu urria ahaztu gabe, aurrezki kutxena ere tartean.

Etxebizitza eskuratzeko modurik ez izatea da gizartearen arazo nagusienetako bat, eta pertsonaren ohiko garapenarekin eta pobrezia-aren kontrako borrokarekin lotutako beste eragozpen asko dakartza. Funtsezko zailtasunak dira, eta zailtasunok eta sortzen diren desberdintasunak leuntzeko lagungarriak izan daitezkeen gizarte laguntzen sistema eraginkorra gauzatu beharra dago.

Alde batetik, laneratzeko eta etxebizitza eskuratzeko zailtasunak dira bi eragozpen nagusiak gure gazteen emantzipazio-prozesua galarazteko edo zailtzeko. Arreta osoa eskaini behar diegu gazteei, gure etorkizuna baitira.

Etxebideren (Euskadiko Etxebizitza Zerbitzua) erregistroaren arabera, 95.000 pertsonak dute eskatua etxebizitza babestua EAEn. Etxebizitza jabetzan eskuratzeko zailtasunen ondorioz, gora egin du nabarmen etxebizitza errentan hartzeko joerak. Alokairuko etxebizitzaren eskaria Etxebideko eskabideen %68 da dagoeneko, baldin eta alokairua aukera bakarra nahiz etxebizitza erosteko edo errentan hartzeko aukera (bata zein bestea) gehitzen badugu.

Alde batera utzi behar ditugu “zozketan” oinarrituriko etxebizitza politikak. Ezinbestekoa da etxebizitza politika integrala sortzea eta abiaraztea, eragile sozialekin eta instituzionalekin neurri handi batean adostuta, etxebizitza behar duen populazioaren adin guztietako pertsona guztiek etxebizitza eskuratzeko baldintza errealistak errazteko eta sustatzeko, populazioaren sektore bat bera ere ahaztu barik.

⇒ ***EAJ-PNVren erantzuna***

1. Alokairuko etxebizitza babestuen kopuru nahikoa eratzeko, gure inguruko beste herrialde batzuetan dutenaren antzekoa, Euzkadiko etxebizitza babestuaren eskaria beteko duena.
2. Etxebizitza politikak finantzatzeko formula berriak ezartzea eta erabiltzea. Nazioarteko erakundeen eta finantza-erakundeen bidezko finantzaketa. Lehentasunez alokairuko etxebizitzak eraiki eta kudeatu nahi dituzten erakunde pribatuekin lankidetzan aritzea.
3. Gizartean baztertuta daudenek etxebizitza eskuratzeko modua errazteko berariazko planak egitea.
4. Hiri birgaikuntzarako eta birsorkuntzarako prozesuak bultzatzea, etxebizitza zaharrak eta lokalak egungo gizartearen erosotasun-estandarretara egokitzea ahalbidetu eta “guetto” diren eremuak sortzea galarazten dutenak. Udalek parte hartu behar dute prozesuan; izan ere, funtsezko eginkizuna bete behar dute hiri birgaikuntza eta birsorkuntzako prozesuotan, zeren ondo baino hobeto ezagutzen baitituzte birgaitu beharreko eremuak eta horiekin lotutako gizarte arazoak.

5. Etxebizitza babesten gero eta ehuneko handiagoa herri sustapeneko etxebizitzaren sustapen berrietarako dela ziurtatzea, baina aldi berean, babestutako etxebizitzaren gainerako kalifikazioen proiektuak ere aurrera eramaten direla bermatu behar da, talde guztientzako etxebizitzak jartzeko merkatuan haien diru-sarreraren arabera. Aldi berean, bestelako formulak sustatu behar dira, etxebizitza tasatua esaterako. Lagungarriak izan daitezke etxebizitza bat jabetzan eskuratu nahi izan arren merkatu librean ezin sartu daitezkeen eta diruz lagundutako etxebizitzak eskuratu behar ez dituzten pertsonentzat.
6. Hutsik dauden etxebizitzak mugiarazteko laguntzak ematea alokairurako zerga pizgarriak emanez.
7. Alokairu pribatua sustatzeko neurri gehiago, betiere etxebizitza bat alokairuan jarri nahi dutenen babeserako hobetzeko arautegi bat onetsita hasteko.

D.4) BERDINTASUNA ETA GIZARTE BABESA: PERTSONA GUZTIEN POTENTZIALA APROBETXATZEA

⇒ **Diagnostikoa:**

Pertsona guztien arteko berdintasuna bermatzea ere gizarte erronka nagusienetako bat da, pertsonen sexua, sexu-orientazioa, erlijioa, arraza edo bizilekua edozein direlarik ere. Erakundeetatik berdintasun politikak gehiago abiarazi behar ditugu mailarik gorenenean, eta lehentasunezko gaitzat jorratu behar dira.

Azken urteetan, nabarmen aldatu da Euzkadiko udalerrien demografia. Gure auzoetan, herrietan eta hirietan hartzen diren etorkinen kopurua handitu egin da. 2000n %1 besterik ez ziren etorkinak eta 2010ean, berriz, %7 dira EAEn eta %11 Nafarroan. Ahalegin eta erronka handiak dira pertsona guztien arteko gizarteratzea, gizarte kohesioa eta bizikidetzat, ez bakarrik hemen gelditu eta euren bizi-proiektua hemen garatzeko datozen atzerritarrentzat eurentzat, baizik eta harrerako gizarteentzat eta herri erakundeentzat ere bai. Erkidego bat eraikitzeke eta herrialde gisa etorkizunerako ikuspegi bat proposatzeko gure gizartean dauden eta izango diren pertsona guztien artean, ezinbestekoa da horiek pertsona guztiek guri dagozkigun gaietan eta erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartu eta bertakoak direla sentitzea.

Genero-berdintasunaren arloan, aurrerapenak gertatu dira Euzkadin; hala ere gizonen eta emakumeen arteko desberdintasuna gaur egun errealitate bat da. Hor ditugu, adibidez, gizonen eta emakumeen artean dauden soldata desberdintasunak, lanpostu berdinetan arituta ere. Oraindik bide luzea dago egiteko.

Guztiei dagokie gizarte inklusiboa eratzeke lana egitea, herritar guztiak berdintasunez hartuko dituen, bertakoak nahiz atzerritarrak. Pertsonen bizi-kalitate hobierantz egin

behar du aurrera gizarte ongizatearen aldeko apustuak, betiere berdintasunaren oinarritzko kontzeptuaren arabera. Horretarako, erakundeen eginkizuna zuzendu behar dugu gizarte zerbitzuen eremuan. Ongizateak eskubidea izan behar du herritar guztientzat.

Gizarte babes eta arretarako sistema funtsezko zutabea da esku artean dugun aktiborik handienean oinarrituriko ekonomia eta gizarte garapenaren eredia eraikitzeko: PERTSONAK.

⇒ **EAJ-PNVren erantzuna**

1. Bizikidetzaren sustatzea. Immigrazioaren arloan, gizarteratzearen eta gizarte kohesioaren funtsezko alderdietako bat jatorri eta kultura ezberdineko pertsonen arteko bizikidetzaren sustatzea da, betiere edozein jokabide eta jarrera arrazista eta xenofobo erabat gaitzetsiz; idiosinkrasia, ohitura eta jardun ezberdinen errespetua sustatuz, baina oinarritzko eskubide eta askatasunen eta ordena demokratikoaren kontra izan daitezkeen guztien kontra borrokatuz. Horrengatik guztiagatik, erakundeek errealitate espezifikoari egokituriko gizarteratze politiken lidergoa eramateko eta beste herri botere batzuekin lan egiteko eta koordinatzeko konpromisoa hartu beharko dute.
2. Migrazio politika bateratua bideratzea. Egungo testuinguruan, gure ustez, Europar Batasunak migrazio politikarako eredu komuna bideratu behar du, "errealista, arautua, enpleguan oinarritua eta gizarteratzeari begira". Immigrazioari buruzko Europako politika komun horiek, aldi berean, garapenerako lankidetzako politika komunetan ere izan behar dute euskarri, bien arteko konbinazioak baterako erantzukizuna baitakar.
3. Genero-desberdintasuna gainditzea, gizarte arazo nagusienetakoa baita gaur egun. Erronka nagusia gizonen eta emakumeen arteko eskubideen erabileran dagoen aldea murriztea da, emakumeek erabakiak hartzeko mailetan sartzeko modua dutela bermatuz eremu politiko, instituzional, ekonomiko, kultural, intelektual eta sozialetan, enpresetan, etab., benetako berdintasunaren bidean aurrera egiteko berme bakarra den aldetik.
4. Ahalegin guztiak indarkeria sexista amaitzeko. Gizartea emakumeenganako edozein eratako indarkeria gaitzetsi beharraz jabearazteko lana areagotuz eta indarkeria horren kontra banaka eta taldeka egiteko estrategiak eskainiz. Bereziki gazteen artean. Hori lortzeko, ekimenak indartu behar ditugu, indarkeria sexista non den jakitea eta kontra egitea ahalbidetzen duten tresnak eta baliabideak eratuz; hezkuntzan eta jokabide sexisten prebentzioan lan eginez eta eragortetako erasoen eta jokabide matxisten kontrako eginkizun aktiboa har dezaten bultzatuz.

5. Hirigintzaren arloko puntu beltzak desagerraraztea. Puntu beltzak edo seguruak ez diren tokiak desagerrarazten jarraitu eta emakumeen parte-hartzea bultzatu behar dugu, elkarleen bidez, hirigintza kontseiluetan, genero-ikuspegia hirigintza plangintzetan edo horien aldaketetan islatze aldera.
6. Erabateko gizarteratzea desgaitasunaren edo ezintasunaren arloan. Aurrerapen handiak izan dira araudietan, diru-laguntza publikoak sortu eta gizartea jabetuagoa dago, baina egia esan, ezindu gutxi daude laneratuta, eta hori da urrats nagusia erabat gizarteratu daitezen.
7. Eskubideak sustatzea. Jardun osagarri gisa, herri botereek inplikatzeko jarraitu behar dute edozein sexu-izaera, arraza eta sineste duten pertsonen eskubideak bermatzen, berdintasunaren eta errespetuaren balioa sustatuz eta gizarte inklusiboa lortzen lagunduz.

D.5) HAZKUNDE PERTSONALERAKO ETA GARAPENERAKO KULTURA

⇒ Diagnostikoa:

Azken urteotan ikusi ahal izan dugunez, kultura bere eginkizuna hasi da berriz ere definitzen ekonomiaren eta garapenaren aurrean. Gizartearen garapena eta gizarte kohesioa bultzatzeko duen garrantzia ukazina da, baita hainbat arlotan duen eginkizun garrantzitsua ere: kultur aniztasuna, gutxiengoen gizarteratzea, genero-berdintasuneko prozesuak eta hiriko eta landako erkidego baztertuen arazoa.

Kultura da gizarte eskari handietako bat gizarte aurreratu batean. Erakundeek eskari horri erantzuna emateko erantzukizuna dute, kulturaren adierazpen guztiei tokia emango dieten prozesuak eta guneak ahalbidetuz, batez ere sormena eta berrikuntza bideratzen dituztenak. Ezin ahaztu dezakegu kulturak dimentsio ekonomiko garrantzitsua duela, bereziki hirietan agerrarazten dena, eta hiri horiek hiriko turismoa eta talentu berri sortzaileak toki eta nazioarte mailan erakartzeko guneak bilakatzen dira.

EAEn, 234 euroko gastu publikoa izan zen kulturaren 2008ko ekitaldian biztanleko, eta guztizko inbertsioa 510 milioi eurokoa da, hots, EAE da kulturaren arloan gastu publiko gehien duten autonomia erkidegoetako bat, Suediaren eta Austriaren gastuaren parean.

Testuinguru horretan, kulturaren garapena eta kulturak dakartzan aukeren aprobeitxamendua sustatzeko neurriak gauzatu behar dira.

⇒ **EAJ-PNVren erantzuna**

1. Kalitatezko eta sentiera guztietarako kultur programazioak sustatzea eta ezagutaraztea.
2. Sormena eta sorkuntza artistikoa bultzatzea eta sortzaileei guneak eskaintzea jardun artistikoa garatu ahal izateko, batez ere gazteenei.
3. Ikastetxe eta kultur mugimendu pribatuekin eta elkarteekin batera lan egitea.
4. Gizarte eta ekonomia aktibo garrantzitsua den kultur ondarearen sustapen iraunkorra. Ustiapen iraunkorra da gure inguruko herrialde askoren sektore estrategiko nagusienetako bat. Kultur ondarea babestea eta zaharberritzea eta lurraldearen ikuspegi integrala duten proposamen berrien bidez aberastea apustu estrategikoa da, honako hauek dakartzana: gune turistikoak sortzea eta munduari irekitzea, herritarren autoestimua gauzatzea, unibertsitate mailako loturarako bitartekoa, herrialdeen eta eskualdeen hazkunde ekonomikorako aukera eta gizarte kohesioaren hobekuntza.
5. Kultura garapen ekonomikorako eta turismoa erakartzeko eragile gisa erabiltzea.
6. Eremu publikoa kultur jardueretarako erabil dadin sustatzea. Bertan kultur jarduera publikoaren bidez bultzatu eta zabaltzea behar dira errespetua, konfiantza, sormena, konpromisoa, nahasketa, elkartasuna eta erantzukizun partekatua bezalako balioak.
7. Euskarazko kultur edukien sorkuntza (kulturgintza), ekoizpena eta banaketa indartzea –nazioarte mailan ere bai–, euskara osotasunean bultzatzeko xedearen barruan. Euskal gizarteak ezaugarri jakin bat du: ondo zehazturiko nortasuna ematen diguten zenbait balio. Geure kultura eta geure hizkuntza, eremu guztietan balioetsi beharrekoak.

E) GOBERNU ONA

“Gobernu ona”ren esanahia jarduketa publikoarekin dago lotuta, printzipio eta helburu hauen arabera bideratzen den jarduerarekin:

- Garapen iraunkorreko printzipioak betetzea.
- Azpimarratu egiten da herritarrek administrazioaren erabakietan parte hartzea eta barne hartzea.
- Ahalik eta gardentasun eta zintzotasunik handiena bermatzea herri baliabideen erabileran.
- Bereziki azpimarratzea gizarteratze politikak.
- Informazioaren teknologien potentziala baliatzea, zerbitzuen prestazioa hobetzeko.
- Sektore publikoaren eta pribatuaren arteko itunak erabiltzea.
- Lankidetzat handia izatea beste administrazio batzuekin.
- Herri ekimenen berrikuntza sustatzea.

2011ko maiatzeko Euskobarometroaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren %69 ez dago pozik gure demokraziaren funtzionamenduarekin. Erakundeei buruzko balorazioa ere ez da ona, zenbat eta hurbilagoa izan orduan eta hobea da ordea. Herritarrek EAEko udalekin duten gogobetetasuna %39koa da; foru aldundiekin %32 eta Eusko Jaurlaritzarekin %19 besterik ez, Espainiako gobernuak baino 5 puntu gehiago besterik ez.

Etorkizuneko gobernuak etengabe egokitu eta eboluzionatu beharko dute balioa sortzeko; gizarte baliagarritasunarekin lotu behar da balio hori. Herritarren baldintza eta igurikapen aldakorrei erantzuna emateko duten protagonismoari eutsi beharko diote, baita gero eta konplexuagoa den errealitatean eraginkortasunez jarduteko ahalmena sustatu ere. Gobernuak gero eta F.A.S.T.ago izan behar dute (Flat, Agile, Streamlined and Technologically enabled), hots, hurbilagoak, bizkorragoak, eraginkorragoak eta teknologiaren aldetik ahalmen handiagokoak.

E.1) SEKTORE PUBLIKOAREN ERAGINKORTASUNA ETA PRODUKTIBITEA

ARRAZIONALIZATZEA ETA HOBETZEA

⇒ **Diagnostikoa:**

Herri administrazioak modernizatzen eta eraldatzen jarraitu behar du eraginkortasun eta kalitate handiagoan aurrera egiteko, herritarrentzat bideratuago egoteko, egungo gizartearen eskariari erantzuna bilatzeko. Gehiago eta baliabide gutxiagorekin egitea da egungo erronka.

Euzkadik aurre egin beharreko modernizazio kontzeptuarekin batera, erakundeak etengabe egokitzeko prozesua izan behar da, betiere aldaketak azpimarratuz, hots, Herri Administrazioak egunean etengabe jarri beharra esku artean dituen baliabideei eta baliabideen erabilera eraginkorrari dagokienez.

Enpresek beren antolakuntzan eta prozesuetan eboluzionatu duten bezala, herri administrazioak berrikuntzak ezarri behar ditu kudeaketa-eredu berrietara eta tresna berrien erabilera egokitzeko. Teknologia berriak sartzeak posibilitate berriak dakartza produktibitate, eraginkortasun eta kostuen murrizketaren aldetik. Egungo testuinguruan herri administrazioak hobetu funtzionatu eta gutxiago kosta behar zaigu. Azken finean, produktiboagoa izan behar du.

⇒ **EAJ-PNVren erantzuna**

1. Herritarrei eman beharreko zerbitzua hobetzea da EAJ-PNVk gobernuari buruz duen ikuspegiaren funtsa. Herritarrengandik hurbil egonik dagoen administrazioa denez gero, herri administrazioak herritarren beharrak eta igurikapenak ezagutu eta zerbitzuak horietara egokitu behar ditu, komunikaziorako bideak ezarri eta berrikuntzarako gaitasunak garatuz, zerbitzuetan bertan nahiz zerbitzuak emateko moduan.
2. Zorroztasun eta eraginkortasun irizpideak lehenestea. Herri politikak eraginkortasun irizpidea oinarri hartuta kudeatu behar dira eta, jakina, zorroztasun handienarekin jokatu behar da aurrekontuen aldetik eta ekintza publikoa beti eraundu behar duen austeritate printzipioa aplikatuz, are gehiago egungo egoeran.
3. Herri administrazioa modernizatzeko eta berritzeko politikak bultzatzea. Gizartearen betebeharrak hobeto beteko dituen administrazio eraginkoragoaren bidean egin behar dugu aurrera, administrazio irekiagoaren bidez eta kudeaketan gardentasunez jokatu eta erabakian hartzean gizartearen partaidetza duen administrazio baten bidez. Esku artean dituen baliabide mugatuen erabilera

eredugarria izango duen administrazio eraginkorragoa. Bide horretan aurrera egin behar dugula irizten diogu eta, horretarako, ondoko ildo hauek landu behar dira: Antolakuntzako egiturak egokitzea, administrazio-kargak murriztea eta prozesuak birsortzea eta hobetzea.

4. Erakundeen koordinazioa hobetzea. Herrialde txikia gara, gure historiaren eta foru lurralde bakoitzaren berezitasunaren ondoriozkoak diren hiru administrazio maila dituenak. Hiru administrazio mailak beharrezkoak dira, baina haien funtzioak eraginkortasun irizpidearen arabera banatu behar dira eta ahalik eta koordinaziorik handiena bermatu behar da.
5. Pertsona, hots, herritarra kokatzea Administrazioaren “erdigunean”. Herritarrak ez ditugu “administratuak” izatearen ikuspegi paternalistaren arabera hartu behar, “bezero”tzat baino, eta haien betebeharrak bete eta erantzun egin behar diegu. Eta are gehiago, “bezero arduratsu”tzat hartu behar ditugu, jasotzen dituzten zerbitzuen kostuak jakinaraziz.
6. Gobernuak plangintza estrategikoa. Plangintza estrategikoa da Euzkadiren “nabigazio-orria” zehazteko dugun gobernuak tresna. Plangintzaren bidez, herri intereseko arazoak nagusiak zehaztu eta hierarkiak eta lehentasunak ezar ditzakegu, betiere kudeaketarako estrategia, politikak, helburuak, xedeak eta kontrolerako metodoak zehaztuz.
7. Proiektuen diziplina handiagoa kudeaketan. Proiektu bakoitzaren eremuan eta maila globalean zuzendaritza, koordinazio, jarraipen eta kontrolerako organo egokiak ezartzeak indartu egingo ditu gobernuaren eraginkortasuna eta zerbitzuen etengabeko hobekuntza.
8. Lankidetzaren sustatzea. Lehiakortasun eta eraginkortasun helburuak lortzeko, erakundeetako mailen artean sor daitekeen lehiatik lankidetzarako jauzia egin beharra dago. Elkarren osagarriak izateko modua bilatu behar da, “lankidetzan diharduen administrazioa” kontzeptua garatuz. Horretarako, aurrera egin behar dugu lankidetzaren sareetako formulatan, teknologiak lagunduta eta irudimenezko proposamenak euskarri hartuta. Betiere eraginkortasunari begira. Ildo horretan, hainbat formula erabil daiteke hala nola udalerrak biltzea zerbitzuak emateko, azpiegiturak partekatzeko aukera edo baliabideen kudeaketaren koordinazioa. Funtsezko lankidetzaren da, gure erakundeei eska dakiekeen eraginkortasunean aurrera egiteko. Hori guztia baliabideak hobetzeko eta gerta daitezkeen bikoiztasun alferrikakoak saihesteko.
9. Euzkadiko Herri Administrazioak profesionalak gehiago trebatzea eta espezializatzea. Etengabeko trebakuntza aurrerapenerako funtsezkoa den aldetik. Enpresek beren antolakuntzan eta prozesuetan eboluzionatu duten bezala, herri administrazioak berrikuntzak ezarri behar ditu kudeaketa-eredu berrietara eta

tresna berrien erabilerara egokitzeko. Pertsonengan arreta berezia jarri behar duten berrikuntzak dira, zeren pertsonarik gabe ezinezkoa baita aldaketa oro.

10. Ahalduntzea: Erakundeek hazkunderako eta etengabeko aldaketarako prozesuetan parte hartzea nahi badugu, lan egin behar dugu, halaber, haien langileek modu aktiboan parte har dezaten etengabeko hobekuntzaren eta herritarrentzako zerbitzuaren helburuen lorpenean.
11. Iruzurraren kontrako borroka, dela zerga-bilketari dagokionez, dela gizarte laguntzak eta botere publikoek eskaintzen dituzten beste zerbitzu batzuk emateari dagokionez; eta gizarteari iruzurra orokortuta dagoela sinetsarazi nahi dioten estereotipoen kontrako borroka.
12. Politika publikoen ebaluazioa. Benetako demokrazian ezinbestekoa da politika publikoen ebaluazio gardena. Alde batetik, kontuak ematea beharrezko baldintza baita gobernuaren legimititaterako. Eta bestetik, ebaluazioa ezinbestekoa delako erabakiak hartzeko tresna gisa, aukera estrategikoak lehenesteko modua ematen baitu, planteaturiko helburuei eta herritarren benetako beharrei ondoen erantzuten dieten estrategiak hautatze aldera.

E.2) ADMINISTRAZIO HURBILAGOA, ABEGITSUAGOA ETA PARTE HARTZEKOA.

ADMINISTRAZIO DEMOKRATIKOAREN ALDEKO APUSTUA. GOBERNU IREKIA

⇒ Diagnostikoa:

XXI. mendeko herri administrazioek orain arte izan ez duten aldaketari egin behar diote aurre herritarrekiko harremanetan. “Administrazioa-administratua” eskematik “zerbitzuen eskaintzailea-eskatzailea” eredurako eboluzioa funtsezkotzat jotzen da agertoki berri honetan. Herritarrekin harremanetan izateko modu berria finkatzen ari da teknologia berriak nagusitzen diren heinean, gure zerbitzu publikoen kalitate hobea eskatu eta zerbitzu publiko berrien egituraketa sartzen den neurrian. Bereziki, erakundeak “K belaunaldi”ko gazteei egokitu behar zaizkie: Konektaturik, komunikatzen, edukietan zentratua, konputerizaturia, erkidegora bideratuta eta beti “klikatzen” ari den gazteria.

Informazioaren Gizartean, herri erakundeek ezin dute itxaron pertsonak eurengana hurbiltzea, baizik eta komunikazio aktiboko ikuspegia hartu behar dute, administrazioa pertsonengana hurbiltzeko. Teknologia berriek eskaintzen dituzten aukeren euskarria izan behar du komunikaziorako estrategia berriak; izan ere, zuzeneko komunikazioa, merkeagoa eta informazio bolumen handiagoa emateko gai den komunikazioa ahalbidetzen dute teknologia berriek.

Administrazio irekia, eskuragarria, eraginkorra, errealitateari egokitua, kalitate handikoa, gardena eta parte-hartzearen aldekoa lortzea da erronka. Teknologia berriek aukera handiak ematen dituzte administrazioaren eta herritarren arteko harreman zuzenagoak izateko, eta herritarrei parte hartzeko aukera ematen die bai administrazio produktuen diseinuan, bai produktu horiek eskuratzeko moduan eta are erabakietan ere. Hain aldaketa garrantzitsua bideratzeak ez du soilik forma ukitzen; sakonean ere badu eragina. Erakundeek euren gain hartu behar dute iraultza horrek dakarren konpromiso politikoa, horri aurre egiteko kultura eta antolakuntzaren aldetik gauzatu beharreko eraldaketari dagokionez. Oso aukera handiak daude, zerbitzuen aldetik, kostuen aurrezpenaren aldetik eta kalitate demokratikoaren hobekuntzaren aldetik.

Eusko Jaurlaritzak 1999. urtean Euzkadi 2000 programa abiarazi zuenetik, ekimen eta plan ugari bideratu dira euskal gizarte osoak internet eta teknologia berrien iraultzaren trena har zezan lortu ahal izateko, baita teknologia horien garapenean, erabileran eta aprobetxamenduan eragile nabarmen bihurtzeko ere. Aurrerabide handia egin dugu, baina oraindik gehiago hurbildu behar dugu beste herrialde batzuetara, Hego Korea edo AEBra esaterako. Edo Kanada edo Erresuma Batura; izan ere, NBERen e-gobernuari buruzko 2010eko txostenaren arabera, munduko liderrak dira arlo horretan.

⇒ ***EAJ-PNVren erantzuna***

1. Interneten egotea, euskarri eta tresna guztietan eta modu interaktiboan, herritarrek “zerbitzuak kartara” izan ditzaten lortzeko, behar dutenean, behar duten tokian eta moduan. Administrazio irekia etengabe, hots, “365 x 24 Administrazioa”.
2. 2.0 Interneten egoteko eredia ezartzea. Jada kontua ez da informazioak eta zerbitzuak soilik ematea. Teknologia berriek entzuteko, elkarriketan aritzeko eta parte-hartze demokratikoaren eta elkarlanaren bideak irekitzeko ere balio dute. Administrazio irekia, gardena eta parte-hartzearen aldekoa behar dugu.
3. Gobernu irekiak gardena izan behar du, eta gobernu ekintza kontrolatzeko, herritarrek parte hartzeko edota enpresa ekimenetarako baliatu daitezkeen informazio guztiak herritarren eskura jarri behar ditu. Eta kostu txikiarekin eskuratu eta berriz erabili daitezkeen formatuetan eskaini behar da informazio hori: Open Data.
4. Herritarren parte-hartzeak gobernu ekintzaren erreferente eta helmugetako bat izan behar du. Horretarako beharrezkoa da herritarrekiko etengabeko elkarriketa, elkarlana eta gobernu ekintzaren kontrola errazten dituzten tresna, bide eta plataforma guztiak erabiltzea.
5. Antolaketaren aldetik ahalegin handia egin behar da gobernu irekia ezartzeko: lan prozesuak egokitu, administrazio egiturak erraztu, elkarlanean oinarritutako lan

ereduak ezarri, eta komunikazio bide berriak ireki. Informazio administratiboak sistema elkarreragingarriak eta kode irekikoak erabili beharko ditu, datuak berriro erabiltzea ahalbidetzen dutenak, ekintzailtza sustatzeko: Open Source

6. Gobernu ireki, parte-hartzaile eta demokratiko bati eragozpen gehien sortzen dion arazoetako bat leize digitala da, hots, teknologia berrien erabileraren inguruko zailtasun fisiko, intelektual edo teknikoen multzoa. Horregatik, benetan irekia den gobernuak herritar guztientzat eskuragarriak diren euskarriak erabili behar ditu, eta, bakoitzaren gaitasun fisikoak gorabehera, guztiei bermatu behar die Internetarako sarbidea izatea kalitate teknikoarekin eta kostu txikiarekin, eta bereziki ahaleginduko da herritar guztientzako alfabetatze digitaleko programetan, batez ere hezkuntzari eta adineko pertsonen begira.
7. On-line administrazioa erabiltzeko modua hobetzea, zerbitzu erakargarriak eta ulertzeko, ikasteko eta erabiltzeko errazak diren zerbitzuak eskainiz.
8. Elkarreragingarritasunean aurrera egitea funtsezkoa da IKTen ahalmen ekonomikoa eta soziala ahalik eta gehien baliatzeko eta leihatila bakarraren helmugara iristeko. Aurrerabide hori eraginkorra izango da soilik plataforma eta estandar irekietan oinarrituz gero.
9. Euzko Alderdi Jeltzaleak Gardentasunaren Legea bultzatuko du. Lege horrek, ahalik eta adostasunik handiena bilduta, Gobernu Irekiaren ekimenen egonkortasuna eta iraupena segurtatuko ditu, eta herritarrek informazioa eskuratzeko dituzten eskubideak, parte-hartze demokratikoa eta Administrazioaren datuen berrerabilera bermatuko ditu.
10. EAJ-PNVren lehentasuna izango da leize digitala gainditzeko behar diren politika eta programa berariazkoak sustatzea, bai eta egitura eta prozesu administratiboak gobernantza modu berriei egokitzea xede duten funtzio publikoko politikak ere.

E.3) AUTOGOBERNU FISKALA

⇒ **Diagnostikoa:**

Zerga politikak datozen lau urteetan bete behar duen eginkizunari buruzko gogoetan, lehenik eta behin, zerga politika horrek erantzun egokia emateko aurre egin beharreko erronka nagusiak aipatu behar dira.

Hala, finantzen eremuaren aldetik, euskal erakundeek finantzen egoera datozen urteetan zedarrituko duten lege nagusien beharrezko negoziazioa izango dugu, Kupoaren Legea eta Ekarpenen Legea, hain zuzen ere euskal ekonomia pixkanaka

suspertzen ari den testuinguruan, krisialdi sakonaren ondotik. Hori dela-eta, 2011rako aurreikuspenak 2006an lorturikoak baino txikiagoak dira oraindik sarrera publikoen bilketan, eta epe laburrean ez da aurreikusten zerga sarreraren igoera nabarmenik. Gainera, gastuen aldetik zenbait tirabira ditugu, ongizate estatuari eusteko gero eta handiagoak diren eta krisi ekonomikoak agerian utzi dituen beharrek eragindakoak, batez ere gizarte politiken arloan. Beraz, oso nekeza da aurrekontuen egonkortasuna lortzeko helburuak behar bezala betetzea.

Horrexegatik, zerga politikak lortu beharreko betiko helburuez gain (berdintasuna eta eraginkortasuna), datozen urteetan arreta berezia jarri behar dugu garrantzi bereziko bi helburutan: nahikoa aurrekontua izatea eta ekonomia suspertzea. Datozen ekitaldietarako gauzatu behar dugun zerga sistemak nahikoa baliabide eman behar ditu euskal administrazioei exijituriko gastuei aurre egiteko eta, gainera, ekonomia suspertzen, aberastasuna sortzen eta enplegua berreskuratzen lagunduko duen agertokia erraztu beharko du.

⇒ **EAJ-PNVren erantzuna**

1. Egungo zerga eredua berrikustea eta eguneratzea, betiere euskal erakundeek gaur egun arauen aldetik duten eskumeneko zergak ardatz hartuta.
2. Zeharkako zergapetzea lehenestea 2012-2016ko bost urterako Kupoaren Legearen negoziazioan, funtsean Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta Zerga Bereziak.
3. Gure erakundeek zergen arloan garrantzia duten nazioarteko foroetan bultzatzen eta eztabaidatzen ari den fiskalitate global berria sortzeko parte-hartze handia beren gain har dezaten bultzatzea, hots, Europar Batasunean eta OCDEn, finantza eta ingurumen fiskalitatearen eremuan. Horretarako, beharrezko aldagetak bultzatu behar dira prozesu horretan dugun protagonismoa aintzatesten duen hitzarturiko testuan. Europar Batasunaren Ekonomia eta Finantza Gaietarako Kontseiluan (ECOFIN) partaidetza indartuz, gure interesen alde egiten dela bermatzeko Europar Batasuneko ekonomia eta zerga politikak gero eta gehiago biltzeko testuinguruan.
4. Iruzur fiskala errotik desagerraraztea. Premisa bat bete behar da nahikoa aurrekontu izateko, errentak banatzeko eta ekonomia suspertzeko zerbitzua emateko helburuak betetze aldera: zerga iruzurra errotik desagerraraztea. Izan ere, euskal erakundeek betidanik bideratu dituzte ahalegin handiak apustu horretan, eta iruzurra egiten dutenak atzeman eta jazartzea erabateko lehentasuna da.
5. Gobernantza oneko jardunak ezartzea zergen eremuan, zerga sistemen funtzionamendu egokia hobetzeko tresna gisa. Europa mailan bezala,

berdintasun, ahalmen ekonomiko, banaketa eta ekitate printzipio klasikoak zerga-erreforma sistemetako prozesuetan sartu bakarrik ez, bestelako kontzeptu batzuk ere sartu behar dira hala nola administrazioen arteko lankidetzeta eta koordinazioa, bateratzea, informazio-truke bizkorra eta eraginkorra, zerga administrazioen arteko helburu komunak lortzea (iruzurraren eta zerga-ihesaren kontrako borroka), e-Administrazioa, elkarreragingarritasuna, zergadunek bete beharreko kostuak murriztea, elkar aintzatestea eta hainbat eremutako zerga administrazioen arteko konfiantza eta laguntasuna.

E.4) LURRALDEAREN ERABILERA OREKATUA ETA INGURUMENAREN BABESA

⇒ Diagnostikoa:

Lurraldearen antolamendu egokia da abiapuntua natur baliabideak eta biodibertsitatea zaintzeko.

Garapen iraunkorraren lehentasunezko helburua proiektu bideragarriak zehaztea eta triangeluko hiru "E"ak bateratzea da: Giza jardueren alderdi ekonomikoak, ekologikoak eta gizarte berdintasuna.

Azken boladan, metropoliak hedatzeko hirigintza joerak lehenetsi dira eta, ondorioz, lur gehiago hartu eta garraio azpiegitura handiagoa eta energia kontsumo handiagoa behar izan dira. Agerikoa denez, ez da hirigintza eredu iraunkorra. Gainera, sakabanaketa-eredu horrek kaltetu egiten ditu maila ekonomiko txikiagoko pertsonak eta familiak, hiriguneetatik edo jarduera ekonomikotik urrun dauden eremuetan bizi baitira, eta modu artifizialean igotzen ditu mugikortasunaren kostu pribatuak eta sozialak.

Etengabe bilatu izan du EAJ-PNVk herrialderako gure ereduaren iraunkortasuna. Jakin badakigu ez duela merezi etorkizunerako garapenik lortzea gure ingurumena eta gure gizarte-ekonomiaren oreka zaintzeko gai ez bagara. Gure gizarteak aurrera egin behar du naturarekiko oreka bilatu nahian, eta lan garrantzitsu hori egin izan dute baserritarrak eta landa inguruetak udalerriak bezalako eragileek eta euskal aldundiak eta udalak bezalako erakundeek. Hala, lagungarriak izan dira gure herritarrekin batera herrialde modernoak eraikitzen, ongizate maila handikoa, baina aldi berean, landa eta natur ondare aberatsa eta askotarikoa eta gizarte egitura orekatua duen herrialdea.

Euzkadik jarraitu egin behar du iraunkortasunaren bidean: lurralde ahalik eta ekologikoena lortzeko ekimen gehiago bultzatu behar dira eta herritarrak kontzientziazten segitu behar da. Proiektu handiak egiten dira eta ahalegin handiak eskatzen dira, baina oraindik puntu beltzek badiraute Euzkadin, eta horietan sendotu egin behar dira ekimenak. Industriak lurraldea hartzen du, garraioak nahi baino gehiago kutsatzen du eta errekek laguntza handiagoa behar dute garbitzeko. Industria tradizioko zenbait herritan, neurri iraunkorrak gauzatu behar dira.

⇒ ***EAJ-PNVren erantzuna***

1. Ekonomia eta gizarte garapenerako eredu egokia sustatzea. Eredu horretan ekologia eta ingurumena eta lurraren erabilera, etxebizitza, industria eta mugikortasuneko jarduketak guztien plangintza ezinbestean bateratu behar ditugu. Trinkoa eta zuzkiduren aldetik orekatua den hiri-eredua bultzatu behar da, hiri hedapenari mugak jarritz eta hirien diseinuak ekoeraginkortasun irizpideak oinarri hartuta sortuz, bizitegi eremuak produkzioarako eta jarduera ekonomikoetarako eremuetatik hain urrun egon barik eta mugikortasuna erraztuz. Horretarako, lehentasuna emango zaio garraio publikoari eta oinezko eremu gehiago sortzeari. Eredu hori lagungarria da gizarte kohesiorako, zeren eta lurraren antolamenduak benetako zentzua hartzen baitu hiria zentzurik sakonenean sortzeko ikuspegitik, hiriaren tamaina alde batera utzita.

2. Lurralde eko-inteligentea kontzeptua balioestea. Energia eta baliabideak aurrezteko teknologia inteligenteak aplikatzen direneko lurraldeari deritzo, eta hartara, iturri berriztagarrietan oinarrituriko energiaren ekoizpena sustatu, emisioak murriztu eta hondakinen kudeaketa egokia izan behar da.

“Smart city” edo hiri adimentsuaren eredua bultzatzea. Eredu horretan IKTak erabiltzen dira hirien energia-kudeaketa eraginkorrerako, eta lehiakortasuna hiri garapen iraunkorarekin uztartzen da.

3. Bizi kalitatea bultzatzea. Informazioa duen gizarteak izan behar du lurralde eko-inteligenteak, iraunkortasunaren arloan baterako erantzukizuna duena eta tokiko natur aberastasunaren eta aniztasunaren berri duena. Hori guztia bizi-kalitate hobea lortzeko, betiere Euzkadik nazioarte mailan irudi ona izateko eta gure enpresen lehiakortasuna hobetzeko lagungarria izango dela ahaztu barik.
4. Etxebizitzak birgaitzearen aldeko apustua. Garapen iraunkorreko eredu batean, etxebizitzarako eskubidea ere ez da beste arlo batzuekin zerikusia ez duen eremutat hartu behar, zeren eta, etxebizitza gehiago sortzen baditugu testuingurutik kanpo, hiriari eraso egingo baitiogu eta hiriari datxezkionak zaildu edo galarazi egin baititzakegu hala nola mugikortasuna, irisgarritasuna, ingurumenaren kalitatea edo bertan bizi direnak baztertuak izatea. Horregatik, birgaikuntza lehenesten dugu eta ez eraikuntza.
5. Eraikuntza iraunkorren aldeko apustua egiten dugu: eraikuntza sistema osoa aldatu behar da prozesu berrien bidez, material eraginkorrak baliatuz eta energia berriztagarriak gehiago erabiliz, eraginkortasun energetiko handiko eraikinak izateko.
6. Mugikortasun-eredu integratua eta iraunkorra, ingurumena errespetatzen duena. Horretarako, ibilgailu pribatua murriztu eta garraio publikoak, oinezkoen eremuak eta bizikleta eta beste garraibide ekologikoak modu egokian erabiliko dituen

hirigintza diseinua lehenetsiko ditugu. Garraioa balio estrategikoko sektorea da, gizarte eta lurralde kohesiorako ahalmena duena. Garraio seguru, kalitatezko, eraginkor eta iraunkorreko eredu baterantz jo behar dugu.

7. Trenbide sistema bultzatzea eta modernizatzea, Euzkadiko mugikortasunaren oinarria izan behar duena, lurraldearen barruan nahiz kanpoko herrialdeekiko loturan. Abiadura Handiko Trena eta aldirietako trenbideak izango dira, funtsean, pertsonen zein merkantzien garraio publikoa, eta gainerako garraio publikoen sistemekiko intermodalitatean oinarrituko da haren koordinazioa.
8. Hiriko eta industriako hondakinak banatu, bildu, gaika batu eta tratatzeko sistemak hobetzea, emisioen eta hondakinen kontrolean aurrera egitea, energi eraginkortasuneko neurriak ezartzea, gune publikoetan eta pribatuetan energia berriztagarrien erabilera sustatzea eta ura aurrezteko planak garatzea, hornidura-sareen hobekuntzak barne dituztela.
9. Landa eta natur paisaiaren, biodibertsitatearen eta oreka ekologikoaren babesa bultzatzea. Babestutako guneak eta parke eta berdeguneak hobetzea eta garatzea gure herri eta hirietako airea garbitzeko gune gisa.
10. Iraunkortasunaren aldeko apustuaren enpresa dimentsioa bultzatzea. I+G+B arloan liderrak diren eta nazioartean zabaldu duten enpresak dituen sektore ekoindustrialia dugu, ekomerkatuaren potentziala balia dezakeena, batez ere garapen iraunkorreko estrategiei ekiten hasita dauden herrialde goranzkorretan edo emergenteetan.
11. Lurrari lotutako nekazaritzako jarduera bultzatzea, paisaia eta natur ingurunea zaintzen dituen eragile nagusia den aldetik. Udalerrri txikiei babesa ematea euren landa izaerari eutsi diezaioten eta lurralde-oreka zaintzen lagundu dezaten.

E.5) GARDENTASUNA ETA PARTE-HARTZEA

⇒ Diagnostikoa:

Herria ordezkatzan duen demokrazian, herritarrek gero eta inplikazio txikiagoa dute politikagintzan. Erronka global berriei erantzuna emateko sortzen da herritarren parte-hartzea, betiere herritarrei etengabe galdetzea oinarri hartuta, gizarte eskariei egoki erantzuteko. Euzkadin herritarrek ordezkatzeko demokrazia berriak gardentasun, autokritika, elkarriketa, kalitate, sormen eta berrikuntzaren inguruko helburuak ditu. Parte hartzeko mekanismoak dakartzaten elkarriketa eta erabaki prozesuak lagungarriak izan daitezke negoziazioaren eta bateratzearen kultura hedatzeko gure gizartean.

Teknologia berriek, gaur egun, herritarrekin hurbilago interakzioan jarduteko modua ematen diote herri administrazioari, eta parte-hartzean eta demokrazian oinarrituriko eredia garatzea ahalbidetzen du. Gobernuan teknologia berriak erabiliz, administrazio gardenagoa, eraginkorragoa eta parte-hartzaileagoa garatzeko modua dago.

Azken urte hauetan, arrakastaz burutu dira Euzkadin herritarrek parte hartzeko hainbat esperientzia. Erakundeek parte hartzeko mekanismoak sustatzen jarraitu behar dute, solaskidetzak irekia eta iraunkorra atxikiz, dela gizarte eta ekonomia taldeak ordezkatzeko dituzten erakundeekin bitartez, dela zuzenean herritarrekin.

EAJ-PNVk uste du publikotasuna gobernatzeko eta politika egiteko modua aldatu dela, onerako eta behin betiko. Parte hartzearen politika gure gizartera gurekin gelditzeko iritsi den iraultza da. Horren aldeko apustua egiten dugu argi eta garbi. Eredu mota guztiak hartzen ditu partaidetzak: herrialde mailan egoera politikoa konpontzeko ekimenetatik hasi eta gure herri eta hiriek hobeto funtzionatzeko erabaki txikietaraino.

Gainera, EAJ-PNVk zuzendutako erakundeek gobernu ekintzaren oinarritzko printzipioak dira gardentasuna eta etika; baina ez hori bakarrik: oposiziotik gure lana bete dugun erakundeetan egin ditugun eskakizun nagusienetako bat ere bada.

⇒ **EAJ-PNVren erantzuna**

1. Politika publikoen baterako eraikuntza eta baterako ekoizpena sustatzea. Gizarte modernoetan eta irekietan, eraikuntza dinamiko baten bidez gertatzen dira aldaketak politikoak eta gizarte hobekuntzak, eta prozesu horretan, herritarrek erabakiak hartu eta errealtate politiko berriaren pixkanakako instituzionalizazioa bultzatzen dute. Horregatik, politika publikoen baterako eraikuntza eta baterako ekoizpena sustatzen du EAJ-PNVk. Baterako eraikuntzak berekin dakar gizarteak politiken kudeaketari buruzko erabakien sorkuntzan (helburuak eta erregulazio bitartekoak eta finantza bideak zehaztea) eta erabakietan (administrazioa, prestazioa eta ebaluazioa) parte hartzea. Baterako ekoizpenak, berriz, gizarteak politika horiek abiaraztean parte hartzea eskatzen du.
2. Arazo korapilatsuei baterako erantzunak eskaintzeak inoiz baino gehiago eskatzen du elkarriketaren politika berreskuratzea, funtsezkoa demokrazian. Badirudi administrazioa demokratizatzea eta elkarriketari eta eztabaidari funtsezko eginkizuna ematea dela gure gizarte berriaren arazo berriei benetako konponbiderako oinarritzko bidea, konponbideak modu aktiboan eta batera eraikiz.
3. Euzkadi “kode irekiko lurralde” bihurtzea. Datu publikoak irekiz eta kode irekiaren kontzeptua erabiliz, herritarrek informazioa eskuratu eta tresnak erabili ditzakete toki mailan erabili ahal izateko. Sareak ahalbidetzen duen pertsonen arteko lotura horizontalari eta informazioa eskuratzeari esker, kudeaketa publikoaren kontrol deszentralizatuagoa lor daiteke.

4. Kontuak ematea bultzatzea. Gobernuak beren jarduketan gaineko kontuak nahitaez eman beharra beharrezko printzipioa da partaidetza lortzeko, erakundeek eurek edo herritarrek sortutako gardentasun-guneen bidez betiere. Horregatik, herritarrei interesa zaien informazio publikoa, kudeaketaren kontrola eta herri kontuak herritar guztiek eskuratzea ahalbidetzeko eta errazteko beharrezko tresnak, arauak eta prozesuak zabaltzeko konpromisoa hartzen dugu.
5. Informazioa eta parte-hartzea erraztea. Herritarren ikuspegia eta beharrak kudeaketa publikoan sartzeko beharrezko tresnak, arauak eta prozesuak zehaztea eta zabaltzea hitzartzen dugu.
6. Herritarrek parte hartzeko prozesu inklusiboak abiaraztea erraztea: pixkanaka sartuko dituzte IKTak zein presentziazko tresnak, herritarren eta herri administrazioen arteko harreman moduaren aldaketari egokitzeko erronkari aurre egiteko era egokia den aldetik.
7. Elkarreak bultzatzea gizartearen parte-hartzea sustatzeko. Herritarrek ordezkatzen dituzten elkarreak eta gizarte eragileak ere ekarri behar dira partaidetzara.

F) EUZKADI MUNDUAN

Lurraldeak “agertoki” hutsak izateari utzi eta gure enpresen lehiakortasunean “eragile” erabakigarriak bihurtu dira, baita gizarte osoaren ongizatearen garapenean eta hobekuntzan ere.

Mundu osoko nazioetako eta eskualdeetako gobernuak ahalegin handiak egiten ari dira nazioarte mailan kokatzeko, aukera berriak baliatzeko eta zuzeneko atzerriko inbertsioak erakartzeko, haien ekoizpen-sarea berritu eta dibertsifikatzeko aldera. Horregatik, erakundeetan jarrera aktiboa hartu behar dugu, Euzkadi mundura irekitzeko erronka garrantzitsuei aurre egiteko.

Erronka hori Euzkadi ahalik eta gehien bultzatzea lortzea da munduari irekitako ekonomian, baina helburu horretarako, egungoa bezalako agertoki lehiakor batean pribilegiozko posizioa lortzera eramango gaituen estrategia zehaztu eta garatu behar da.

F.1) NAZIOARTEAN LEKUA IZATEA

⇒ Diagnostikoa:

Nahiz eta Euzkadi bere irudia nazioarteko testuinguruan sortzea lortzen ari den, lanean jarraitu behar dugu irudi hori aurkezpenerako elementua izan dadin eta gure pertsonak eta enpresak munduan kokatzen lagungarria izan dadin.

Azken batean, baliabideak erakartzen lagunduko diguten elementuak are gehiago indartzea ere bada xedea, edo hala denean, elementuok eraikitzea, baita nazioarteko itunak eta lankidetzak sustatzea ere, lehia eta aukera globalen ingurune batean.

Euzkadik kanpoan dituen ordezkariak Euskal Herrirako kanpoko politikarako oso tresna garrantzitsu bilakatu dira, euskal enpresak nazioarte mailan zabaltzeko funtsezko laguntza. Izan ere, besteak beste Euzkadiren irekiera globalerako helburu nagusiak betetzea ahalbidetzen du hala nola zuzenean parte hartzea nazioarteko ordenamenduan, Euzkadik kanpoan kokapena hartzea subjektu aktibo lez, edo kanpoko ekintza bultzatzea, Eusko Jaurlaritzarena nahiz beste euskal erakunde batzuenak.

EAJ-PNVk Eusko Jaurlaritza zuzendu zuen garaian euskal ordezkariak kopuru handia ireki zen atzerrian. 2008an 11 ordezkariak zituen EAEk kanpoan. Gainera, beste bi zeuden proiektaturik, Finlandiakoa eta Italiakoa. Gobernu sozialistaren nazioartekotze politika berriak, dirudienek, ez du ordezkariak garrantzia aintzat hartu, eta ordezkariak eta horien aurrekontua murriztea erabaki du. EAJ-PNVk erakundearen burutza azken hogeita hamar urtean garatu duen nazioartekotze-lana dagoeneko ez da lehentasuna gobernu berriarentzat.

⇒ EAJ-PNVren erantzuna

1. Euzkadi munduari erakustea, etengabeko presentzia aktiboa izatea eta irudi positiboa islatzea. Orain artean, indarkeria terroristagatik ezagutu izan gaituzte soilik. Euskaldunok garenaz eta egiten dugunaz benetako irudia eta irudi positiboa emateko unea iritsi da. Euzkadi munduko testuinguru globaletan txertatzeak inoiz baino gehiago behar du konfiantza eta konpromisoa eskaintzen dituen lidergo instituzional ekonomikoa eta soziala. Euskaldunak eta euskal enpresak lehiakorak izatea behar dugu agertoki irekian eta globalizatuan.
2. Gure nazio nortasuna indartzea, zuzeneko presentzia izanez alde anitzeko erakundeetan eta nazioarteko foroetan, gure intereseko eta eskumeneko gaitan. Bereziki, jakina, Europar Batasuneko erakundeetan, ECOFINen lorturikoaren ildotik.

Euzkadiren eta estaturik gabeko nazioen arteko harremanak areagotzea, European nahiz munduan, batez ere autodeterminazio eskubidea hurrengo urteetan agendan edukiko duten herriei, politika, ekonomia, gizarte, kultura eta hizkuntza gaitan trukeak eginez.

3. Euzkadik lehentasunezko aldian aldiko harremanak ezarri behar ditu abangoardiako gobernuekin eta herrialdeekin, nazioarte mailan nahiz etorkizuneko politiketan. Aurrera egiteko erabaki sendoa hartu dugu, hezkuntza eta ekonomia eredua hobetzeko, modernizazioa sustatzeko, iraunkortasuna bermatzeko eta ongizatea bultzatzeko, eta hori beste herrialde batzuekin batera egin daiteke. Geure nortasuna eta geure balioak ekarrita betiere.
4. Atzerrian euskal sarea berreraikitzea, enpresak, pertsonak eta erakundeak nazioartekotzeko eta Euzkadiren irudia kanpoan erakusteko baliagarria izango dena.
5. Atzerriko euskal enpresaburu-sarearen eta beste erakunde publiko eta pribatuen arteko itunak ezartzea.
6. Diasporak Euzkadi nazioartean zabaltzeko duen faktore estrategikoa indartzea, garaturiko indarrak baliatuz eta Euskal Erkidego Globalaren hazkundera sustatuz eta sare bat garatuz, ez bakarrik ekonomia eta enpresa mailan, baizik eta gizarte, hezkuntza eta kultura mailan ere bai.

Euzkadiren eta diasporaren arteko harremanetan sakontzea, Euzkadi European eta munduan ezagutarazteko funtsezko estrategiaren barruan.

Euskal diaspora euskal herriaren parte da, eta rol aktiboa izan du, eta badu oraindik, Euzkadiren nazio eraikuntzan.

F.2) "EUKADI" MARKAREN KOKAPENA NAZIOARTEAN

⇒ **Diagnostikoa:**

“Herrialde-marka estrategia” deritzo herrialde baten bizitzaren berezitasunak erabiltzeari, gizarte zibilak, iritzi publikoak eta nazioarteko hedabideek herrialdeari buruz duten irudian eta irudipenean eragiteko tresna den aldetik. Horri esker, herrialdeak atzerrian duen ospea handitu eta mundu mailako sisteman duen posizio politikoa eta lehiakortasun ekonomikoa hobetuko da. Herrialde-marka strategiaren xedea da herrialde irudi bat sortzea eta transmititzea (aktibo ukiezina), eta horrekin batera, nazioko azpimarkak biltzen dituen herrialde-markarekin batera doana (logotipoa, eslogana eta leloa).

Nazioarte mailako sistemaren barruan lehiakortasunez kokatzeko eta bereizteko lurralde bati, nazio nortasun bati, baliagarri zaizkion komunikazio elementuen multzoaren adierazpenari deritzogu, beraz, “herrialde-marka”. Horrelako estrategia bat ezartzea lurraldearen faktore bereizleak aipatzean datza (produktuak, ikonoak, tokiak, pertsonaiak, artea, kultura, euskara, enpresak, balioak, erronkak), zertarako-eta herrialdearen ildo estrategikoetan modu positiboan jarduteko.

Herrialde-markak funtsezko eginkizuna betetzen du “ekonomia desmaterializatuan”, non jakintzaren pisuak ematen dien balioaren zati handi bat produktuei eta zerbitzuei. Ekonomia desmaterializatu horretan, oso garrantzizkoa da kapital ukiezina, sinbolikoa, soziala eta harremanetakoa, kontzeptu honen bidez laburbil daitekeena: “botere biguna” edo “soft power”; izan ere, marka kontzeptua horren barruan sartzen da.

Herrialde-marka sendoa duten herrialdeek funtsezko lehia-abantaila bat daukate euren enpresak nazioarte mailan are gehiago garatzeko; aukera komertzialak handitzeko; beren irudia hobetzeko; turismoa, talentua eta inbertsioak erakartzeko eta herrialdearen garapen iraunkor eta kohesionaturako lagungarriak diren interesak eta konplizitateak sortzeko. “Love-brands” deritzon ikuspegi ahaltsua dugu herrialde-marka sortzean, hots, lagunarteko marka, maitemintzen gaituen marka, eta publikoak horietatik hurbil sentitu nahi du, zintzotasunagatik eta erkidego berezi batekoa dela sentitzeagatik.

Euzkadik nahikoa ahalmen eta elementu ditu herrialde-marka propioa eta estrategia integrala mendekotasunik gabe garatzeko.

⇒ ***EAJ-PNVren erantzuna***

1. Euzkadiren kokapena hobetzea. Gure herrialde-markaren definizioa lantzeko, Euzkadik munduan egun duen kokapenaren irudi zehatza lortu behar da. Beraz, lehenik eta behin gutaz duten irudipena zein den jakin behar dugu Prozesuaren xedea da benetan transmititzen dugunaren eta transmititzea gustatuko litzaigukeenaren arteko aldea ikusaraztea, ondoren gure herrialde irudiaren ezaugarri erakargarri garrantzitsuak zein diren bilatzeko eta adosteko.
2. Parte hartuz jardutea. Kontua ez da gauzak inposatzea, baizik eta gizartearekin batera eraikitzea euskaldun gehienok identifikatzen garen ezaugarriak dituen marka. Baina batez ere marka hori herrialdea saltzeko lagungarria izan dakigula lortu nahi da. Horregatik, erakunde, ekonomia eta gizarte eragileekin batera gogoeta gauzatuta egin behar zaio aurre prozesuari, Eusko Jaurlaritza buru dela.
3. Estrategia zehaztea. Gure herrialde-markaren estrategiak komunikazio elementuen aniztasunetik eratu beharra dago, erabili beharreko eremuetan garatzeko nahikoa malgutasunarekin (turismoa, gure enpresak nazioartean

zabaltzea, nazioarteko lankidetzaz, berrikuntza-sareak edo talentuak erakartzea) modu iraunkorrean eta hainbat ekintza eta esperientzia baliatuz.

4. Euzkadirako herrialde-markaren ezaugarriak bultzatzea. Marka eratzean, ahal dela, Euzkadiren ezaugarriek izan behar dute oinarria; gure nortasuna, aniztasuna, gure kultura, euskara edo gure bizi-kalitatea.
5. Barne komunikaziorako prozesuak erraztea. Gure herrialde-markak ere barrurantz ere begiratu behar du: euskal gizarteak oro har ezagutu egin behar du, hartaz harro egon eta sustatu, nork bere jarduketa-esparruan.
6. Jardun iraunkorra izatea. Nazio mailako behin betiko lehia-ospe positiboa eraiki eta atxiki ahal izateko, epe luzerako marketin eta kokapen estrategia zehaztu beharra dago, Euzkadi eremu guztietan saltzeko modua izateko. Herrialde-marka baten kokapenak, marka komertzial baten moduan, denbora behar du.
7. Gure “enbaxadoreen” euskarria baliatzea. Komunikazio estrategia horretan, oso eginkizun garrantzitsua bete beharko dute Euzkadiren irudiaren eta gaitasunen enbaxadore gisa diharduten euskaldun ospetsuek. Enpresa, kultura, kirol, eta abarren arloetako liderrak. Ibilbide garrantzitsua eta gure markarekin bat datozen balioak dituzten pertsonak. Enpresek, eta bereziki nazioarte mailakoek, gure markaren enbaxadoreak ere izan behar dute. Finkatuta eta ongi jarduteagatik ezagunak eta onartuak diren merkatuetan sartzeko ate bikainak izan daitezke.

F.3) EUSKAL ENPRESEI MUNDUAN BABESA EMATEA

⇒ *Diagnostikoa:*

Azken urteotan, euskal enpresek ahalegin handiak egin dituzte, kasu askotan erakundeek lagunduta, mundura ireki nahian betiere, dela esportazio-bolumenean, dela kanpoko inbertsioetan.

EAEk, gaur egun, 150 enpresatik gora ditu ezarrita kanpoan. Enplegua eta aberastasuna ematen dizkiguten enpresak dira.

Orain beste pauso bat gehiago egitea da kontua. Erronka berriei ekiteko beharrezko dimentsioa lortzeko itunak ezartzea, bereziki nazioarte mailan liderrak ditugun enpresen sektoreetan eta gure industria politikan lehentasunezko zat jotako sektore goranzkorretan. Zeren eta herrialde bat nazioartekotzeko prozesuak berekin baitakar erakunde publikoek eta pribatuak partekaturiko helburu komunengatik sinergiak sortzea. Batera hartu behar ditugu geure gain erronkak. Izan ere, sektore pribatuak negozioei buruzko beren ikuspegia eta esperientzia komertziala ematen baititu eta

enpresa horiek nazioartekotzeko prozesuaren aldeko apustua bultzatzeko zerbitzuak eman baititzakete. Gainera, garapenerako ikuspegi integrala eta integratzailea dakar.

Euskal erakundeetatik behar den laguntzarekin eta bultzadarekin. Zeren eta gure enpresen arrakasta Euzkadiren arrakasta ere izango baita.

⇒ ***EAJ-PNVren erantzuna***

1. Sektore estrategikoak lehenestea, zertarako-eta aukera gehien eta barne ekonomian eragin handiena duen nazioarte mailako kokapenean biltzeko euskal erakundeek ekintza hala nola enpleguan, herritarren bizi-kalitatean eta lurralde-berdintasunean.
2. Euzkadiren eta euskal enpresen arteko itun estrategikoa eraikitzea. Mozkinak bilatzeko oinarria duen ituna da, baina Enpresaren Gizarte Erantzukizunerako ere bai. Enpresentzat eta Euzkadirentzat balioa ekarriko duen ituna.
3. Enpresak nazioartekotzera bideraturiko integrazio bertikalaren inguruko kolaborazioak sustatzea. Hala, alde batetik balio handiagoa eskaini ahal izango diegu helmugako merkatuei eta, bestetik, sortutako balioaren zati handiagoa euskal enpresetan gelditzea lortuko dugu.
4. “Baterako lehia” ere sustatzea, lehiatzaileak diren hainbat konpainiaren ahalmenak bilduz nazioarte mailako merkatu edo bezero estrategikoengana iristeko moduari lehiakortasun handiz aurre egiteko. Nahiz eta ituna enpresek nazioartekotzeko beti izan duten baliabidea izan, haren eginkizunean aldaketa garrantzitsuak gertatu dira egungo nazioartean nagusi den globalizazio-prozesuaren eta aldaketa teknologikoaren ondorioz. Herrialde bateko mugaz gaindiko jarduketa-esparrua duten itun estrategiko globalei esker, bizkortu egin daiteke enpresa nazioartekotzea, enpresak bere produktuak merkatu zabalago batera iritsarazteko behar dituen kanpoko baliabideak erraztuz.
5. Klusterren eta berrikuntzarako eskualde-sistemen eginkizun estrategikoa indartzea. Globalizazioak jardueraren lurraldetasuna bultzatzen du Euzkadirena bezalako plataformetan, non klusterren eta berrikuntza-sareen lankidetzak garrantzizko lehia-abantaila dakarren.
6. Diasporarekin lotutako aukerak baliatu eta loturak indartzea helmugako herrialdearen ezagutzaren, giza baliabideen, lobbien eta harremanen aldetik.
7. Gure enpresa eta lehentasunezko sektoreen nazioarteko presentziarako helburuaren zerbitzura jartzea harremanetarako gure nazioarteko sarea, nazioarteko erakundeetan parte hartzearen eta nazioarteko lankidetzaproiektuen ondoriozkoa.